
Osakidetzaren euskarazko estilo liburua



Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA

ARGITARALDIA
2026ko martxoa

ARGITARATZEN DU
Osakidetza. Araba kalea, 45.
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa
Osakidetza

INTERNET
www.osakidetza.euskadi.eus

LEHENENGO BERTSIOAREN LANTALDEA:
Ane López Díez (koord.)
Natalia Elvira García
Regina Larruzea Aransolo
Eunate Molinuevo Olabarria
Gontzal López López
Ainhoa Mentxaka Etxebarria

BIGARREN BERTSIOAREN EGILEAK:
Regina Larruzea Aransolo
Ane López Díez

ARGITARATZAILEA:
Osakidetza. Araba 45, 01006 Vitoria-Gasteiz

Liburu hau Osakidetzako langileentzat da batik bat; eguneroko lana euskaraz egiten duten langileentzat, hain zuzen. Ildo horretatik, Osakidetzako testugile euskaldunek izan litzaketen eta izaten dituzten zalantza eta arazoei erantzuten saiatu gara, guk geuk Euskara Zerbitzu Korporatiboan izaten ditugun dudetatik abiatuta.

Beraz, liburu honen hartzaile nagusiak Osakidetzako langile guztiak izanik, azalpen argigarri eta arinak ematen saiatu gara, adibideekin. Adibide guztiak letra-tipo diferente batez daude idatzirik, eta koska bat barrurago, ongi ikusteko. Adibide gehienak Osakidetzako benetako testuetatik eta EHAAn argitaratutakoetatik atera dira, baina batzuetan aldaketak egin dira, hemen zehazten ditugun arauak bete ditzaten, gida honen erabiltzaileek eredu gisa erabiliko balituzte ere. Nahikoa izan den kasuetan, euskarazko forma egokiak bakarrik jarri ditugu adibideetan. Beste batzuetan, ordea, *gaztelania > aldatu beharrekoa > egokia* formatuari jarraitu diogu. Horrez gain, aldatu beharrekoen barruan bi motatako adibideak bildu ditugu: batetik, okerrak, izartxoaz (*) markatuak, eta, bestetik, hobesten ez direnak, beheranzko geziaz (↓) markatuak. Bigarren motako adibideetan ez du esan nahi erabilerok egokiak ez direnik, baizik eta guk beste aldaera bat jotzen dugula egokiagotzat.

Bertsio digitalean dago eskuragarri estilo-liburu hau (Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren intranetean), hain zuzen ere, badakigulako hemen jasotako zenbait atal aurrerago garatu eta eguneratu ere egingo ditugula, denborarekin finkatzen joango garen terminoekin eta liburuari gehituko dizkiogun baliabide gehiagorekin.

Hasierako argibide hauek amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu liburu hau osatzen lagundu diguten guztiei; esker-onak, batez ere, Euskara Zerbitzu Korporatiboko eta ESIetako Euskara Zerbitzuetako lankideei eta Osakidetzan euskararen normalizazioan aritzen diren teknikariei, egin dituzten ekarpenengatik eta egingo dituztenengatik. Nabarmendu nahiko genituzke, baita ere, liburu honen idazketa-lanetan ari ginela Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Berrikuntzako aholkulari zen Román Berriozabalen ekarpenak eta oniritzia. Mila esker den-denoi emandako laguntzagatik.

AURKIBIDEA

SARRERA **6**

EUSKARAREN ETA ERDAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOETAN **7**

ORTOTIPOGRAFIA 8
- PUNTUAZIOA 8
- LETRA LARRIAK 11
- LETRA ETZANAK 21
- ZENBAKIAK 23
- LABURTZAPENAK 27
- SINBOLOAK 35
- BIBLIOGRAFIA NOLA ADIERAZI 37

HITZ-ELKARKETA **40**
- Ø / -(R)EN / -(E)KO AUZIA 44

KALKO OKERRAK **48**

OHAR BATZUK ARGITASUNAREN BILA **66**

EUSKARA INKLUSIBOA **74**
- EUSKARA EZ-SEXISTA 74
- DESGAITASUNAK HIZPIDE 76
- OSASUN MENTALAZ 77
- ZAHARTZAROAZ MINTZO 78

ADMINISTRAZIO-TESTUAK **80**
ADMINISTRAZIO-TESTUEN ZENBAIT BEREZITASUN 80
LEGE-IZENAK NOLA IDATZI 90
ERDAL FORMULAK EUSKARAZ 93
EHAA-N ARGITARATZEKO TESTUEN ESTILO-ARAUAK 99

OSAKIDETZAKO TERMINOLOGIA ETA BESTELAKO HAUTUAK **106**
BETI ZALANTZAZKOAK DIREN KONTU BATZUK 106
OSAKIDETZAKO ZERBITZU-ERAKUNDEEN IZENAK 115
OSASUN-ZENTROEN IZENAK 117
LANPOSTU FUNTZIONALEN ZERRENDA 121
OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZEN, ZUZENDARIORDETZEN ETA KARGUEN IZENAK 123
HIZKERA SANITARIOA 123

LOKALIZAZIOAN ARITZEKO JARRAIBIDE BATZUK **129**
SOFTWAREAREN OSAGAIAK 129
LOKALIZAZIOAREN OINARRIZKO ZENBAIT ALDERDI TEKNIKO 130
LOKALIZAZIORAKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK 133

AZPIDAZKETAN ARITZEKO JARRAIBIDEAK **144**

ITZULTZAILE AUTOMATIKOA ETA POSTEDIZIOA **148**

OSAKIDETZAKO HELBIDE ELEKTRONIKOAK SORTZEKO IRIZPIDEAK **149**

BIBLIOGRAFIA **153**

SARRERA

Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko (2013-2019) II. Planaren oinarri diren printzipioen artean daude hizkuntza-eskubideen errespetua eta zerbitzuaren kalitatea hobetu nahia. Komunikazioa da tresnarik garrantzitsuena jarduera asistentzialean; beraz, eztabaidaezina da zerbitzuaren kalitatearen bermea dela paziente eta erabiltzaileei ziurtatzea erosoen eta seguruen sentitzen diren hizkuntza ofizialaren erabilera.

Hala, idatzizko komunikazioen euskarazko kalitatearekin lotuta II. Euskara Planean ezarritako helburu espezifikoetako batzuei heltzeko sortu da estilo-gida hau. Hain zuzen ere, "Hizkuntza-kudeaketa" atalean aipatutako biri heltzeko:

"4.4.3. Estilo-irizpideak

(...) Osakidetzak zenbait estilo-irizpide zehaztuko ditu eta hainbat dokumentu-txantiloi edo dokumentu-eredu prestatuko ditu, testu eta idazketa estiloak bateratu eta idatzi guztietan euskararen kalitatea zaintzeko asmoz.

4.4.4. Terminologia

a) Osakidetzak, Euskara Zerbitzu Korporatiboaren bidez, barnean hartzen dituen lanbide-eremuetako euskarazko lexiko espezializatua bildu, normalizatu eta hedatzeko lan sistematikoari ekingo dio".

Erakunde handia da Osakidetza, eta langile askok darabilte euskara beren testuetan, askotariko testuinguruetan. Testuok euskara hutsean sortzen dira, edota itzulpen-zerbitzuen bidez euskaratzen. Horrek esan nahi du pertsona bat baino gehiago arduratzen dela idazketa-prozesuaz, eta, beraz, bestelako irizpiderik ezean, bakoitzak bere estiloa erabiliko duela idaztean.

Euskaraz idazten dugunok ondo ezagutzen ditugu hizkuntza idatzirako arau gramatikal, sintaktiko eta ortotipografikoak; hala ere, hizkuntza zuzen eta egokia erabiltzeaz gainera, gurea bezalako testuinguru zabal eta anitz batean, berebiziko garrantzia dauka nolabaiteko homogeneotasun estilistiko bati jarraitzeak, bi arrazoi nagusirengatik:

- Batetik, denok estilo bateratua erabiliz gero, irakurleek errazago ulertu eta identifikatuko dute mezua.

- Bestetik, testuek kutsu korporatiboa lortuko dute.

Gidaliburu honetan, beraz, Osakidetzan sortzen diren askotariko testu motetan erabiltzeko proposamenak biltzen dira. Oinarri gisa, Euskaltzaindiak eta gure esparruko bestelako entitateek (IVAP, IZO, Berria, Elhuyar, EIMA...) argitaratutako erabakiak hartu ditugu, baina gure testu-egoeretara eta baldintzetara egokituta, eta gure adibide espezifikoen bidez azalduta. Horrez gain, idazketan lagungarri izan litezkeen baliabide terminologikoak biltzen saiatu gara, eta Osakidetzak gai jakin batzuen gainean egindako hautuak azaltzen; izan ere, jakin badakigu zenbait arlotan, batez ere Osakidetza bete-betean jotzen duen arlo sanitarioan, bide handia dagoela oraindik euskarazko komunikazio-hizkera finkatzeko.

EUSKARAREN ETA ERDAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOETAN

Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko (2013-2019) II. Planak, Hizkuntza-kudeaketari buruzko 4. atalean, argi azaltzen du nola erabili behar diren bi hizkuntza ofizialak idatzizko komunikazioetan:

"a) Idatzizko komunikazioetan, Osakidetzan aplikatuko egingo dira Eusko Jaurlaritzan eta bere erakunde autonomoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Planak jasotako irizpideak (edo unean-unean indarrean egon daitezkeen Plan horren eguneratzeetarako irizpideak, bestela), derrigor bete beharrekoak baitira bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean baita haren erakunde autonomoetan ere. Eta elementu grafikoei dagokienez, Osasun Sailak 2013ko apirilean eguneratutako Identitate Grafiko Korporatiboaren Eskuliburuari jarraituko zaio. Alde horretatik, Osakidetzak kalitateko komunikazio idatziak sustatuko ditu, hau da, testu zuzenak, jatorrizkoak, egokiak eta argiak, egitura logiko eta diseinu zainduarekin, betiere ulermena bermatzeko helburuz.

b) Bi hizkuntza ofizialetako testuen kalitatea zaintzeko testuinguruan, hizkuntzen funtzionaltasuna ere hartuko da kontuan. Horregatik, euskarazko eta gaztelaniazko testuak elkarren ondoan eta mezu berdina ematen agertzen diren dokumentuetan, euskarazko testua lehentasunezko lekuan kokatuko da, tipografiaren bidez nabarmenduta:

b.1) Euskarazko eta gaztelaniazko testu analogoak bata bestearen gainean dauden lerro edo blokeetan ipini behar izanez gero, euskarazko testua goian agertuko da; lerro edo zutabe bertikaletan, euskarazko testua ezkerrean egongo da; eta orrialde paraleloetan, euskarazko orrialdea eskuinekoa izango da.

b.2) Tipografiari dagokionez, euskarazko eta gaztelaniazko testuak elkarren ondoan badaude (lerro, bloke, zutabe edo orrialdeetan) eta mezu berdinak adierazten badituzte, euskarazko testuak letra lodiz nabarmenduko dira. Baina nabarmentzea ez da beharrezkoa izango hizkuntza bateko eta besteko testuak elkarren ondoan edo hurbil ez badaude, edo, testu berean bi hizkuntzak elkarrekin agertuta ere, mezu ezberdinak ematen badituzte."

ORTOTIPOGRAFIA

PUNTUAZIOA

Puntuazioari dagokionez, Juan Garziaren *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak* eta Joxe Ramón Zubimendiren *Ortotipografia* liburuak dira erreferentzia. Bertan, luze eta zabal jasotzen dira puntuazioaren nondik norakoak, askotariko testu motei aplikatu beharrekoak: puntua [.], koma [,], puntu eta koma [;], bi puntuak [:], etenpuntuak […], galdera-marka [?], harridura-marka [!], parentesiak [()], marrak [— —], kakotxak [“”] eta barra [/].

Nolanahi ere, atal honetan apur bat xehatuko da puntuazio-marka jakin batzuen erabilera:

KAKOTXAK

Osakidetzan, oro har, kakotx bikoitzak [“ ”] erabiltzen dira. Kakotx batzuen barruan beste batzuk jarri behar izanez gero, hauxe da erabili beharreko ordena: “bbb ‘ccc’ bbb”. Kakotx artean (eta letra arruntez) idatzi behar dira:

~ Hitzez hitzeko aipamenak.

> Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 12. artikuluak zera dio: “Euskadiko sistema sanitarioaren zuzendaritza, planifikazioa eta programazioa Eusko Jaurlaritzaren eskumena dira; Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazio Orokorreko organo aginpidedunen bidez exekutatzen da”.

~ Iragarki eta leloen aipamenak (publizitate-kanpainak, hauteskunde-kanpainak, manifestazioetako deiadarrak eta pankartak…).

> Zeresan handia eman du “Txertoa jartzeko unea da ETA BADAKIZU” leloa zuen 2019ko gripearen kanpainak.

~ Argitalpen nagusiago baten zati diren artikulu eta abarren izenak.

> Osatuberri aldizkariaren joan den hileko aleak dakar “Nola jan, txandaka lan egiten denean” artikulua.

~ Hitzaldi, mahai-inguru, erakusketa, biltzarren eta abarren izen espezifikoak komatxo artean edo letra etzanez idazten dira.

> “Orain da Garaia” biltzarra; “Arreta goiztiarren sistemak: historia, esperientziak eta inpaktua” mahai-ingurua

Kakotxak eta puntuazioa

~ Kakotx artekoa puntuz, komaz, puntu eta komaz edo bi puntuz amaitzen denean, galdu egiten da amaierako marka hori: ez da ipini behar. Bai, ordea, kakotxen ondoren, perpaus osoari dagokion puntuazioa.

> "Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera".

~ Hitzez hitzeko aipamenari akotazioak eranstean, marra erabiliko da akotazioak gehitzeko, eta kakotxak aipamenaren hasieran eta bukaeran bakarrik erabiliko dira.

> "Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak —dio Mitxelenak— baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera".

~ Kakotx artekoa hiru puntuz, galdera-markaz nahiz harridura-markaz amaitzen denean, ez da galtzen amaierako marka hori: ipini egin behar da. Eta gero, kakotxen ondoren, perpaus osoari dagokion puntuazioa jarri behar da.

> Hala esan dio: "Saiatu, saiatu naiz; baina...". Eta geroago: "Alde hemendik!".

~ Kakotx artekoa puntuazio-markarik gabe amaitzen denean, kakotxen ondoren jarri behar da, hala dagokionean, puntua, hiru puntu, galdera-marka, koma edo dena delako marka.

> Gogoratu haren hitzak: "bildu eta hitz egin", eta ahaleginak egin behar ditugula.

BARRA

~ Bata bestearen segidan idatzitako hitzen artetik bat aukeratu beharra-edo dagoela adierazteko, barra erabiltzen da, baita aurkaritza adierazteko edo nabarmentzeko ere.

> Lehen Mailako Arretako unitateburu lanpostuko hautagaiek 4 urteko esperientzia izan beharko dute gutxienez, A1/B1 lanbide-taldeetako zereginetan.

~ Hala ere, gogoratu gutun orokorretako agurra *Bezero jauna/andrea* dela singularrean idazten zaienean, eta *Bezero jaun-andreak* pluralean idazten zaienean.

~ Herri bakar bat esateko bi izen erabiltzen direnean (gehienetan, bata bestearen itzulpen modura edo), barra tartekatzen zaie.

> Donostia / San Sebastián; Lizarra/Estella

Ez dira barraz idatziko bi herri edo barruti elkartzean sortutako leku-izenak.

> Ezkio-Itsaso; Gernika-Lumo

Oro har, Osakidetzaren euskarazko testuetan herrien euskal izena erabiliko da, testu arauemaileetan izan ezik (instrukzioak, ebazpenak, zirkularrak, EHAAn argitaratzen diren testuak…), horietan herri eta hirien izen ofiziala erabili behar baita beti (alegia, *Bilbao* eta ez ↓*Bilbo, Vitoria-Gasteiz* eta ez ↓*Gasteiz*, etab.). Herrien euskal izenak zein izen ofizialak Euskaltzaindiaren webgunean kontsulta daitezke, *Euskal Onomastikaren Datutegian* (EODA).

~ Legeen eta dekretuen izenetako zenbakien artean barra erabiltzen da, alboetan hutsunerik utzi gabe.

Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutua onartu zuen abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 52.1. artikuluan ezartzen da langileek eskubidea izango dutela astean batez beste 24 orduko atsedenaldi etengabea hartzeko gutxienez.

~ Barra erabiltzen da aritmetikako zatiketak eta zatikiak adierazteko, eta zenbait neurri-izenen nazioarteko sinboloetan.

2/3 (bi zati hiru / bi heren), 6 km/h (orduko sei kilometro)

~ Zenbait gaitan agertzen diren erlazio multzoak aditzera emateko, barra erabiltzen da.

Begiratu iaz erositakoen urtea/prezioa grafikoari.
Adierazi haurdunaldiko astea / fetuaren pisua (kg-tan) funtzioa.

Barra nola idatzi

~ Testu elebakarretan, barraren alboetan aukeragai dauden elementuak hitz bakarrekoak direnean, ez da zuriunerik utzi behar barraren alboetan. Aldiz, barraren alboetan agertzen diren elementuek hitz bat baino gehiago dutenean, zuriunea utzi beharko da barraren alboetan.

Idazlea, mendia/mundua, luma/ezpata, izan/ukan eta gisakoez mintzatu ondoren, metafisikan murgildu zen hutsune hutsa / hutsune betea harturik gaitzat.

~ Testu elebidunetan (esaterako, inprimakietan), barra erabiltzen da euskarazkoa eta gaztelaniazkoa bereizteko, eta, espazio-arazoak daudenean, ez da zuriunerik erabiliko, barraren alboetan hitz bat baino gehiago agertu arren.

NORENTZAT/DIRIGIDO A

~ Kasu-markei eta letra larriei dagokienez, barraren inguruko hitz/aukera biek kasu-marka berbera eduki behar dute, eta bi osagaiak letra larriz edo xehez hasi behar dute; izan ere, bata zein bestea kenduta esaldia ondo ulertu behar da.

Medikuen/Erizainen arretari buruzko Erabakia

LETRA LARRIAK

Letra larrien erabilerari dagokionez, Euskaltzaindiak berriki onartu duen *Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO)* hartu da oinarri (zehazki, 200. araua – EBO IV. Letra larriak eta letra xeheak), baita Alfontso Mujikaren *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* liburuan eta *Berriaren Estilo Liburuko "Letra larria, xehea eta maiuskula txikiak"* atalean azaltzen dena ere.

Kontuan hartu behar da letra larriek bi erabilera dituztela nagusiki: batetik, testu- edo esaldi-hasiera markatzea; bestetik, izen edo izendapen bereziak markatzea (hemen ez dugu hitz egingo letra larri txikiei buruz). Lehenengo erabilera hori nahiko argia da, eta ez du arazo handirik sortzen, hots, letra larriak erabili behar dira testu hasieran eta paragrafo hasieran, puntuaren ondoren, galdera eta harridura marken eta hiru puntuen ondoren (esaldiari amaiera ematen dietenean). Letra larrien nabarmentze-funtzioa da arazo-iturririk handiena gai honetan, hau da, maiuskulak erabiltzen direnean izen edo izendapen bereziak arrunteta-tik bereizteko.

Lan honetan, Osakidetzako eguneroko lanerako adierazgarriak iruditu zaizkigun alderdiak soilik bildu dira.

Kasu hauetan erabili behar da, beraz, letra larria:

PERTSONEN IZEN-ABIZENAK ETA KARGUAK

~ Pertsonen izen-abizenak letra larriz idazten dira.
Baina abizenetako artikuluak eta preposizioak (*de, del, de la, d'*), letra xehez.

> Geneviève de Galard; Diaz de Zerio; Lopez de Abetxuko; Maria de Oignies; Vincent van Gogh

~ Badaude salbuespen batzuk, hala nola italiar abizenetako artikuluak eta preposizioak eta frantsesezko artikulua (ez preposizioa).

> Robert De Niro; Gabrielle Émile Le Tonnelier de Bretuil (Émile du Châtelet); Leonardio DiCaprio

Dena dela, aurretik izenik ez badute, preposizioa beti letra larriz idazten da.

> De Duve; Von Euler; Von Frisch

~ Batzuetan, izen arrunt bihurtzen da pertsona-izena, baina jatorrizko esanahia aldatuta. Halakoak, izen arruntak diren aldetik, hiztegietan agertzen dira, eta letra xehez idazten.

> Gure aitonak alzheimerra du.
>
> Estatu Batuetan, parkinsona sendatzeko botikak sortu nahi dituzte.

~ Pertsonak izendatzeko, batzuetan, pertsonaren izen bereziarekin batera, beste izen generiko batzuk erabiltzen dira aposizioan: titulua, lanbidea edo kargua, ahaidetza, adeitasunezko deiturak. Horiek beti letra xehez idatzi behar dira.

Joseph Lister medikua; Mendia andrea; Erizaintzako Koordinazio Asistentzialeko zuzendaria; Zubia doktorea

LEKUAK

~ Leku izenetan, letra larriz idatzi behar dira hitz guztiak, tarteko artikulu eta preposizioak salbu.

Lapuebla de Labarca; Los Arcos; Aix-en-Provence

~ Izen geografikoak atal generiko batez eta espezifiko batez osatuta egoten dira askotan. Generikoak modu orokorrean identifikatzen du lekuaren izaera *(ibaia, herria, aintzira, mendia…),* eta espezifikoak, berriz, modu partikularrean *(Amazonas ibaia, Mendi Harritsuak eta Bizkaiko golkoa toponimoetan, Amazonas, Harritsuak eta Bizkaia* dira espezifikoak*).* Horrelakoetan, osagai espezifikoa letra larriz hasita idazten da.

Kantauri itsasoa; Aturri ibaia; Alpe mendiak; Bizkaiko golkoa
Baina: Itsaso Gorria; Ibai Urdina; Ozeano Barea

~ Administrazioko egitura politikoak.

Nafarroako Foru Komunitatea; Pirinio Atlantikoetako Departamendua

~ Errealitate historiko eta geopolitikoak.

Mendebaldea [herrialde kapitalistak; tradizio kristaua] / Ekialdea [herrialde komunistak; tradizio budista, hinduista]; Ekialde Hurbila

AEBko eta Mendebaldeko kulturen mendeko ikusten zuen Japonia.

~ Herri eta hirietako toponimoak, eraikinak, gelen izen bereziak. Generikoa letra xehez idazten da, non eta ez den izen bereziaren parte.

Isozaki dorreak; Araba kalea; Euskalduna jauregia; Lekaio kultur etxea; San Telmo museoa

Baina: Dorre Bikiak; Kale Nagusia; Plaza Biribila; Alkizako Kultur Etxea; Arte Ederren Museoa; Ondarroako Kafe Antzokia

~ Gentilizioak, aldiz, letra xehez idazten dira.

bilbotarra; gasteiztarra; durangarra

***ADMINISTRAZIO* HITZA**

~ Bakarrik doala, letra larriz hasita idazten da.

Hori Administrazioaren erabakia da.

Modu generikoan erabiltzen denean, berriz, letra xehez idazten da.

Tokiko administrazioen modernizazioa

ERAKUNDEAK ETA TALDEAK

~ Erakundeak, organismoak, elkarteak, taldeak eta enpresak, eta haietako gobernu eta kudeaketa-organo nagusiak, sailak, taldeak eta batzordeak.

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako Klaustroa; Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa; Oiartzungo Udala; Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

Beraz, letra larriz hasten dira Osakidetzaren atalak: zerbitzuak, arloak, unitateak, bankuak….

Prestakuntza Zerbitzua; Giza Ugalketako Unitatea; Gurutzetako Erizaintzako Irakaskuntza Unitatea; Odol eta Hemoderibatuen Bankua

Pluralean edo adjektibo edo erakusle batekin agertzen direnean, hau da, erabilera generikoan, letra xehez idazten dira.

Euskal Herriko Unibertsitatea; Arabako Foru Aldundia; Ekonomia Ministerioa; Lehen Auzialdiko 2. Epaitegia; Bidasoko ESIa; Baionako Udala

Baina: unibertsitate hori; hiru foru aldundiak; ekonomia ministerioetan; epaitegi hori; zerbitzu-erakundeetan; udal hori; odol-bankuak; irakaskuntza-unitateak

~ Askotan, erakundearen izen osoa idatzi beharrean, eta laburtzearren, haren zati bat baino ez da idazten (Udala, Foru Aldundia, Gobernua, Fundazioa, ESIa...), eta testuinguruak argitzen du zer erakunde den. Halakoetan ere, idazten den zatia letra larriz hasita idatz daiteke.

Kasu horretan, Tolosako Udalak ezin du ezer egin, Foru Aldundiak erabaki behar du.

~ Alabaina, hori ez da beti betetzen. Dena delako erakundearen mendeko atalaren izen generikoa (lantaldea, taldea, batzordea, komisioa, saila...) letra xehez idazten da askotan, aposizio bidez. Orduan, atal espezifikoa letra larriz hasita idazten da, eta izen generikoa, berriz, letra xehez.

Lehen Mailako Arretako Aholku Batzordea vs Lehen Mailako Arretako taldeak

EKITALDIAK

~ Gizarte-, kultura- eta kirol-ekitaldiak, hitz guztiak larriz (egun bereziak, literatura- eta arte-jaialdiak, kirol-txapelketak...).

Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, AECC Gipuzkoak mintzodromo bat antolatu du otsailaren 4rako.

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna denez, hainbat ekintza antolatu dira.

Osakidetzako 300 kidek parte hartu dute aurtengo Enpresen Lasterketan.
Baina: txapelketa gogorra; jardunaldi interesgarria

~ Sariak. Sariaren berezko izenari *sari* hitza aposizioan lotzen zaionean, letra xehez idazten da.

Emakunde sariak; Go Health Awards saria; Fisikako Nobel saria; Innoba saria

Sariaren izena deskriptiboa denean, *sari* hitza sariaren izendapenaren parte da, eta letra larriz hasita idazten da.

Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria; Jardunbide Egokienen Saria

IZENBURUAK

~ Argitalpen, dokumentu eta artelanen izenetan, lehen hitza letra larriz idatzi behar da (liburuak, antzezlanak, telesailak, artelanak, telebista eta irratiko saioak, filmak, CD ROMak...).

Haur besoetakoa; Hitzetik hortzera; Deabruaren hiztegia

Gainera, letra etzanez idaztekoak dira testu baten barnean daudenean.

EHUk 2004an argitaratu zuen *Mikrobiologia medikoa liburua.*

Minbiziak dakarren sufrimenduaz eta heriotzaz gogoeta egiten du Anjel Lertxundik *Zu* liburuan.

~ Egunkariak, aldizkariak eta liburukiz osaturiko hiztegi, gramatika, entziklopedia eta abar, hitz guztiak letra larriz.

Orotariko Euskal Hiztegia; *Euskaldunon Egunkaria; Le Monde*

~ Ingelesezko izenburuetan, hitz guztiak letra larriz, hitz gramatikalak izan ezik.

Gray's Anatomy: The Anatomical Basis of Clinical Practice; Just Medicine: A Cure for Racial Inequality in American Health Care

~ Liburu bildumak, hitz guztiak letra larriz.

Enigma eta Sail Beltza bildumetako lau liburu kaleratu dituzte.

HEZKUNTZA, JARDUNALDIAK ETA HITZALDIAK

Arlo honetako izendapenetan, oro har, izen eta adjektibo guztiak letra larriz hasita idazten dira izenburu laburretan, baina lehen hitza bakarrik hasten da maiuskulaz izenburua luzea denean. Zehazki, arau orokor hori aplikatzen da kasu hauetan:

~ Hezkuntzaren arloan: irakasgaiak, heziketa-zikloak, lanbide-heziketako ikasketak…

UPV/EHUren eraikin berriak Medikuntzako, Fisioterapiako eta Erizaintzako Graduak aterpetuko ditu, eta 2024-2025 ikasturtean inauguratuko da.

Ingeniaritza Biomedikoa unibertsitate arteko masterrak gai hauek jorratzen ditu: medikuntza arloko osasun-teknologiaren kudeaketa, ebaluazioa eta aplikazioa.

Osasun Mentalerako Erizaintza irakasgaiaren programak hainbat gai jorratzen ditu. Datorren ikasturtean, Adimen Artifizialeko gradua ikasten hasiko da.

Izendapena luzea denean, esan bezala, lehenengo hitzaren lehen letra bakarrik idazten da larriz.

Erizaintzako lehenengo mailan Osasun zainketei aplikatutako zientzia psikozozialak irakasgaia ematen da.

~ Ikastaroen, mintegien, tailerren nahiz gai jakin bati buruzko bestelako eskola- eta jarduera-sorten izenak.

UEUk “Osasuna eta Hizkuntza” ikastaroa eskainiko du aurten.
Osakidetzak “Bigarren eta hirugarren biktimekiko esku-hartzea pazientearen segurtasunaren eremuan” ikastaroa txertatu du langile guztientzako prestakuntza-prometan.

~ Izaera formaleko bileren izendapenenak: biltzarrak, kongresuak, jardunaldiak, topaketak, erakusketak, lehiaketak, azokak, erakustazokak, sinposioak, konbentzioak eta abar.

Pediatriako Erizainen III. Jardunaldia.

Bilbo-Basurtuko ESIko Prestakuntza Jardunaldia.

Datorren ostegunean “Jaiotza-inguruko doluaren arreta eguneratzeko I. jardunaldia” egingo da Bizkaia Aretoan.

Ekitaldiak berariazko izenburua badu (eta ez izen deskribatzaile bat) eta izen generikoa izenburu horren ondoren jartzen bada, izen generikoa ez da izendapenaren parte, eta, beraz, minuskulaz idatzi behar da. Gainera, izenburu espezifikoa letra etzanez edo komatxo artean idazten da.

BOMSen *Elkarrekin Ikasten* jardunaldian hiru mahai-inguru izango dira.

Arreta handia erakarri du "Zaintza eraldatzen: berrikuntza eta teknologia erizaintzako ikerkuntzan" jardunaldiak.

~ Hitzaldien, diskurtsoen, mahai-inguruen eta aurkezpenen izenburu espezifikoak: lehen hitza bakarrik hasten da larriz, izenburua luzea zein laburra izan, eta testu barruan txertatuta doanean, letra etzanez edo komatxo artean idazten da.

Lehenengo mahai-ingurua *Errealitate birtuala eta erizaintzaren etorkizuna* da.

Goierri-Urola Garaiko ESIko emaginak "Oin txikienak ere betiko aztarna uzten du" hitzaldia emango du 16:00etan.

HITZARMENAK, AGIRIAK, PLANAK ETA EGITASMOAK

~ Adierazpen, programa, plan, proiektu, akordio, protokolo, agiri eta kidekoen izenburuetan, hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira, eta *itun, agiri, plan* eta *egitasmo* hitzak letra larriz idazten dira izenaren parte direnean; bestela, letra xehez idazten dira.

Birika-erauzketa Onkologikoko Kirurgiako Fisioterapia Protokoloa; Aldi Baterako Ezintasunaren Agiria; Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 3. Plana; 2010eko EAEko Osasun Mentaleko Estrategia

Baina: Erasmus egitasmoa; Nunca Mais agiria

Izenburua luzea denean, lehen hitzeko lehen letra bakarrik idazten da larriz, eta, testuaren barnean, komatxo artean idazten da.

LEGEEN, EBAZPENEN, INSTRUKZIOEN ETA BESTELAKOEN IZEN OFIZIALAK

~ Legeen izen ofizialak letra larriz idazten dira.

Zigor Kodea; 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa; Ingurumena Babesteko Lege proiektua

~ Legearen izenburuan azalpen luzea agertzen denean, sei hitz baino gehiagokoa, ordea, letra xehea erabiltzen da.

IRAGARKIA, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Erizaintzako zuzendariordearen lanpostua izendapen askez betetzeko deialdiari buruzkoa

~ Legeen atalak letra xehez idazten dira.

Europako Konstituzioaren VII. tituluan ageri dira lankidetza indartuari buruzko xedapenak.

MARKAK ETA MODELOAK

~ Marka komertzialak letra larriz idazten dira; esaterako, medikamentuen izenak.

Gaur, Frenadol bat hartu dut.

~ Baina marka generiko bihurtu bada, letra xehez.

Atzo aspirina bat ekarri nizun.

~ Bestalde, printzipio aktiboak (ez markak) letra xehez eman behar dira.

Pazienteak parazetamolari dio alergia.

INTERNET

~ Internet sareen sarea da, munduan bat bakarra; horregatik, letra larriz hasita idazten da, eta izen berezi gisa hartzen ditu kasu-markak: Internet, Interneten...

Familiako medikuarekin hitzordua Internet bidez nola eskatu azaltzeko saio bat antolatu du Azkoitiko Anbulatorioak.

~ Baina letra xehez idatzi behar dira —eta hitz arrunt gisa hartzen dituzte kasu-markak— Internet ez diren gainerakoak: intraneta, estraneta.

Langileak intranetean sartu behar dira hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko 2019ko ohiko lehen deialdiko probetan parte hartzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda ikusteko.

ZIENTZIAKO ETA TEKNOLOGIAKO TERMINOAK

~ Lege, teorema, printzipio, gaixotasun, sindrome eta zientzia kontzeptuen osaeran izen bereziek parte hartzen dutenean, letra larriz hasita idazten da izen berezia, eta letra xehez izen arrunta.

Planck-en konstantea; Rorschach-en testa; Down-en sindromea; Parkinson-en gaixotasuna (baina *parkinsona* ere idatz daiteke, letra xehez, guztiz lexikalizatuta alegia)

~ Izen berezirik ez dagoenean, letra xehez idaztekoak dira honelakoak:

erlatibitatearen teoria; eskaintza-eskarien legea

~ Unitateen izenek, askotan, pertsona-izen batean dute jatorria. Unitateak izen arruntak dira, eta letra xehez idazten dira. Hala ere, jatorrian pertsona-izena duten unitateen ikurra letra larriz idatzi ohi da.

newtona (N); amperea (A); pascala (Pa); watta (W)...

Oharra: unitateen ikurrak eta unitateen aurrizkien ikurrak aldaezinak dira, unibertsalak baitira.

Venda elástica adhesiva 7-8 cm
*Benda elastiko itsasgarria 7-8 zm
Benda elastiko itsasgarria 7-8 cm

BIOLOGIA: BIZIDUNEN SAILKAPEN SISTEMATIKOA

~ Bizidunen espezieak izendatzeko —animaliak, landareak, onddoak, bakterioak—, nomenklatura binomiala erabiltzen da, latinezko bi osagaiz osatua: lehenengoak generoa adierazten du, eta letra larriz hasita eta etzanez idazten da; bigarrena, berriz, espeziearen bereizgarria da, eta letra xehez eta etzanez idazten da. Espezie-izen arruntak letra xehez idazten dira.

panda gorria edo *Ailurus fulgens*; izurde arrunta edo *Delphinus delphis*

~ Generotik gorako kategoriak ere latinez idazten dira, eta letra larriz hasita beti (familia, ordena, klasea...), baina ez dira letra etzanez idazten.

Gizakia Homo sapiens espeziekoa da, Homo generokoa, Hominidae familiakoa.

TESTU ADMINISTRATIBO ETA JURIDIKOETAKO ERABILERA

~ Izaera administratibo edo juridikoko testuetan, *adierazi, eskatu, ziurtatu, egiaztatu* eta gisako aditzak, askotan, osorik idazten dira letra larriz, eta ondoren jartzen diren bi puntuen osteko hitza letra larriz hasita idazten da, baita lerro berean idazten bada ere.

Behean sinatzen duen pertsonak honako hau ZIURTATZEN DU: Dokumentu hau irakurri eta zalantzak argitzeko aukera eduki duela, eta zer egin behar dioten, zer emaitza espero daitekeen eta zer arrisku sor daitekeen ulertu duela.

MEZU-IRAGARLEAK

~ Zerbait iragartzeko baliatzen diren *oharra, ohartarazpena, adibidea* eta gisako hitzen ondoren bi puntu jartzen direnean, ondoren datorrena letra larriz hasita idazten da.

> Informatikako abisua: Zerbitzua eten egingo da migrazioak dirauen bitartean.
>
> OHARRA: Hurrengo pazientea artatu baino lehen, garbitu beti eskuak.

AIPUAK

~ Esaldi osoen zuzeneko aipuak bi punturen ostean egiten direnean eta komatxo artean idazten direnean, lehen hitza letra larriz hasita idazten da.

> Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 5. artikuluak honako hau dio: "Ordezkari bidez ere jardun dezakete jarduteko gaitasuna duten interesdunek, eta ordezkariarekin gauzatuko dira orduan administrazio-jarduketak, interesdunak espresuki aurkakorik adierazten ez badu".

~ Esaldi oso baten zati baizik ez diren aipamenak letra xehez eman behar dira.

> Koronabirus gaitza dela eta, "lasaitasun" eta "konfiantza" mezuak helarazi ditu gaur Nekane Murgak, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburuak.

~ Bi puntuen ondoren ematen dena aurrekoaren osagarria bada eta lerro berean ematen bada, letra xehez hasi behar da.

> Oreka lantzeko ariketak badu progresiorako aukera: gero eta denbora luzeagoan eustea posizioari.

BI PUNTUEN ONDOREN PARAGRAFO BERRIA HASTEN DENEAN

~ Gutun hasierako diosal eta deikien ondoren, letra larriz hasi behar da.

> Andre agurgarri hori:
> Gutun honen bidez jakinarazi nahi dizugu Zerbixeko Minbizia Goiz Detektatzeko Programaren barruan egindako baheketa-probaren emaitza negatiboa izan dela.

~ Zerrendak letra larriz hasi behar dira esaldi osoak dituztenean. Zerrendako esaldi guztiek amaierako puntua eraman behar dute.

Datorren astearteko bileran egitekoak:
- Aurreko bileraren agiria irakurri eta, ongi irudituz gero, onartu.
- Hurrengo jardunaldiko programaren xehetasunak aztertu.
- Norberak dakartzan proposamenak aurkeztu.

Joan Larrialdi Zerbitzura, baldin eta:
- Glukosa 500 mg/dL-tik gorakoa bada, edo zetonuria larria badaukazu.
- Kontrolatu ezinezko goragaleak badauzkazu, edo ezin baduzu irentsi.
- Zenoturiak 24 ordu baino gehiago badirau.
- 3 intsulina-dosi emanda ere glukosak hobera egin ez badu.

~ Zerrendak letra xehez hasi behar dira esaldi osokoak ez direnean. Kasu honetan ez daramate amaierako punturik.

Hauek dira jardunaldian parte hartuko duten osasungintzako profesionalak:
- fakultatibo medikoak
- biologoak
- erizainak...

LETRA ETZANAK

Letra etzanen erabilerari dagokionez, Euskaltzaindiak berriki onartu duen *Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO)* hartu da oinarri (bereziki 198. araua – EBO III. Letra-estiloak), baita *Ortotipografia* liburuan eta *Berriaren Estilo Liburu*ko "Letra etzana" atalean azaltzen dena ere. Oro har, letra etzana letrak, hitzak, esaldiak edo testu zatiak nabarmentzeko erabiltzen da. Beraz, euskaraz letra etzanez idaztekoak dira:

SORKUNTZA-LANEN IZENBURUAK

~ Sorkuntza-obrak (liburuak, tesiak, egunkariak, aldizkariak, ikerlanak eta komikiak; elebe-rrien atalak, ipuinak, poemak, eskulturak, musika-lanak, irrati- eta teslebista-saioak…) letra etzanez idazten dira testu baten barnean doazenean. Lehen hitza bakarrik hasten da letra larriz.

> *Nola probatzen diren tratamenduak* liburuaren bi ale geratzen zaizkigu.
>
> Olatz Perez de Viñasprek *Osasun-alorreko termino-sorkuntza automatikoa: SNOMED CTren eduki terminologikoaren euskaratzea* tesia aurkeztu zuen 2017an.
>
> *Tiritatxo* komikia umeei osasunari buruzko kontuak azaltzen dizkion proiektu bat da, Irrien Lagunak taldearena.
>
> Gau irekian, *Maldan behera* poema irakurri zuten.

Liburuetan, badago salbuespenik: liburu bildumak letra arruntez idazten dira.

> Sail Beltza eta Enigma bildumak; Zerberri; Bidegileak

~ Erakusketen, biltzarren, hitzaldien, mahai-inguruen eta antzekoen izenburu espezifikoa letra etzanez edo komatxo artean idazten da testu barruan.

> Donostialdeko ESIaren ordezkariak *Donostialdeko ESIan presioagatiko ultzerak prebenitzeko ekintza komunitarioen bilakaera* hitzaldia emango du.

Ekitaldiaren izena ez bada espezifikoa, hau da, deskribatzailea bada, letra arruntez idazten da.

> Osasun Komunitarioari buruzko II. Jardunaldia Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean egingo da, maiatzaren 14an.

~ Izenburu euskaratu gabeak aipatzean jatorrizko izenburuarekin batera itzulpena ematen denean, jatorrizkoa etzanez idazten da, eta itzulia arruntez.

> *Gray's Anatomy: Descriptive and Applied* (Gray-ren anatomia: deskriptiboa eta aplikaziokoa) liburuak eragin handia izan zuen giza anatomiari buruz gaur egun dauden teorietan.

ZIENTZIA ETA MATEMATIKA

~ Animalien, landareen, birusen, bakterioen eta abarren latinezko izen zientifikoa (generoa eta subgeneroa letra larriz, eta espeziea eta subespeziea xehez).

Panthera leo senegalensis; Macropus rufus, sigela, neisseria meningitidis

Hala ere, birusen eta bakterioen izenak lexikalizatuta badaude, ez dira letra etzanez idazten, ez eta gaixotasunen izenak ere.

Influentza; meningokoko

~ Letra etzanez idazten dira, nazioarteko arauak betez, zientziaren alorreko hainbat sinbolo-eta: magnitudeak, ekuazioak....

P presioa; *t* denbora; *T* tenperatura; *c* argiaren abiadura

METAHIZKUNTZA ETA ESANAHI BEREZIAK

~ Metahizkuntza.

Damutu zaio *herritar* hitza sekula ez erabilia.

~ Testu didaktikoetan, kontzeptu bat lehen aldiz aurkezten denean edo hari buruzko azalpena edo definizioa ematen denean, letra etzana erabil daiteke (baina ez da nahitaezkoa).

Bihotz-biriketako geldialdia bat-bateko eta ustekabeko korde-galera da, bihotzak taupadak egiteari uzten dionean eta segundo gutxira arnasketa eteten denean gertatzen dena.

~ Enfasia emateko.

Ez dira gauza bera lanean *egotea* eta lan *egitea.*

~ Ironiaz idatziriko hitzak edo hitzaren betiko esanahia aldaturik idatzitakoa.

Inkisizioaren ordezkoa da hark gidatu duen *ministerioa.*

~ Euskarak beretu gabeko maileguak eta beste hizkuntzetan idatziriko esaldiak.

apartheid; saudade; cum laude

Ezra Poundek *to make it new* aldarrikatu zuen.

Baina badira nazioarteko zenbait esamolde, batez ere tituluetan erabiliak, letra arruntez idatzi beharrekoak. Adibidez:

In memoriam

NOLA ERANTSI KASU-MARKAK LETRA ETZANEI

~ Letra etzanez idazten den hitza absolutiboan badago eta artikulua baldin badu, artikulua ere (*-a*) letra etzanez idazten da.

~ Kasu-marka letra arruntez idatziko da.

*Herria*ko artikulua; *Argia*ko kazetaria

~ Kasu-marka marratxoz lotuko da letra etzana metahizkuntza markatzeko erabili bada edo letra etzanezko hitza r letraz amaitzen bada; gainerako kasuetan, aukeran da marratxoz edo marratxorik gabe lotzea.

The Emperor of All Maladies: A Biography of Cancer-en bigarren kapitulua.

Osakidetza-ri *Euskal osasun zerbitzua* gehituko zaio EHAAko testuetan.

Nolanahi ere, kasu-markak eranstean, ahal dela, hobe da ondotik hitz bat jartzea eta hari eranstea.

The Emperor of All Maladies: A Biography of Cancer liburuaren bigarren kapitulua.

~ Kasu-markak erantsi behar ez izateko, jakina, absolutiboan jartzea da onena (NOR kasuan), baina ezin da beti horrela jokatu.

Salbuespenak: bestelako adiera edo ironia adierazten dutenean:

Solairu hartan erizain hasi nintzenean, gainbegiraleak argi utzi zidan zein ziren gure *negozioak.*

~ Puntuazio-markak letra arruntez idazten dira, non eta ez diren izenburu baten parte.

Arantxa Iturbek *Ai, ama!* liburua idatzi zuen 1990. urtean.

Abu al-Qasim al-Zahrawi mediku, kirurgialari eta kimikari arabiarrak medikuntzari eta kirurgiari buruzko entziklopedia handia idatzi zuen *(Kitab al-Taṣrif).*

ZENBAKIAK

Zenbakien idazkerarako arauak emanak ditu Euskaltzaindiak aspaldi. Nolanahi ere, atal hau osatzeko, Joxe Ramon Zubimendiren *Ortotipografia* liburuan (EIMA) eta *Berriaren Estilo Liburua*n bildutakoa laburtu da, Osakidetzako errealitatera egokituta.

DATAK

~ Forma luzean, urtea zifraz idazten da beti; hila, letraz, eta eguna, zifraz.

2004ko otsailaren 18a

~ Forma laburrean, zortzi digituko formula erabiliko da; hau da, urtea lau digituz, hilabetea bi digituz eta eguna bi digituz, eta denak barraz bereizita, tarterik utzi gabe.

2019/06/05

~ Tokia eta data adieraztean, gogoratu kasu-marka berbera izan behar dutela bai tokiak bai datak.

Bilbon, 2020ko urtarrilaren 13an; Bilbo, 2020ko urtarrilaren 13a

Kontuz EHAAn argitaratzekoak diren testuen datarekin: dekretuetan, NON kasua erabili behar da; gainerako testuetan, NOR kasuan (ikusi *EHAAn argitaratzeko testuen estilo-arauak*).

~ Gogoratu *urtarrilak 13* formula karteletan eta aposizioetan soilik erabili ahal dela, ez data orokorra adierazteko.

Laster izango da jardunaldiaren inaugurazioa, gaur zortzi, abenduak 22.

~ Data bukaerako punturik gabe idatzi behar da, EHAAn argitaratuko diren testuetan izan ezik (ikusi *EHAAn argitaratzeko testuen estilo-arauak*).

~ Urteak milako punturik gabe idazten dira.

*2.005ean > 2005ean

~ Atzetik urte hitza badute, idatzi beharra dago *-garren* adierazten duen puntua.

2005. urtean; K.a. 45. urtea

~ Ikasturteetan, bi urteak osorik idazten dira, eta marratxoz lotuta.

2006-2007ko ikasturtea; 2020-2021eko denboraldia

~ Hamarkadak zifraz idazten dira beti, *-(e)ko* loturarekin.

1980ko hamarkada edo hamarraldia; 80ko urteak

~ Mendeak zenbaki erromatarrez idazten dira, ordinala adierazteko puntuarekin.

XX. mendean

ORDUAK

~ Osorik zifraz idatzi behar dira, edo osorik letraz. Hau da:

*8 eta erdietan dauka odola ateratzeko hitzordua.
08:30ean dauka odola ateratzeko hitzordua.
Zortzi eta erdietan dauka odola ateratzeko hitzordua.

~ Zifraz adierazten direnean, bi puntuekin idatzi behar dira, lau digiturekin, eta *goizeko, gaueko* eta gisakorik gabe.

~ Digituz idaztean, ordu biribilei pluraleko kasu-markak eransten zaizkie (salbuespena: 13:00 edo 01:00), eta gainerakoei singularrekoak.

09:00etan aurkezpena egingo dute, eta 10:30ean hasiko da tailerra.

EHUNEKOAK ETA MILAKOAK

~ Aurrena sinboloa idazten da (%, ‰); tartean zuriune banaezin bat (Alt+0160 / Maius + Kontrol + zuriunea), eta, gero, zifra. Negatiboa bada, minus zeinua sinboloaren aurrean jartzen da (–%, –‰).

~ Mugagabeko kasu-markak jartzen dira.

Herritarren % 24 ados daude, eta % 76 ez.

Jakinsareako ikastaroko azken ebaluazioa gainditzeko, galderen % 80ri erantzun behar zaie ondo.

Baina, aurretik *gainerako* edo *beste* badute (eta soilik kasu horietan), artikulua hartzen dute.

Herritarren % 24 ados daude, baina gainerako % 76ak ez.

~ Erreferentea plurala denean, pluralean egiten da aditzaren komunztadura; singularra bada, singularrean.

Ikasleen % 75ek gainditu dute azterketa.

Aurrekontuaren % 15 ez du gastatu oraindik.

ZIFRAZ IDAZTEKO ZENBAKIAK

~ Testu dibulgatiboetan, hamarretik gorako zenbakiak zifraz idatzi behar dira.

~ Jose Ramon Etxebarriaren *Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak* liburuak azaltzen duen bezala, dibulgaziozkoak ez diren testuetan (esaterako, testu zientifikoetan) edota zenbakiak nabarmentze funtzio argia duen kasuetan, zenbaki guztiak idatzi behar dira zifraz.

~ Helbideak. Ataria, solairua eta posta-kodea, denak zifraz idazten dira. Kalearen izena data bat bada, zifraz ematen da, *lehena* eta ordinalak izan ezik.

Abuztuaren 31 kalea 23, 4. ezk.; Maiatzaren Lehenaren plaza; Bosgarren Etorbidea

~ Posta-kodea, punturik gabe.

Bidali helbide honetara: Arabako Osasun Mentaleko Sarea; Araba kalea 43, 01006 Vitoria-Gasteiz.

~ Magnitudeak, hala nola abiadura, tenperatura, latitudea eta longitudea.

10 km/h; Richter eskalan 7,6 graduko indarra

~ Legeen izenak eta atalak; epaitegien zenbakiak eta salak.

2000ko ekainaren 17ko 4/84 Legea; 1220/1996 Dekretua; 13. araua; 5. artikulua; 7/65 Ebazpena; 3. Instrukzio Epaitegia; Epaitegiko 4. sala

LETRAZ IDAZTEKO ZENBAKIAK

~ Testu dibulgatiboetan, batetik hamarrera bitarteko zenbakiak.

Zazpi aldiz ingresatu dute, eta bitan bakarrik izan da programatutako ingresua.

~ Esapideetakoak.

Niri bost axola; hamaika aldiz esan zidan.

ORDINALAK

~ Zenbaki bat ordinala dela adierazten duen *-garren* atzizkia edo puntua beti idatzi behar da. Enumerazio bat dagoenean, alegia zenbaki ordinal bat baino gehiago daudenean jarraian, zenbaki guztiei ipini behar zaie, eta zenbaki horiekin izen bat badoa, izen hori pluralean idaztea gomendatzen dugu.

*Lanbide-garapenaren deialdian 1, 2 eta 3. puntuak aldatu dira.
Lanbide-garapenaren deialdian 1., 2. eta 3. puntuak aldatu dira.

~ Tauletan eta grafikoetan, beti zifraz.

LABURTZAPENAK

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren arabera, laburtzapena da hitz edo sintagma bat era laburtuan adierazten duen forma. Laburtzapenak hiru motatakoak izan daitezke: laburdurak, siglak eta ikurrak. Atal hau osatzeko, Euskaltzaindiak berriki onartu duen *Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO)* hartu da oinarri (bereziki *196. araua – EBO (I). Laburtzapenak: laburdurak eta siglak*), baita Joxe Ramón Zubimendiren *Ortotipografia* (EIMA) liburuaren, *IVAPeko estilo-liburua*ren eta *Euskara Batuaren Eskuliburua*ren ataletan ere.

LABURDURAK

~ Laburdurak fitxetan, inprimakietan eta helbideetan erabili ohi dira, baina testu barruan forma osoak idaztea komeni da.

~ Laburdurak puntuarekin idazten dira.

Tel.: 946007770

Barra etzana (/) ez da erabili behar laburdurak adierazteko. Beraz, ez idatzi **k/ kale* adierazteko, ezta **z/g* ere *zenbakirik gabe* esateko.

Arrontegi k. 12, 48901 Barakaldo

Jose Atxotegi kalea z.g.

Punturik ez badu, ez da laburdura. Salbuespen bakarra *vs* da, *versus* hitzaren laburdura, punturik gabe idazten baita.

Lerroa vs kolorea

~ Laburdurak, eskuinetiko ebaketaz osatzen denean, kontsonantez bukatu behar du, eta ebakita uzten den silabaren hasierako kontsonante guztiei eutsi behar zaie. Beraz:

pediatria > pediatr. ETA EZ *pediatri., *pediat.

bibliografia > bibliogr. ETA EZ *bibliog.

azterraldia > azterr. ETA EZ *azter.

aurretik atzerako erradiografia > aurr. atz. erradiografia

Badira salbuespen batzuk, esate baterako:

Ipar. (Iparraldea, eta ez *Iparr.); or. (orrialdea, eta ez *orr.)

abe. (abendua); abu. (abuztua); api. (apirila)

~ Laburdura bi hitzez osatuta dagoenean, hitzon laburdurak hizki bakarra badauka, ez da zuriunerik utziko bi hizkien arteko laburduran; laburdura hizki batez baino gehiagoz osatuta badago, ordea, zuriunea utzi behar da laburtutako hitzen artean.

e.e.	ez du erantzun	g.g.b.	gutxi gorabehera
ad. os.	adeitasun osoz	itzle. oh.	itzultzailearen oharra

~ Laburdura marratxoz idazten den (edo idatz daitekeen) hitz-elkarte bati dagokionean, Euskaltzaindiak ontzat ematen ditu bi aukerak: laburduran marratxoari eustea zein ezabatzea. Osakidetzako testuetan, irizpide bateratua ezartzearren, ez da marratxoa ipiniko laburduretan.

a.k. > adimen-koefizientea

bul. zk. > bulego-zenbakia

NAN zk. > NAN-zenbakia

g. hezk. > gorputz-hezkuntza

~ Laburdurek ez dute, berez, pluraleko formarik. Gehienak absolutiboan eta singularean erabiltzekoak dira. Singularrean eta pluralean ager daitezkeen laburduren kasuan, plurala ez da adieraziko inolako markarekin. Hau da, *mendea* zein *mendeak* adierazteko *m.* laburdura erabiliko da, eta *orrialdea* zein *orrialdeak* adierazteko, berriz, *or.* (eta ez **orr*).

~ Laburdurari, printzipioz, ez zaio kasu-markarik erantsi behar, formularioetan eta espazio txikiko testuinguruetan izan ezik. Testuinguru mugatu horietan laburduraren bati kasu-markaren bat erantsi behar bazaio, marratxorik gabe lotu behar zaio, dagokion mugatzailearekin, eta ez da kontuan hartu behar laburduraren azken letra bokala edo kontsonantea den, baizik eta laburtu gabeko hitza- edo hitz-multzoa bokalez edo kontsonantez bukatua den.

*Ikus 78. or.-ko taula > Ikus 78. orrialdeko taula EDO Ikus 78. or.ko taula

*7. unit.-an > 7. unitatean EDO 7. unit.an

~ Laburdura letra larriz hasiko da puntuazio-arauek forma osoa letra larriz hasita idaztea agintzen badute, eta, era berean, forma osoen letra larri eta xeheei eutsiko zaie.

Heg.	Hegoaldea	Ipar.	Iparraldea
Kd. Zib.	Kode Zibila	iz. of.	izen ofiziala

Badira zenbait salbuespen, bestelako idazkera batean zabaldu eta ezarri direnak:

O.E.	ontzat emana	E.B.	eskuordetzaren bidez
P.k.	posta-kutxa		

~ Laburtutako adierazpena letra etzanez idaztekoa bada, letra etzanez idatziko da laburdura ere; adibidez, erdarazko adierazpen baten laburdura bada, edo metahizkuntza markatu behar bada.

et al. > et alii *ibid. > ibidem*

Testu honetan, *arg.* laburdura *argitaletxe* hitzari dagokio.

Nolanahi ere, letra arruntez idazten dira etxekotutako mailegu bihurtu diren laburdurak eta erabilera arruntekoak: vs; a.m.; p.m.; P.D.

~ Laburduraren puntuari eusten zaio ondoren puntuazio-marka hauek datozenean: etenpuntuak […], koma [,], puntu eta koma [;] eta bi puntu [:]. Hau da, etenpuntuak badaude, lau puntu idazten dira: laburdurarena eta etena adierazten duten hiru puntuak.

Izpta.: Miren Lorea Bilbao Artetxe

Hauek dira laburdurarik erabilienetako batzuk: etab., or., adib., iz.…

Baina, gogoan izan: esaldiaren amaieran *etab.* edo *etc.* laburdurak jartzen badira, ez da etenpunturik jartzen.

~ Testuetan, laburdurak ez du izan behar testu-lerroko hitz bakarra (hau da, ezin dira izan paragrafo bateko azken lerroko hitz bakarra). Hori saihesteko, zuriune banaezina erabil daiteke.

~ Ez dira bi testu-lerrotan banatu behar ez laburdura konposatuak, ez laburdura eta harekin batera doan terminoa. Hori saihesteko, zuriune banaezina erabil daiteke (hemen º ikurraz adierazita).

Erakundearen iz.ºof.: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua

Ikus 5.ºor.

~ Testu berean ezin da laburdura homograforik erabili, hau da, testu bakoitzean laburdura bakoitzak esanahai bakarra izan behar du.

~ Hona hemen Osakidetzan maizenik erabiltzen diren laburdurak :

esk.	eskuina	zum.	zumardia
ezk.	ezkerra	tel.	telefonoa
z.g.	zenbakirik gabe	or.	orrialdea
zk.	zenbakia	P.D.	post data
k.	kalea	zuz.	zuzendaria
etorb.	etorbidea	sin.	sinatua
pas.	pasealekua	erref.	erreferentzia
pl.	plaza	art.	artikulua
zehb.	zeharbidea	dk.	doktorea
esp.	espedientea	etab.	eta abar
sol.	solairua	al.	astelehena
tekn.	teknikoa/teknikaria	ar.	asteartea
admin.	administrazio	az.	asteazkena
med.	medikua	og.	osteguna
e.d.	ez daki	or.	ostirala
e.e.	ez du erantzun	lr.	larunbata
adib.	adibidez	ig.	igandea

SIGLAK ETA AKRONIMOAK

~ Siglak hitz multzoen lehen letrez osatutako laburtzapenak dira; akronimoak sigla mota bat dira, hitz multzoen ordezko laburtu gisa erabiltzen direnak, baina hitz arruntak bezala irakurtzen dira, ez letraz letra, eta bi hitz edo gehiagoren lehen letrez edo silabez osatuak dira.

Eudel (Euskal Udalen Elkartea); modem (moduladore-demoduladore)

~ Siglak gainerako hitzak bezala elkartu daitezke hitz-elkarketa bidez, eta, Osakidetzako testuetan, marratxoa aukerakoa denean, ipini egingo da.

DNA-katea; COVID-agerraldiak; DNA-lagina; transferentzia-RNA

~ Siglak letra larriz eta arruntez (ez etzanez) idazten dira, osorik, punturik eta zuriunerik gabe; baina, akronimoetan, lehen letra bakarrik idazten da larriz.

EUE; Renfe

~ Hala ere, badira salbuespenak. Hitz arrunt bihurturiko sigla eta akronimoak letra xehez idazten dira eta kasu-marka erantsita idazten zaie, adibidez, eta, batzuetan, letra xeheren bat izaten da siglaren gorputzaren hasieran, erdian edo bukaeran.

hies gaitza; modemak; covid-19aren eraginez; rRNA

~ Siglak ordezkatzen duen izena osorik idatzi behar da testu barreneko lehen agerraldian, oso ezaguna denean izan ezik. Lehen agerralditik aurrera, aski da sigla erabiltzea.

Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) garapenean emandako aurrerapausoak eta bidean topatutako zailtasunak landuko dira saioetan.

~ Sigla eta akronimo batzuk izen berezien ordezkoak dira; bada, izen berezien kasu-markak eransten zaizkie (erreferentearen hitzak letra larriz idazten dira).

EHUko Fisioterapiako Graduko gutxieneko nota 11,420koa izan da 2020-2021 ikasturtean > Euskal Herriko Unibertsitateko Fisioterapiako Graduko gutxieneko nota 11,420koa izan da 2020-2021 ikasturtean

OMEren ikerketen arabera, amagandiko edoskitzea orokortzeak haurren heriotza-tasa % 20 murrizten lagunduko luke > Osasunaren Mundu Erakundearen ikerketen arabera, amagandiko edoskitzea orokortzeak haurren heriotza-tasa % 20 murrizten lagunduko luke

~ Beste batzuk izen arrunten ordezkoak dira; bada, izen arrunten kasu-markak eransten zaizkie eta artikulua hartzen dute (hau da, erreferentearen hitzak letra xehez idazten dira).

GKEak laguntzeko prest daude > Gobernuz kanpoko erakundeak laguntzeko prest daude

Pazientea ZIUan ingresatu dute > Pazientea zainketa intentsiboen unitatean ingresatu dute

~ Kasu-markaren bat eransteko, zenbait gauza hartu behar dira kontuan:

1. Siglak izendapen berezi ala arrunt bat ordezkatzen duen. Horren arabera, izen berezi gisa (mugatzailerik gabe) edo izen arrunt gisa hartuko dute kasu-marka.

2. Sigla nola irakurtzen den (letraka, silabaka, zenbakiren bat duen…), eta, beraz, kasu-marka erantsiko zaion oinarria kontsonantez ala bokalez amaitzen den.

Beraz, hainbat aukera daude:

a) Bokalez amaituta irakurtzen den izen berezia: bokalez amaitzen diren izen bereziei bezala erantsiko zaie kasu-marka.

EHU > EHU, EHUk, EHUri, EHUn, EHUra…

OME > OMEk, OMEri, OMEn, OMEtik…

NBE (Nazio Batuen Erakundea) > NBE, NBEk, NBEren, NBEtik…

b) Kontsonantez amaituta irakurtzen den izen berezia: kontsonantez amaitzen diren izen bereziei bezala erantsiko zaie kasu-marka.

Interpol > Interpol, Interpolek, Interpoli, Interpolen…

AOMS (Arabako Osasun Mentaleko Sarea) > AOMS, AOMSek, AOMSi, AMOSera…

c) Bokalez amaituta irakurtzen den izen arrunta: bokalez amaitzen diren izen arruntei bezala erantsiko zaie kasu-marka (beraz, desegokia da absolutiboan determinatzailerik gabe idaztea).

COVID-19 > COVID-19a, COVID-19aren, COVID-19rik, COVID-19agatik…

PCR > PCRa, PCRaren, PCRak…

API (Arreta Plan Indibidualizatua) > APIa, APIaren, APIko, APIrik, APIetan…

NBE (norbera babesteko ekipamendua) > NBEa, NBEak, NBEaren, NBEan…

EKG (elektrokardiograma) > EKGa, EKGaren, EKGrik, EKGan…

Bestalde, *a* letraz amaitutako sigla-izen arruntak kasu berezia dira, horrela amaitzen diren hitz arrunten pluralei kasu-marka eranstean *a* hori *e* bihurtzen baita (*alab**ak*** > *alab**ei***), baina sigletan ezin da hori egin, eta, beraz, *ae* egiten da:

Azido erribonukleikoen funtzioak > RNAen funtzioak (eta ez *RNen funtzioak)

KDA (kanpoko desfribiladore automatikoa) > KDA, KDAen…

Salbuespen hori (*a* + *e* ⟹ *ae* egitea) *a* letraz amaitzen diren izendapen arrunten siglei baino ez dagokie. Horrenbestez, baldin eta letraka irakurtzen den sigla-izen arrunt baten azken letra *j*, *k*, *x* edo *z* bada, ez dago bokalen arteko juntura-auzirik, sigla ez delako *a* letraz amaitzen, haren irakurketa baizik. Beraz, letraka irakurtzen diren eta amaieran beste edozein kontsonante duten siglek bezala hartzen dute hala artikulua nola kasu-marka.

Identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia > IFZaren fotokopia

Identifikazio fiskaleko zenbakien aldaketak > IFZen aldaketak

Eguneroko bizitzako jardueraren zailtasunak > EBJaren zailtasunak

Eguneroko bizitzako jardueren artean > EBJen artean

Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoaren tratamendua > BGBKaren tratamendua

d) Kontsonantez amaituta irakurtzen den izen arrunta: kontsonantez amaitzen diren izen arruntei bezala erantsiko zaie kasu-marka.

NAN > NANa, NANarekin, NANik…

BEZ > BEZa, BEZaren, BEZik…

~ Izendapen berezi bat laburtzen duen siglak izendapen osoa ordezkatzen du, artikulua barne, singularra zein plurala izan.

Euskal Herriko Unibertsitatea > EHU (eta ez *EHUa)

Langile Abertzaleen Batzordeak > LAB (eta ez *LABak)

Ameriketako Estatu Batuak > AEB (eta ez *AEBak)

Baina Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuei dagokienez, *ESI* akronimoak hitz arrunt gisa hartzen ditu kasu-markak, bai bere kabuz doanean, bai ESI jakin baten izen bereziaren parte denean.

*Arabako ESIk antolatu du ekitaldia
Arabako ESIak antolatu du ekitaldia

~ Programa, ekimen, proiektu eta antzekoen siglek ez dute artikulua ere ordezkatzen.

Kolon-ondesteko Minbiziaren Baheketa Programa > KOMBPa (eta ez *KOMBP); KOMBParen (eta ez *KOMBPren)

Haurren Osasunerako Programa > HOPa (eta ez *HOP); HOParen (eta ez *HOPren)

~ Lege, tratatu, kode eta antzeko izen berezien siglak izendapen osoa ordezkatzen du, artikulua barne.

> Sektore Publikoko Kontratuen Legea > SPKL (eta ez *SPKLa); SPKLren (eta ez *SPKLaren)

ERNE! Arau mota adierazten duen sigla (errege-dekretua > ED, foru-araua > FA…) izen arrunt moduan erabili ohi da, baita arau jakinen bat modu laburtuan adierazteko erabiltzen denean ere, eta, beraz, izendapen arruntek bezala hartzen ditu kasu-markak esaldian, erreferentea osorik idaztean maiuskulaz idazten bada ere.

> Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bategina 8/2015 LEDaren bidez onartu zen

Salbuespena da esalditik kanpo erabiltzen direnean, hala nola taula bateko zerrendan edo parentesi artean, zenbakiek eta siglak osatutako multzoak kode-balioa baitu, eta artikulurik gabe idatzi ohi da.

> Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra (8/2015 LED) > Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra (8/2015 *LEDa)

~ Kasu-marka eranstean, ez erabili marratxorik. Hala ere, badira bi salbuespen:

- Testua letra larriz idaztekoa denean

> LABORATEGIKO LANGILEEN NBE-AK

- Siglaren azken letra xehea denean.

> PCRn-aren edo PCRq-aren emaitzak

ERNE! Euskaltzaindiaren 196. arauak ezartzen duenaren arabera, ez da marratxorik ipini behar kasu-marka siglaren azken letra berarekin hasten bada ere.

> AEKko ikasle eta irakasleen jaia

> Ez dituzte kontuan hartu GKEen eskakizunak

~ Siglak, oro har, ez dira bi lerrotan banatuta utzi behar.

~ Oro har, siglak ez dira itzultzen, batez ere erakundeenak direnean, baina ordezkatzen dituzten izenak itzuli egin daitezke.

> PCF, Frantziako Alderdi Komunista; PSC, Kataluniako Sozialisten Alderdia

~ Medikuntzaren arloan, euskaraz ez daude oso estandarizatuta siglak, baina estandarizatuta dauden siglak euskaraz eman behar dira (BGBK —biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa—, BBB —bihotz-biriketako bizkorketa—...); estandarizatuta ez daudenak, berriz, testuetan, lehen agerpenean itzuli egingo dira forma osoa euskaraz emanez eta ondoan siglak jarriz, eta, gero, siglak bakarrik erabiliko dira.

Zerrendetan, tresna edo plataforma informatikoen kasuan eta antzekoetan (hau da, siglaren esanahiaren erreferentzia nahikorik ez dagoenenean), erdaraz uzten dira, non eta ez den posible edo egokia forma osoa ematea euskaraz, siglak erabili ordez.

Erabiliaren erabiliaz joango dira finkatzen, baina, bien bitartean, gida honetako "Sigla sanitarioak" atalean aipatzen den bezala, bi erreferentzia material interesgarri daude:

- *Donostia Unibertsitate Ospitaleko ALTA TXOSTENAK* dokumentuko 79-80. orrietako zerrendak

- Osakidetzan gehien erabiltzen diren sigla sanitarioekin Euskara Zerbitzu Korporatiboa glosario bat osatzen ari da. Zerrenda dinamikoa da eta Osakidetzaren intranetean egongo da beti bertsiorik eguneratuena. (Profesionalak > Euskara > Itzulpen eta interpretazio zerbitzua > Estilo Liburuaren eranskinak)

SINBOLOAK

Sinboloak kontzeptu batzuen nazioarteko irudikapen grafiko normalizatuak dira, letraz edo hizkuntza idatzi arruntetik kanpoko zeinuz osatuak, gehienbat. Gehienetan, neurriak edo magnitudeak adierazten dituzte, eta ez dira laburtzapenekin nahasi behar. Atal hau osatzeko, Euskaltzaindiak berriki onartu duen *Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO)* hartu da oinarri (bereziki 197. araua – EBO (II). Sinboloak).

~ Punturik gabe idazten dira.

4 h 40 min 15 s

~ Sinboloen grafia normalizatuta dago, eta aldaezina da. Hau da, osorik erabili behar dira, luzatu edo laburtu gabe, eta sinbolo bakoitzaren letra xeheak, larriak eta etzanak (edo ez) errespetatuz. Horregatik, ezin dira itzuli.

7 ordu > 7 h (ez *7 o)

3 zentimetro > 3 cm (ez *3 zm edo *3 Cm)

7 gramo > 7 g (ez *7 gr)

~ Sarritan, zifraz idatzitako zenbaki batekin batera doaz. Bada, zenbakia aurretik idazten da beti, jarraian zuriune bat eta azkenik sinboloa (zenbakia 1 denean ere aurretik idazten da beti, baina atzetik ahoskatzen).

1 € balio du.

9 m garai zen.

Zuriunea ez da uzten kasu hauetan: gradua (sinboloa: °), minutua (sinboloa: ') eta segundoa (sinboloa: "). Hiru sinbolo horiek goi-indize moduan idazten dira, zenbakiaren ondoren, hari atxikita, tartean zuriunerik utzi gabe.

86° 47' 35" (86 gradu, 47 minutu eta 35 segundo)

~ Zenbakia eta sinboloa ezin dira bereizi bi lerrotan. Horregatik, zuriune banaezinarekin idaztea komeni da (Word-en Alt+0160 / Maius+Kontrol+zuriunea sakatuta ateratzen da eta adibidean ° ikurrarekin irudikatu da).

Pazienteak 10°mg-ko adamimulab-dosi bat jarriko du bi astean behin.

Kontuz tenperatura adierazteko ikurrarekin: ikurra °C bera da, eta espazio banaezina zenbakiaren eta horren artean jarri behar da, ez ° eta C-ren artean.

Ezin da hotz-katea eten: medikamentua 2-8 °C-tan egon behar da beti.

~ Testuan txertatu behar direnean, marratxoa jartzen da sinboloaren eta artikuluaren edo kasu-markaren artean, eta sinboloak ordezkatzen duen izena (unitatea, elementu kimikoa, puntu kardinala...) hartu behar da kontuan bokalez edo kontsonantez amaitzen den ikusteko, ez sinboloa bera.

Pazientearen O_2-aren fluxua

Ospitalea pazientearen etxetik 3 km-ra dago

Sinboloak eta hari lotutako kasu-markak lerro berean egon behar dute, sinboloaren aurreko zenbakiarekin batera, hots, ez da egokia testu-lerro desberdinetan banantzea. Hori galarazteko, marratxo banaezina erabil daiteke

~ Adierazpen berean ez dira nahasian erabili behar unitate-sinboloak eta zenbakien izenak.

*Hiru A; *hamar kg; *hamabi V; *bost €
Hiru ampere; hamar kilogramo; hamabi volt; bost euro
3 A; 10 kg; 12 V; 5 €
3 ampere; 10 kilogramo; 12 volt; 5 euro

*Anbulantzia 50 km orduko abiaduran doa
Anbulantzia 50 km/h-ko abiaduran doa
Anbulantzia orduko 50 kilometroko abiaduran doa

BIBLIOGRAFIA NOLA ADIERAZI

Testu baten bibliografia adierazteko orduan, haren jatorriari eta espezialitateari erreparatu beharko zaie. Testu orokorretan, egokia izan liteke Jose Ramón Zubimendiren *Ortotipografia* (EIMA) liburuan jasotakoak erabiltzea, baina testu espezializatuetan (ikerketan, prestakuntza espezifikoan…), nazioarteko estandarrei jarraikiz eman ohi da bibliografia. Bi dira estilo estandar horiek, arloaren arabera erabiltzekoak. Batetik, Estatu Batuetako Psikologia Elkarteak (American Psychological Association, APA) sortutako APA estiloa dago, zeina Gizarte Zientzien eta Giza Zientzien alorrean erabiltzen baita bereziki; adibidez, Psikologian. Bestetik, Vancouver estiloa dago. Estandar hori medikuntzan eta osasun-zientzietan erabili ohi da, eta zenbakitutako erreferentzietan oinarritzen da.

Ez dago araurik finkatuta kasu bakoitzean erabili beharreko estiloari dagokionez, baina, esan bezala, joera hori da: testu orokorretan, bibliografia-estilo neutroa —*Ortotipografia* liburukoa—; giza zientzietako eta gizarte-zientzietako testuetan, APA estiloa, eta osasun-zientzietan, Vancouver. Testuinguruaren arabera aukeratu beharko da hiru estilo horietako zein erabili.

APA estiloa euskaraz aplikatzeari buruzko informazio gehiago lortzeko, EHUk landutako gida elebiduna dago *eskuragarri*.

Vancouver estiloa euskaraz aplikatzeari buruzko informazio gehiago lortzeko, Donostialdeko ESIko liburuzainek sortutako gida labur bat dago *erabilgarri.*

Bestalde, testu orokorretarako, Osakidetzako jardunerako oinarrizko gomendio batzuk atera ditugu aipatutako *Ortotipografia* liburutik, eta beste batzuk gehitu dizkiogu Interneteko edukiari dagokionez. Ez dira lotesleak, arau-maila dutela esaterik ez baitago, baina bai bide-argitzaile eta lagungarri.

~ Bibliografia ematean, honela jokatuko da: idazlearen deitura(k) (letra larri txikiz) [koma] eta izena [bi puntu] idazlanaren izenburua (letra etzanez) [koma] argitaletxearen izena [koma] herria [koma] argitalpen-urtea [puntu].

AZKUE, J.J.: *Odontoanatomi Eskuliburua*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2000.

~ Egileak bat baino gehiago direnean, guztiak aipatuko dira, puntu eta komaz [;] bereizita, aurrena abizena eta ostean izena emanez, eta, azkenaren izenaren atzean ipiniko dira izenburuaren aurreko bi puntuak [:].

Egilea bakarra ez denean:

BASARAS, M.; UMARAN, A.: *Mikrobiologia medikoa,* Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2004.

Egileak hiruzpalau baino gehiago direnean:

ZENBAITEN ARTEAN: *Itzulpen antologia,* EIZIE, Donostia, 1998.

~ Egilea ezezaguna denean:

IZENGABEA: *De Geographia* [Anonymus Ravenatis], Paris, 1688.

~ Bibliografian argitalpen baten zati bat aipatu nahi denean, komatxo artean idatziko da artikuluaren izena, eta *in* jarriko da (letra etzanez) liburu osoaren izenaren aurrean.

LOIZATE, A.; BENGOETXEA, I.: "Uzkiko gaixotasun onberak", *in* Kirurgia Orokorreko Eskuliburua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2020.

~ Aldizkarien kasuan, *in* idazteaz gainera, alearen zenbakia eta orrialde-bitartea ere zehaztu egin behar dira, baina ez herriaren izena. Aipatutako *in* horren ondorengoa honela osatzen da: aldizkariaren izena (letra arruntez) [koma], alearen zenbakia, data (parentesi artean) [koma] eta orrialde-bitartea (baina nazioartean egiten den bezala: alegia, ordinaleko *-garren* punturik gabe).

Artikulua-edo denean:

MITXELENA, Koldo: "Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia", *in* Muga, 19 (1982), 52-64.

Elkarrizketa-edo denean, ez dago izenburua nahitaez aipatu beharrik:

OTEIZA, Jorge *in* Pamiela, 15 (1993), 17-23.

~ Interneten dauden liburuak bi motatakoak izan daitezke: paperean dagoen liburu bat formatu elektronikoan edo berez formatu elektronikoan sortutako liburua edo gai monografikoa. Kasu hauetan, paperean argitaratutako liburuen argibideei jarraitu eta honako hauek gehitu behar dira:

1. *Internet* hitza kortxete artean: adierazteko formatu horretan dagoela.

2. *Kontsulta* hitza eta data kortxete artean: jakiteko noiz kontsultatu den.

3. *Eskuragarri* hitza eta bi puntu ondoren URLa: artikulu horren Interneteko helbidea.

ZENBAITEN ARTEAN: *Programa general de terapia ocupacional en los hospitales de día de la RSMB* [Internet], Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Bilbo, 2013 [Kontsulta: 2017-10-15]. Eskuragarri: *http://lmentala.net/admin/archivosboletin/Terapia_Ocupacional_en_la_RSMB_080213.pdf.*

~ Webgune baten erreferentzia bibliografikoa egiteko, Interneteko liburuen antzeko formatua erabili behar da: webgunearen arduraduna (egilea, erakundea), izenburua, argitalpen-lekua,argitaletxea eta argitalpen-data.

> AMA: *helping doctors help patients* [Internet], American Medical Association, Chicago, c1995-2007 [Kontsulta: 2007-02-22]. Eskuragarri: *http://www.ama-assn.org/.*

Webguneen eta web-orrien kasuan, webgunearen izena eta URLa adierazi behar dira, eredu honen arabera: Egilea. (data). Web-orriaren izena. Argitalpen-tokia: Web-orriaren izena. Dokumentuaren helbidea (URLa).

> BERRIA (2018): Estilo-liburua. Donostia: Estilo-liburua. *https://www.berria.eus/estilo-liburua/*

HITZ-ELKARKETA

Bi osagai beregain elkartuz kontzeptu bakarra adierazteko sortzen den unitate lexiko gisa definitzen da hitz-elkarketa[1].

Euskaraz hitz-elkarketa nahiko baliabide jator eta ohikoa da kontzeptuak izendatzeko. Hortaz, Osakidetzako testuetan, hitz-elkarketa egokia eta naturala den kasu guztietan, egitura hori lehenetsiko da beste edozeinen aurretik:

> osasun-zerbitzu; errehabilitazio-zentro; gernu-analisi; entzumen-urritasun; Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea; zelula ama; zuntz-haustura; erretina-askatze; zirkulazio-aparatu

Izen-elkarketen kasu gehienetan, osagaiak bereiz idazten dira eta aukerakoa da bien erdian marratxoa idaztea (*alta txosten* nahiz *alta-txosten*). Osakidetzan, ordea, irizpide bateratu eta koherentea mantentzearren, marratxoaren erabilera bultzatuko da orokorrean, Euskaltzaindiak araututako salbuespenekin:

LOTURIK IDATZIKO DIRA

~ *Jarleku* (aditzoina + izena) moduko elkarteak

> egongela; salneurri; jokamolde

~ *Aldagaitz* (aditzoina + izenondoa) bezalako izaera elkarteak

> irakurgaitz; sinestezin; ulerterraz

~ *Odolustu* (izena + aditza) moduko izen-elkarte arruntak

> indargabetu; indargaldu; azpimarratu

~ Bigarren osagaia *-gin, -gile, -zale, -dun, -gabe, -gintza* edota *-zain* duten elkarteak

> sendagile; langile; atezain; dirudun; lotsagabe

~ Bigarren osagaia *-aldi, -buru, -(g)une, -kide, -(k)ume, -orde* edota *-gai* duten izen elkarteak

> solasaldi; asteburu; lankide; kalekume; zuzendariorde; aztergai

[1] Definizio honetan unitate lexikoa osatzen duen hitz-elkarketa eta aposizioa bereizi egiten dira. Lehenengoan bi osagaiak beharrezkoak dira kontzeptua adierazteko. Aposizioan (adibidez, tibia hezurra, difteria gaixotasuna, Santa Marina Ospitalea…), berriz, bigarren elementuak lehenengoa azaltzeko edo zehazteko funtzioa baino ez du; lehen osagaia nahikoa da kontzeptua adierazteko. Grafiari dagokionez ere desberdindu daitezke: unitate lexikoa osatzen duen hitz-elkarketan marratxoa idatz daiteke, aposizioan ez.

~ Lehen osagaia *aurre-, azpi- eta gain-* duten izen elkarteak

aurreikuspen; gainbegirada; azpimultzo

~ *Lauburu* (zenbatzailea + izena) moduko elkarteak

hiruhortz; ehunzango; begibakar

BEREIZ ETA MARRATXORIK GABE IDATZIKO DIRA

~ Aposizioak.

Bidasoa ibaia

~ *Egin, eman, hartu* eta *eragin* aditzekin osatzen diren aditz elkarteak.

Lo egin

~ *Etxez etxe* moduko bikoizketak.

~ *Egin berri* modukoak (kontuz: *hasiberri* eta *ezkonberri* salbuespenak dira).

~ *Mahai gainean*, *aste barruan* gisako postposizioak.

~ Bigarren osagaia *bila, eske* edo *falta* duten elkarteak, zerbait zehatza edo ezaguna adierazten ez badute.

diru bila; diru eske; diru falta (≠ diruaren bila; diruaren eske; diruaren falta)

~ Lehen osagaia *erdal, euskal, giza* eta *itsas* duten elkarteak

erdal gramatika; euskal idazleak; giza zientziak; itsas garraio

Baina ihartuak: gizalege; itsasontzi

~ Atribuziozko hitz-elkarketak.

zelula ama; osaba bertsolari; zisterna kamioi

~ Terminoaren bigarren osagaia letra larriz idatzi behar denean.

Osasun Saila; Administrazio Kontseilua; Zuzendaritza Nagusia

~ *Lore sorta* ereduko multzo-elkarteak; alegia, bigarren osagaia honelako izen bat dutenak: aldra, andana, bikote, ilara, kantitate, kopuru, mordo, multzo, oste, pare, pila, sail, sorta, talde, tropel...

~ *Ogi puska* ereduko zati-elkarteak; alegia, bigarren osagaia honelakoren bat dutenak: ale, apur, atal, atomo, ioi, izpi, molekula, pittin, pixka, poxi, puska, pusketa, tanta, zati...

~ *Eskola mota* ereduko molde-elkarteak; alegia, bigarren osagaia honelakoren bat dutenak: era, fase, klase, modu, molde, mota... Adibidez, zibilizazio era, ilargi fase, arbola klase, banaketa modu, politika molde, arrain mota...

~ Salbuespenak:

a) Esanahi bat baino gehiago izan dezaketen *sorta, puska* edo *mota* ereduetako hainbat hitz-elkarte ez dira *eguzki-lore*ren moduko hitz-elkarketa arruntetatik bereizten errazak. Adibidez, *neska taldea* formulak neska asko adierazten du; baina *zuzendaritza-taldeak* ez du *zuzendaritza asko* adierazten, *zuzendaritzaz arduratzen den taldea* baizik, eta *futbol-taldea* formulak ere ez du *futbol asko* adierazten, *futbolean jokatzen duen taldea* baizik. Beraz, *eguzki-lore*ren moduko hitz-elkarte arruntak dira *zuzendaritza-talde* eta *futbol-talde* gisakoak, eta marratxoz lotuta idaztekoak.

b) *Motak* ez duenean esanahi "arina" hizkera sanitarioan. Hau da, motak mugatuak eta ezagunak direnean, eta horrek termino-unitate sendo bat osatzen duenean.

odol-mota; odol-talde

BEREIZ ETA MARRAREKIN IDATZIKO DIRA

~ Izena + izena motako hitz-elkarketak, orokorrean.

~ *Gorri-gorria* moduko bikoizketa indargarriak.

~ *Apurka-apurka* bezalako bikoizketak.

~ *Seme-alabak, zuri-gorri* modukoak.

~ *Barra-barra, plisti-plasta* bezalakoak.

~ *Ezkio-Itsaso* moduko leku-izen elkartuak.

Adi: bi hizkuntzatan ematen direnean, ordea, ez: Lizarra/Estella.

~ Lehen elementuan *a* itsatsia duten hitzak. Nahiz eta Euskaltzaindiak zenbait aukera onartzen dituen, Osakidetzan marratxoa beti erabiltzea hobesten denez, lehen elementuan *a* itsatsia duten hitzek *a* hori mantenduko dute beti hitz-elkarketa egitean. Salbuespena da *arnasa*, *-a* galduko baitu.

biologia-azterketa; kultura-etxea; bidaia-agentzia; arnas aparatua; arnas sindrome akutu larria

~ Maila berean dauden bi elementuen arteko erlazioa

kalitate-prezioa; kontratu-programa; zuzendari-gerentea

~ Salbuespena: konposatu kimikoen nomenklaturan ez da marratxorik erabiltzen.

NaCl konposatu; *sodio-kloruroa > sodio kloruroa

HIRU ELEMENTU ELKARTZEN DIRENEAN

~ Izen batek gehi izenondo batek termino bat osa dezaketen bezala (*mediku espezialista, kirurgia estetiko, historia kliniko...*) adjektibatutako hitz-elkarketa batek ere terminoa osa dezake, ezein osagairi kasu-markarik erantsi beharrik gabe:

ebakuntza-gela anbulatorio; odol-emate altruista; plazenta-askatze goiztiar; urdail-distentsio akutu; entzumen-galera neurosentsorial

~ Hitz-elkarketa osoa barik, hitz-elkarketaren ezkerreko osagaia soilik adjektibatzen den kasuetan, osagai horri erantsi beharko zaio kasu-marka:

osasun mental + erizain > osasun mentaleko erizain

egonaldi labur + ospitale > egonaldi laburreko ospitale

zainketa aringarriak + unitate > zainketa aringarrien unitate

~ Hiru izenek (edo gehiagok) osatutako terminoetan ere ezkerreko edota erdiko osagaiei erantsi behar zaizkie kasu-markak, terminoaren barruko sintaxi egokia zainduz:

barne + medikuntza + mediku > barne-medikuntzako mediku

erizaintza + alta + txosten > erizaintzako alta-txosten

proba + kontrol + orri > proben kontrol-orri

osasun + mundu + erakunde > Osasunaren Mundu Erakundea

PUBLIZITATE-KARTELAK, ARAUAREN SALBUESPEN

~ Salbuespen modura, publizitate-karteletako leloetan, marratxoak ez badu ondo jotzen diseinuarekin (esaterako, marratxoa lerro-jauzi batekin bat datorrenean), ez da erabiliko marratxoa.

HITZ ELKARTUEN ERABILERARAKO BESTE IRIZPIDE BATZUK

~ Lerro-bukaerako marratxoa hitz-elkarketarena izanez gero, ez dago zertan errepikaturik hurrengo lerroaren hasieran.

*Baimen informatuak betetzeko idazkera-
-eredua
Baimen informatuak betetzeko idazkera-
eredua

~ Hitz-elkarketa marratxo bidez egiten denean, marratxoa errepikatu egin behar da hura hitz elkartuaren osagaietako bat bakuna ez denean.

Lehen osagaia anizkuna denean, honela:

gernu- eta digestio-aparatuak

Bigarren osagaia anizkuna denean, honela:

farmako-saltzaile eta -banatzaileak

Ø / -(R)EN / -(E)KO AUZIA

-(E)KO

~ *-(e)ko* kasu-markaren bidez lekua adierazten da: nongotasuna, kokapena, eremua, gune fisikoa, atal fisikoa.... Beraz, osasun-arloko terminologiari begira, honako galdera hauei erantzuteko hobetsiko da *-(e)*ko atzizkia: Nongoa da? Non dago? Zein gune edo ataletan dago? Zein arlotan dihardu? Non gertatzen da? Non sortzen edo agertzen da? Non garatzen da?

Gernikako Osasun Zentroa; Debagoieneko ESIa; Zumarragako Ospitalea; ospitaleko kontsulta; ebakuntza-gelako erizain; urologiako mediku espezialista; igerilekuetako konjuntibitis; belauneko giltzadura

~ *-(e)ko* atzizkia euskal gramatikaren arauen arabera erantsiko dira kasu-markak:

*Azpeitiako Osasun Zentroa; *Salburuako Osasun Zentroa; *Zabalganako Osasun Zentroa
Azpeitiko Osasun Zentroa; Salburuko Osasun Zentroa; Zabalganeko Osasun Zentroa

*Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua
Bidasoko Erakunde Sanitario Integratua

*Debabarrenako ESIa; *Debagoienako ESIa
Debabarreneko ESIa; Debagoieneko ESIa

~ Lekuari edo kokapenari erreferentzia egiten dioten osasun-arloko erakunde, zentro eta eraikinen izendapenetan *-(e)ko* kasu-marka erabiliko da, euskaraz era naturalean egiten den bezala, eta ez aposizioa:

*Donostialdea Erakunde Sanitario Integratua
Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratua

*Leza Ospitalea
Lezako Ospitalea

*Errekalde Osasun Zentroa
Errekaldeko Osasun Zentroa

*Urduña Kontsultategia
Urduñako Kontsultategia

~ Izena —eta ez lekua— zehazten denean soilik onartuko da aposizioa, eta tartean marratxorik jarri gabe. Arean ere, izenari eta lekuari erreferentzia egiten dieten kasuetan, aposizioa hobetsiko da.

Alfredo Espinosa Ospitalea; Santa Marina Ospitalea

~ Nolanahi ere, Euskaltzaindiak argitaratutako *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak* dokumentuan azaltzen den bezala:

"Zenbaitetan, pertsonaren izenaz gainera (izena eta deitura), beste hitz batzuk ere sartzen dira odonimoaren atal espezifikoan. Horren ondorioz, batzuetan, aldatu egiten da oinarrizko egitura, eta, aposizio hutsa erabili beharrean, genitiboa erabiltzera jotzen da. Hauek dira kasurik ohikoenak: [...]

Lanbide, titulu edo karguaren izena pertsonaren izenaren ondoren dagoenean

Gehienetan, lanbidea edo kargua adierazten duen hitza pertsona-izenaren ondoren jartzen da. Kasu horretan, edutezko genitiboaren bidez lotzen zaio odonimoaren atal generikoari, egitura honekin:

[Pertsona-izena + (lanbide- edo kargu-izena) + -EN + (kalea, plaza...)]"

Hori dela eta, Osakidetzan, halako kasuetan, *-(r)en* genitibo-marka erabiliko da.

Areiltza Doktorearen Anbulatorioa; Etxaniz Suhiltzailearen Anbulatorioa

~ *-(e)ko* kasu-markaren bidez, lekua ez eze, denbora ere adierazten da, honelako galderei erantzunez: Noizkoa? Noiz gertatzen da? Zein garaitan? Noiz sortzen edo agertzen da? Noiz garatzen da? Zenbat denbora dirau?

eguneko ospitale; haurtzaroko autismo; larrialdietako ospitalizazio; Egonaldi Luzeko Unitatea; erditu aurreko kontsulta

~ *-(e)ko* atzizkiak leku, gune fisiko edo denborari erreferentziarik egiten ez badio eta kontzeptua hitz-elkarketaren bidez era naturalagoan adieraz badaiteke, hitz-elkarketa hobetsiko da:

↓ Ikerkuntzako Unitatea
Ikerkuntza Unitatea

↓ erosketetako batzorde
erosketa-batzorde

~ *-(e)ko* atzizkiak leku, gune fisiko edo denborari erreferentziarik egiten ez badio eta kontzeptua NOREN kasuaren bidez era naturalagoan adieraz badaiteke, *-(r)en* atzizkia hobetsiko da:

↓ Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritza
Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritza (giza baliabideak bizidunak baitira)

↓ Zainketa Aringarrietako Programa
Zainketa Aringarrien Programa

↓ historia klinikoetako artxibo
historia klinikoen artxibo

↓ Mineko Unitatea
Minaren Unitatea

↓ Erredura Handietako Unitatea
Erredura Handien Unitatea

-(R)EN

~ *-(r)en* kasu-markaren bidez, jabetza, sorburua, erlazioa, erreferentzia, gaia eta antzekoak adieraz daitezke. Honako galdera hauei erantzuteko hobetsiko da: Norena edo zerena da? Nork edo zerk du? Nori edo zeri egiten dio erreferentzia? Nori edo zeri gertatzen zaio? Nork edo zerk sortu du? Nork edo zerk eragin du? Nork edo zerk asmatu du?

Infekziosoen Unitatea; Bularreko Haurren Unitatea; Alzheimer-en gaixotasun; Havers-en erretena

~ Gainera, *-ren* kasu-markaren bidez adieraziko dira, gidoiarekin, izen berezi bat daroaten sindromeak, gaixotasunak, eskalak, maniobrak, testak eta antzeko zientzia kontzeptuak.

Rorschach-en testa, Apgar-en testa, Barthel-en indizea, Katz-en eskala, Barlow-ren maniobra, Valsalva-ren maniobra, Down-en sindromea, Parkinson-en gaixotasuna...

Izen edo abizen bakarra baino gehiago daroatenean, gidoi bidez lotuko dira eta amaieran bakarrik ipiniko da *-ren* kasu-marka.

Albers-Schönberg-en sindromea, Besnier-Boeck-Schaumann-en gaixotasuna

-(E)KO EDO -(R)EN HOBESTEA ZALANTZAZKOA DENEAN

~ Zenbait terminotan (kontzeptu immaterialak adierazten direnetan batez ere) oso ñabardura txikia sumatzen da *-(e)ko* nahiz *-(r)en* erabilita, eta biak izaten dira egokiak eta biak onartuko dira; nolanahi ere, lehenik eta behin glosarioetan edo zerrenda ofizialen batean ezarrita badago, termino hori erabili beharko da:

ezkerreko besoko larruazaleko neoplasia / ezkerreko besoaren larruazalaren neoplasia

↓ Erizaintzaren Unibertsitate Eskola > Erizaintzako Unibertsitate Eskola (berez, biak daude ondo, baina izen ofiziala *-ko* da, eta horixe da erabili beharrekoa)

~ Dena den, kasu horietan *-(e)ko* erabiliz gero, singularrean erabiliko da, lotura funtzioa nabarmentzeko —eta ez nongotasuna—:

↓ Finantza, Aurrekontu eta Erosketako Zuzendariordetza
↓ Finantza, Aurrekontu eta Erosketetako Zuzendariordetza
Finantza, Aurrekontu eta Erosketen Zuzendariordetza

↓ Zainketa Intentsiboko Unitatea
↓ Zainketa Intentsiboetako Unitatea
Zainketa Intentsiboen Unitatea

KALKO OKERRAK

Euskarazko testu bat sortzean edo euskararako itzulpen bat egitean, askotan, auzo-erdaretako egiturak kopiatzen dira, modu okerrean. Hitzez hitz ekarritakoak izaten dira, eta ez dira euskarazko estilorako aproposak. Asko ezagunak dira, baina, beste batzuetan, zalantza izaten da, eta nahi gabe erabili egiten dira. Bai Juan Garzia Garmendiaren *Kalko okerrak* (EIMA) liburuan bai Euskaltzaindiaren *Euskara Batuaren Eskuliburu*ko *"Kalko oker nabarmen batzuk"* atalean, halako asko bildu ziren, eta hemen horietako batzuk zerrendatuko dira, *Kalkoen Behatokitik* eta Osakidetzako hainbat testutatik erauzitako batzuekin batera:

~ Adostasunera heldu / Akordio batera iritsi

Baztertzekoak dira, eta honako hauek dira egokiagoak: adostu, ados jarri, itun bat egin, akordio bat lortu...

↓ Osasuneko Mahai Sektorialean akordio batera iritsi dira.
Osasuneko Mahai Sektorialean akordio bat lortu dute. / XX adostu dute.

~ Ahalera eta kalkoak

Ahalera neurriz gain erabiltzen da, besteak beste kalko desegoki batzuk egiten direlako. Zehazki, kasu hauetan kalkatzen dira ahalerazko egiturak:

a) Inolako beharrik gabe erabiltzen denean.

↓ Preserbatiboa modu egokian erabiltzea lagungarria izan daiteke.
Preserbatiboa modu egokian erabiltzea lagungarria da.

b) Ahalmena (gaitasun modura ulertuta) eta gertagarritasuna (gerta litekeena, alegia) nahasten direnean. Hau da, hizpide dugun horrek egia izateko edo gertatzeko duen posibilitateaz ari garenean, probabilitatezko moduak erabiltzea egokiagoa da (*litekeena da, baliteke, antza denez, omen...*).

↓ Hematoma bat ager daiteke biopsia egin den eremuan.
Baliteke hematoma bat agertzea biopsia egin den eremuan.

↓ Ebakuntza egin eta ordu batzuetara ere sor daiteke odoljarioa.
Ebakuntza egin eta ordu batzuetara ere, baliteke odoljarioa sortzea.

c) Ahalera gaztelaniazko subjuntibozko perpaus erlatiboen ordain desegoki gisa erabiltzen denean.

?Zure espedientea Osakidetzako Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzara igorriko da, izan litezkeen erantzukizunak bideratzeko.
Zure espedientea Osakidetzako Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzara igorriko da, erantzukizunak bideratzeko, halakorik izanez gero.

~ Baldintza hipotetikoaren eta ondoriozko perpausaren arteko komunztadura okerra

Sarritan, alegiazko baldintzazko perpaus akastunak sortzen dira, batez ere baldintza mota bakoitza (errealak, ez-errealak, iraganekoak) ez denean dagokion ondoriozko perpausarekin ondo lotzen. Hau da, ekintza gertagarriei buruz ari bagara, egokiena da forma ez-hipotetikoak erabiltzea, eta forma hipotetikoak erabiltzen baditugu, baldintzaren eta ondorioaren arteko koherentzia formala gorde behar da.

*Eztarrian mina nabarituko bazenu, prozedura eten egingo da.
Eztarrian mina nabaritzen baduzu, prozedura eten egingo da.

~ Balio du / kostatzen da

Kostatu aditzaren erregimena *zaio* (eta *da*) da; ez *du*.

Cuesta 10 millones.
*10 milioi kostatzen du.
10 milioi kostatzen da.
10 milioi kostatu zaigu.

Bestela, *balio izan* aditza ere erabil daiteke.

10 milioi balio du.

~ Berria vs beste bat

Kontuz ibili behar da *nuevo* hitza itzultzean. Batzuetan, *berria* da, baina beste batzuetan *beste bat* esan nahi du.

OTA makina berria ekarri dute zerbitzura.

Horrez gain, kontuan hartu behar da zerbait sortzen denean berria izaten dela; beraz, *sortu* eta *berria* esaldi berean erabiltzea erredundantzia bat da.

Ha creado un nuevo informe.
↓ Txosten berria sortu du.
Txostena sortu du.

~ Betiere vs baldin (eta)

Ez da gomendagarria baldintzazko perpausetan *betiere* erabiltzea *baldin* (*eta*) indargarriaren ordez.

La defensa se podrá efectuar en cualquiera de los idiomas que se han utilizado en la impartición de la Titulación, siempre y cuando haya sido informado en el momento oportuno.
*Titulazioa irakasteko erabili den edozein hizkuntzatan egin ahal izango da lanaren defentsa, betiere dagokion unean jakinarazi bada.
Titulazioa irakasteko erabili den edozein hizkuntzatan egin ahal izango da lanaren defentsa, baldin eta dagokion unean jakinarazi bada.

~ Celebrar > ospatu (ez beti)

Jaiak eta ospakizunak *ospatu* egiten dira; ez, ordea, biltzarrak, bilerak, txapelketak, lehiaketak, jardunaldiak eta topaketak. Horiek *egin* egiten dira.

El congreso sobre el síndrome de Dravet se celebrará en mayo.
*Dravet-en sindromeari buruzko kongresua maiatzean ospatuko da.
Dravet-en sindromeari buruzko kongresua maiatzean izango/egingo da.

~ Condición > baldintza (ez beti)

Baldintza hitza behar baino gehiagotan erabiltzen da gaztelaniaren eraginez; izan ere, gaztelaniaz *condición* hitza erabiltzen den bakoitzean ez du *baldintza* esan nahi. Adibidez, batzuetan gaztelaniazko *condición* hitza *gaixotasun* esanahiarekin erabiltzen da, eta *baldintza* hitzak ez du esanahi hori biltzen. Era berean, beste erabilera oker batzuk ere baditu:

El almacén está en malas condiciones.
*Biltegia baldintza txarretan dago.
Biltegia egoera txarrean dago.

Tu hijo tiene condiciones para ser un buen ciclista.
*Semeak txirrindulari ona izateko baldintza onak ditu.
Semeak txirrindulari ona izateko gaitasuna dauka.

Soy de condición humilde.
*Baldintza apalekoa naiz.
Maila apalekoa naiz.

~ Convocar > *manifestazioa/bilera deitu

Gaztelaniazko *convocar* adierazteko *deitu* aditza erabiltzea egokia da, baina *zertara/nora deitu* esan behar da, ez z*er deitu.*

Han convocado una plaza de Jefe de Unidad de Atención Primaria.
*Lehen Mailako Arretako unitateburu lanpostu bat deitu dute.
Lehen Mailako Arretako unitateburu lanpostu bat betetzeko deialdia egin dute.

Han convocado una reunión.
*Bilera deitu dute.
Bilerara deitu dute.

Se convocó la OPE 2016-2017
*2016-2017ko EPEa deitu zen
2016-2017ko EPEaren deialdia egin zen

~ Dagokionez vs dagokionean

Kontuan izan *dagokionez* eta *dagokionean* ez direla gauza bera. *Dagokionez* hitza gai bati buruz hizketan hasteko erabiltzen da; *dagokionean* hitzak, ordea, *dagokion unean* esan nahi du.

~ En el propio / En el marco de / Dentro de > *-(r)en baitan

Euskaltzaindiak, kontuan harturik *perpaus baitan, perpausaren baitan* esapideek eta kidekoek euskara idatzian izan duten erabilera, esapide horien ordez, *perpausean, perpausaren barruan, perpaus barnean* eta kidekoak erabiltzea gomendatzen du. Izan ere, *-(r)en baitan* esapideak bi adiera ditu bakarrik. Batetik, *zerbaiten baitan* formulak, lekua adierazten duenez, etxeari bakarrik egiten dio erreferentzia. Bestetik, bizidunekin edo pertsonifikazioetan erabiltzen denean, ordea, *-(r)(e)gan* atzizkiaren parekoa da. Beraz, bestela erabiltzea kalkoa izango litzateke.

El accidente ocurrió en el propio quirófano.
*Ebakuntza-gelaren baitan gertatu zen istripua.
Ebakuntza-gelaren barruan / Ebakuntza-gelan gertatu zen istripua.

El resultado de la prueba realizada en el marco del Programa de Cribado de Cáncer de cérvix es negativo.
*Zerbixeko Minbiziaren Baheketa Programaren baitan egin zizuten probaren emaitza negatiboa da.
Zerbixeko Minbiziaren Baheketa Programaren harira egin zizuten probaren emaitza negatiboa da.

Eso no está en mi mano.
Hori ez dago nire baitan.

~ Después de eso > *hori eta gero

Gero eta zabalduago dago *hori eta gero* egitura okerraren erabilera *después de eso* adierazteko. Honelakoak dira zuzenak, besteak beste: horren ostean, gero, ondoren…

~ *Egin* aditz anaforiko ustela

Askotan, *egin* aditza gehiegi erabiltzen da, esanahi orokorra duen komodin gisa baliatzen delako, nahiz eta beste aditz batzuk zehatzagoak eta egokiagoak izan.

↓ Medikazioa hartu behar baduzu, egizu osasun-langilearen jarraibideak betez.
Medikazioa hartu behar baduzu, har ezazu osasun-langilearen jarraibideak betez.

↓ Destino-eskaera aldatu ahal izango duzu, destinoak aukeratzeko epearen barruan egiten baduzu.
Destino-eskaera aldatu ahal izango duzu, destinoak aukeratzeko epearen barruan aldatzen baduzu.

~ En cambio > berriz, aldiz, ostera eta ordea

Hirurak dira aurkaritza adierazteko lokailuak, baina badago aldea *berriz* eta *aldiz* lokailuen eta *ordea* lokailuaren artean. *Ordea* hitzak lehenbiziko esaldian esandakoa ukatu bezala egiten du, zuzenketa baten antzera. *Berriz*, *aldiz* eta *ostera* lokailuek lehenbiziko esaldian esandakoa osatu bezala egiten dute, hau da, informazioa gehitzen diote aurreko esaldiari.

Testuinguruaren arabera, baliteke ñabardura txiki horrek ez ekartzea aldaketa handirik esanahian. Adibidez:

A Miren le gusta la playa. En cambio, June prefiere la montaña.
Mireni hondartza gustatzen zaio; Junek, ordea, mendia nahiago.
Mireni hondartza gustatzen zaio; Junek, berriz, mendia nahiago.

Baina, beste batzuetan, baliteke ez izatea trukagarriak, eta *ordea* behar den tokian ezin erabili izatea *berriz* edo *aldiz*:

El paciente dice que hace ejercicio; pero, a la vista de los resultados, no lo parece.
*Pazienteak dio kirola egiten duela; emaitzak ikusita, ez du, aldiz, hala ematen.
Pazienteak dio kirola egiten duela; emaitzak ikusita, ez du, ordea, hala ematen.

Arretaz hautatu behar da, beraz, aurkaritza-lokailu hauetako zein erabili.

Horrez gain, kontuz erabaki behar da lokailuon kokapena. *Aldiz* esaldiaren hasieran edo tartean joan daiteke. *Berriz* tartean idatzi behar da beti. *Ordea* eta *ostera* esaldiaren tartean idatzi ahal dira, edo, bestela, esaldiaren amaieran, enfasia emateko.

Emaztea beti aitaren zaintzaile. Aldiz, seme-alabak ardurarik hartu gabe.

Arduradunak Farmaziako biltegia atontzeko eskatu zuen. Hori bakarrik balitz ostera!

Pazienteak alta nahi zuela eta, alta eman behar derrigorrean. Medikuak bertan ingresatuta nahiago zuen, ordea.

~ En caso de > -(r)en kasuan (ez beti)

Gaztelaniazko *en caso de* esateko ezin da erabili *–(r)en kasuan,* baldin eta baldintza bat adierazteko erabili nahi bada.

En caso de no presentación de solicitudes...
↓ Eskabiderik ez aurkeztearen kasuan...
Eskabiderik aurkezten ez bada / aurkeztu ezean...

~ En ese sentido > *zentzu horretan

Euskal tradizioari jarraituta, *zentzu* hitza *sentido común* eta zuhurtasuna adierazteko, *konortea* adierazteko edota *esanahia* adierazteko soilik erabili beharko litzateke.

Los padres y madres siempre están preocupados de que sus hijos e hijas beban demasiado cuando salen de fiesta. En ese sentido, Ane es una chica muy formal.
↓ Gurasoek kezka izaten dute beti, seme-alabek parrandetan gehiegi edaten ote duten. Zentzu horretan, Ane oso neska zintzoa da.
Gurasoek kezka izaten dute beti, seme-alabek parrandetan gehiegi edaten ote duten. Alde horretatik, Ane oso neska zintzoa da.

~ En lugar de + izena > *beharrean > -(r)en ordez

Gaztelaniazko "en lugar de + aditza" formula adierazteko, egokia da "aditza + beharrean" erabiltzea euskaraz. Ez da egokia, ordea, izenekin halakoak erabiltzea. Kasu horretan, *-(r)en ordez* erabili ahal da.

En lugar de hacer la resonancia el lunes, la harán el miércoles.
Erresonantzia astelehenean egin beharrean, asteazkenean egingo dute.

En lugar de tratamiento, le recomendó ejercicio físico.
*Tratamendua beharrean, ariketa fisikoa gomendatu zion.
Tratamenduaren ordez, ariketa fisikoa gomendatu zion.

~ Erdal gerundioa [-(e)la(rik) eta -tuz]

*IVAPeko estilo-liburu*ko "Erdal gerundioak euskaraz" atalean eta Patxi Petrirenak *Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren 110. zenbakian idatzitako "Desegoki* gerundiotuz" artikuluan argi azaltzen denez, *-tuz* eta *-(e)la(rik)* gerundioen erabilera okerrak joskera desegokiak ekartzen ditu euskaraz. Nolanahi ere, aipatzekoa da kalkoa eragiten duen erdal egitura ere okerra dela askotan.

Ez euskaraz ez gaztelaniaz ez da zuzena gerundio narratiboa deritzona; hau da, ez da zuzena gerundioa erabiltzea ekintza bi bata bestearen ostean gertatzen direla adierazteko. Halakoetan, egokiena, hizkuntza bietan, eta juntagailua erabiltzea da.

*El joven se precipitó por la ventana, rompiéndose la pierna.
El joven se precipitó por la ventana y se rompió la pierna.

*Mutikoa leihotik erori zen, hanka hautsi zuelarik / hautsiz.
Mutikoa leihotik erori zen eta hanka hautsi zuen.

Modua eta aldiberekotasuna adierazteko, ordea, egokiak dira.

Medikuak etorri zirelarik, alde egin zuen.

Fisioterapeutak esan zion: "Buruz gora etzanda zaudelarik, altxatu gora besoak!"

Euskaraldiaren bultzada aprobetxatuz sortu da euskara-taldea.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, euskaraz beti baztertu behar direnik gerundioak. Euskal gerundioak NOLA, ZERTAN eta NOIZ/NOLA galderei erantzuten die, eta egokia da *-(e)la(rik)*, *-tuz* edo dagokion beste gerundio-forma bat erabiltzea, testuinguruak hala agintzen duenean.

~ Eskatu

Gaztelaniaz oso zabalduta dago *requerir/necesitar* aditzak erabiltzea beharra adierazteko. Euskaraz, ez da oso egokia *eskatu* aditza erabiltzea adiera horretarako. Beraz, hobe da beharra markatzen duen adierazpideren bat erabiltzea.

Es menos efectivo que el tratamiento quirúrgico y se requiere de personal sanitario especializado que enseñe de forma adecuada el procedimiento.
↓ Ez da tratamendu kirurgikoa bezain eraginkorra, eta prozedura modu egokian erakutsiko duen pertsonal sanitario espezializatua eskatzen du.
Ez da tratamendu kirurgikoa bezain eraginkorra, eta prozedura modu egokian erakutsiko duen pertsonal sanitario espezializatua behar ba.

~ Establecer > ezarri (ez beti)

Establecer aditzak ere hainbat esanahi izan ahal ditu, eta ez da beti *ezarri*:

Establecer relación > harremanetan jarri

Establecer la relación entre A y B > adierazi zer harreman dagoen Aren eta Bren artean

Establecer (determinar, concretar) > zehaztu/finkatu

Establecerse en un lugar > norabait bizitzera joan

Establecer (instituir) > ezarri/sortu

Establecer (colocar) > jarri

Establecer (ordenar, mandar, decretar) > agindu/ezarri/xedatu

Establecer un negocio > negozio bat ireki/sortu

Establecer teorías, principios, ideas > ideiak finkatu

Establecer una costumbre > ohitura hartu

~ Fokua jarri

Ez da zuzena. Horren ordez, erabili *arreta jarri, erreparatu, ardatz izan, kasu egin, kasu eman, begiradapean egon...*

↓ Txosten honetan joera horiek aztertuko ditugu, osasunean eta indarkeria matxistetan fokua jarrita.
Txosten honetan joera horiek aztertuko ditugu, arreta osasunaren eta indarkeria matxisten eremuan jarririk.

~ Forman vs sasoian

Forma ez da erabili behar gizabanakoen sasoi fisikoari erreferentzia egiteko.

*Onuragarriak dira bihotzerako, biriketarako, pisua kontrolatzeko eta forman egoteko.
Onuragarriak dira bihotzerako, biriketarako, pisua kontrolatzeko eta sasoian egoteko.

~ *Gehiegi* hitzaren erabilera okerra

Gehiegi hitza modu desegokian erabiltzen da askotan.

↓ Bilera ez da gehiegi luzatuko.
Bilera ez da asko luzatuko.

~ Hacer > egin vs gauzatu vs burutu

Gauzatu aditza, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren arabera, "gaitu" edo "gauza-izaera eman edo hartu; asmo edo ideia bat besterik ez denari izatasuna eman" esan nahi du. Hala ere, gaur egun, *efectuar* aditza itzultzeko erabiltzen da askotan, *egin* aditzaren ordez.

Los aspirantes realizaron ayer el ejercicio teórico de la OPE de FEM de Ginecología.
*Ginekologiako FEM izateko EPEko ariketa teorikoa gauzatu zuten hautagaiek atzo.
Ginekologiako FEM izateko EPEko ariketa teorikoa egin zuten hautagaiek atzo.

Burutu aditza, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren arabera, "amaitu, buru eman, bururatu". Beraz, ez da *egin* aditzaren sinonimoa.

Hicieron una mesa redonda el Día sin Tabaco.
*Tabakoaren kontrako Egunean, mahai-inguru bat burutu zuten.
Tabakoaren kontrako Egunean, mahai-inguru bat egin zuten.

~ Hacer una lectura > ↓ irakurketa egin

Gaztelaniazkoaren kalko bat da, eta beste modu batean esan daiteke:

¿Qué lectura haces del informe? Se pueden hacer muchas lecturas: económica, social, política…
↓ Zein irakurketa egin duzu txostenari buruz? Irakurketa ugari egin daiteke: ekonomikoa, soziala, politikoa…
Zer deritzozu emandako txostenari? Ikuspuntu askotatik azal daiteke: ekonomikoa, soziala, politikoa…
Zer iruditzen zaizu emandako txostena? Ikuspuntu askotatik azal daiteke: ekonomikoa, soziala, politikoa…

~ Hobe vs hobeto

Hobe konparaziozko forma *on* izenondoari dagokio; *hobeto*, berriz, *ondo* adizlagunari dagokion konparatibozko era da.

*Medikazioa hartu eta hobe sentitzen hasi da.
Medikazioa hartu eta hobeto sentitzen hasi da.

~ Hoy por hoy > *oraindik orain

Hoy por hoy esapidea adierazteko *gaur-gaurkoz*, *oraindik*, *oraingoz* erabiltzen da; *oraindik orain,* berriz, *orain dela gutxi* da.

~ Hurbildu vs joan

Kalko semantiko hau gero eta ohikoagoa da euskarazko testuetan. *Hurbildu* eta *joan* aditzek esanahi desberdina dute. Hain zuzen ere, *hurbildu* aditzak *gerturatu* esan nahi du, eta ez *joan*.

*Pazientea ospitaleko larrialdetara hurbildu da goizaldeko 03:00etan.
Pazientea ospitaleko larrialdetara joan da goizaldeko 03:00etan.

~ Imaginar / representar > imajinatu / irudikatu (ez beti)

Irudimenean eratu edo sortu esan nahi denean *imajinatu* eta *irudikatu* erabil daitezke, eta *zerbait irudi baten bidez adierazi* esan nahi denean, *irudikatu* erabil daiteke.

Aditz horiek ez dira hain zuzenak, ordea, hauek adierazteko:

Uste izan: ↓ Imajinatzen dut berandu helduko naizela.
Uste dut berandu helduko naizela.

Suposizioak egiteko: ↓ Imajina dezagun bost lagun gaudela.
Demagun / Eman dezagun / Egin dezagun kontu bost lagun gaudela.

Adierazi: ↓ Irudikatu grafikoki datu hauek.
Adierazi grafiko baten bidez datu hauek.

~ Influir en > eragin du vs eragin dio vs zertan eragina izan

Influir en adierazteko, *eragin* izenak *zertan* kasu-marka hartzen du; *zertan eragina izan*, hain zuzen.

El tratamiento influye en las enzimas inhibidoras.
*Tratamenduak entzima inhibitzaileei eragiten die.
Tratamenduak entzima inhibitzaileetan du eragina.

Eragin aditza, aldiz, beste esanahi batzuekin erabiltzen da, erregimenaren arabera: zerbait egitera bultzatu, mugiarazi, eginarazi, zerbaitetan edo norbaitengan ondorioak izan, gertarazi, ondorioak ekarri. *Eragin* aditzak *du* eta *dio* erregimenak hartzen ditu.

Sukarrak hotzikarak eragiten dizkio.

Hotzak dardara eragiten du.

~ Instrumental pluralaren zein singularraren erabilera okerrak.

Instrumentalak forma mugagabea hartzeko aukera eta joera du, baina ohiko akatsa da plurala erabiltzea mugagabearen ordez, bereziki *-a* berezkoa duten izenekin; izan ere, mugagabean zein mugatu singularrean forma berdina dute. Alegia, *-az* amaiera duten kasu guztiak mugatu singularrak direlako usteak okerreko mugagabea *(-ez)* erabiltzea dakar:

Para todo ello se formará un equipo de rescate compuesto por profesionales que se encuentren presentes.
*Hori guztia gauzatzeko, bertan dauden langileez osatutako erreskate talde bat sortuko da.
Hori guztia gauzatzeko, bertan dauden langilez osatutako erreskate talde bat sortuko da.

El sistema está dotado de dos nuevas herramientas para mejorar los resultados en salud.
*Sistema bi tresna berriez hornituta dago osasun-emaitzak hobetzeko.
Sistema bi tresna berriz hornituta dago osasun-emaitzak hobetzeko.

~ Internetera igo

Dokumentu bat Interneten edo dena delako plataforman, aplikazioan edota ataritan jarri dela esateko, hobe *kargatu* erabiltzea, edo *jarri*.

↓ Izangaiek CV aplikaziora igo behar dute alegatu nahi dituzten merezimenduen dokumentazioa.
Izangaiek CV aplikazioan kargatu behar dute alegatu nahi dituzten merezimenduen dokumentazioa.

~ Itxarote-zerrenda vs itxaronzerrenda / itxaroteko zerrenda.

Kalko semantiko hau ohikoa da euskarazko testuetan, gaztelaniako *lista de espera* esapidea euskarara egokitzeko orduan. *Itxarote-zerrenda* da Osakidetzako testuetarako forma zuzena, eta ez *itxaronzerrenda* edo *itxaroteko zerrenda*.

Pazientea traumatologiako itxarote-zerrendan dago.

~ (Kasu) bakan vs (kasu) isolatu

Isolatu hitzak *zerbait beroaren*, *hots uhinen edo elektrizitatearen eraginetik at atxiki* esan nahi du, eta, beraz, beti ez da egokia gaztelaniazko aislado adierazteko. Bada, esanahi horretatik kanpoko testuinguruetan, hobe da *bakan* erabiltzea.

*Kasu isolatu batzuk izan dira.
Kasu bakan batzuk izan dira

~ Kasuan

Beharrik gabe erabiltzen da askotan, eta ez dio informaziorik gehitzen esaldiari.

↓ Titularraren gaixotasunaren kasuan, ordezkoa jarriko da haren tokian.
Titularra gaixorik badago, ordezkoa jarriko da haren tokian.

~ Komun izan vs komunean izan

Gaztelaniazko en *común* lokuzioa euskaratzeko ez da erabili behar *komunean izan/jarri/hartu* egitura, *komun izan* egitura baizik. *Komun* hitza, guztiek edo *gehienek batera dutena edo guztiei edo gehienei dagokiena* adierazten duenean, izenondoa da (adib. *helburu komunak dituzte*), baina adberbio gisa ere erabiltzen da *komun izan/ukan* moduan.

*Kategoria bereko probak, eskaera-formularioak komunean dituztenak.
Kategoria bereko probak, eskaera-formularioak komun dituztenak.

*Osakidetzak eta Fundazioak komunean duten helburu honek teknologiak berritzeko lankidetza-proiektu baterako oinarriak ezartzen ditu.
Osakidetzak eta Fundazioak komun duten helburu honek teknologiak berritzeko lankidetza-proiektu baterako oinarriak ezartzen ditu.

Bestalde, *amankomun* tradizioan ez da erabili adjektibo gisa, hau da, ez da erabili izenak kalifikatzeko, NOLA galderari erantzuteko baizik, adizlagun gisa (*amankomunean egingo dute lana*, baina **lan amankomuna*).

~ Llamar la atención > *arreta/atentzioa deitu > atentzioa eman / nabarmendu / ohartarazi / deigarria egin

Gaztelaniazko *llamar la atención* esapideak zenbait adiera izan ditzake, baina, askotan, *arreta/atentzioa deitu* erdarakadara jotzen da.

Me ha llamado la atención una mancha que tiene el paciente en la espalda.
*Arreta deitu dit pazienteak bizkarrean duen orban batek.
Atentzioa eman dit pazienteak bizkarrean duen orban batek.

Llama la atención en cualquier lugar al que va.
*Joaten den toki guztietan deitzen du arreta.
Joaten den toki guztietan nabarmentzen da.

Me han llamado la atención sus andares.
*Atentzioa deitu dit bere ibilerak.
Deigarria egin zait bere ibilera.

~ Maila, esparru, arlo, alor, mundu…

Askotan, hitz hauek ez diote esanahirik gehitzen esaldiari.

↓ OMEk nazioarteko mailako pandemia gisa definitu du obesitatea.
OMEk nazioarteko pandemia gisa definitu du obesitatea.

↓ Ikerkuntza sanitarioaren munduak erakundeen babesa behar du aurrera egiten jarraitzeko.
Ikerkuntza sanitarioak erakundeen babesa behar du aurrera egiten jarraitzeko.

~ Mailaketa: ezer vs batere

Kontuz kalkoekin, mailaketa adierazteko *batere* erabiltzea baita zuzena, eta ez *ezer.*

↓ Pazienteari ez zaio ezer kostatzen aulkitik jaikitzea laguntzarik gabe.
Pazienteari ez zaio batere kostatzen aulkitik zutitzea laguntzarik gabe.

↓ Pazienteak ez du ezer laguntzen mobilizazioetan.
Pazienteak ez du batere laguntzen mobilizazioetan.

~ Min handia/txikia vs min asko/gutxi

Minaren intentsitateari buruz ari garenean, ez da *asko/gutxi* erabili behar, *handia, akutua, txikia* eta antzekoak baizik.

*Ez da gomendagarria lehenengo asteetan ibiltzea, min asko eduki ez arren.
Ez da gomendagarria lehenengo asteetan ibiltzea, min handia eduki ez arren.

~ *Motor* hitzari kasu-markak eranstea

Motor hitzari eta hitz horren eratorriei okerreko kasu-markak eransten zaizkie.

*Gorputz-adarreko muskulaturaren defizit motoreak edota ahultasunak eguneroko jarduerak zailtzea eragin dezake.
Gorputz-adarreko muskulaturaren defizit motorrak edota ahultasunak eguneroko jarduerak zailtzea eragin dezake.

*Nerbio motoreak mugimendua eragiten du.
Nerbio motorrak mugimendua eragiten du.

*Pazienteak gaitasun psikomotorea hobetu behar du.
Pazienteak gaitasun psikomotorra hobetu behar du.

~ Muchos / Diversos / Plural > Anitz vs askotariko vs plural

Ez da egokia *anitza* hitza izenondo gisa erabiltzea erdarazko *plural* adjektiboaren ordainean:

*industria anitza > askotariko industria; *jende anitza > askotariko jendea

*Euskara Batuaren Eskuliburua*ren arabera, *anitz* hitza *asko* edo *oso* hitzaren parekoa da adiera hauetan:

Anitz jende etorri da / Jende asko etorri da (zenbtz.).
Ez da anitz luzatuko / Ez da asko luzatuko (adlag.).

~ *-n arren,* sasimenderatuak

Batzuetan, *-n arren* sasimenderatuak ez dira erabiltzen benetako kontsezio gisa.

*Edonork har dezake gripea, haurrek hartzeko arrisku handiagoa duten arren.
Edonork har dezake gripea, baina haurrek hartzeko arrisku handiagoa dute.

~ Nagusia vs nagusiena

Gomendatzekoa da *nagusi* adjektibo soila erabiltzea, *-en* atzizkia erredundantea baita *nagusi* hitzari erantsita

↓ Lehendakariak azpimarratu du Osakidetzaren erronka nagusiena dela.
Lehendakariak azpimarratu du Osakidetzaren erronka nagusia dela.

~ Parte-hartzaile

Parte hartzen duen pertsona adierazteko soilik erabil daiteke; beraz, desegokia da pertsonak ez diren beste ezer deskribatzeko erabiltzea.

*Ekimen honek kudeaketa parte-hartzaileagoa izatea du helburu.
Ekimen honek kudeaketan parte-hartze handiagoa lortzea du helburu.

~ Personalmente > pertsonalki (ez beti)

Personalmente esateko ezin da beti *pertsonalki* erabili. *Pertsonalki* adberbioa aurrez aurre adierazteko baino ez da erabili behar.

Iré personalmente.
*Pertsonalki joango naiz.
Ni neu joango naiz.

El solicitante debe presentarlo personalmente.
*Eskatzaileak pertsonalki aurkeztu behar du.
Eskatzaileak berak aurkeztu behar du.

Lo conocí personalmente ese día.
Egun hartan ezagutu nuen pertsonalki.

~ Por si fuera poco > *hori gutxi balitz

Gaztelaniaren kalko bat da hori. Euskaraz, beste forma hauek dira egokiak esanahi hori adierazteko: *horrez gainera, gainera, hori gutxi balitz bezala, hori gutxi ez, eta…*

Por si fuera poco, los/as trabajadores/as no cobran las horas extra.
*Hori gutxi balitz, langileek ez dituzte kobratzen aparteko orduak.
Horrez gainera, langileek ez dituzte kobratzen aparteko orduak.

~ Por su parte > bere aldetik (ez beti)

*Euskara Batuaren Eskuliburua*ren arabera, *bere aldetik por su parte* esapidearen kalko gisara erabiltzen da askotan. Aldiz, esapide horrek ez du diskurtso-markatzaile baliorik: *bere kasa* adierazten du, ez besterik.

Para solucionar el conflicto, decidieron que cada parte renunciaría a algo. La Dirección accedió a la reducción del horario y los sindicatos, por su parte, al cambio de funciones en la categoría.
*Gatazka konpontzeko, bakoitzak zerbaiti uko egingo ziola erabaki zuten. Zuzendaritzak ordutegia murriztea onartu zuen, eta sindikatuek, beren aldetik, kategorian funtzioak aldatzea.
Gatazka konpontzeko, bakoitzak zerbaiti uko egingo ziola erabaki zuten. Zuzendaritzak ordutegia murriztea onartu zuen, eta sindikatuek, berriz, kategorian funtzioak aldatzea.

Osakidetza, por su parte, lleva ya varios años celebrando dicho Día Mundial de la Seguridad del Paciente, los dos últimos centrados en la importancia de implicar a la población en su seguridad.
*Osakidetzak, bere aldetik, urte batzuk daramatza Pazientearen Segurtasunaren Mundu Eguna ospatzen; azken bi urteetan, gainera, arreta jarri du pazientea bere segurtasunean inplikatzeak duen garrantzian.
Bestalde, Osakidetzak urte batzuk daramatza Pazientearen Segurtasunaren Mundu Eguna ospatzen; azken bi urteetan, gainera, arreta jarri du pazientea bere segurtasunean inplikatzeak duen garrantzian.

~ Pozik azaldu ... X-rekin vs pozik egon / poza agertu ... X-gatik

Kontuz ibili behar da norbaiten asebetetasunari edo pozari erreferentzia egiteko erabiltzen ditugun esamoldeekin; izan ere, ohiko akatsa da norbait gaztelaniazko *satisfecho/a con* zuzenean kalkatzea eta **zerbaitekin pozik adieraztea, zerbaitegatik pozik* dagoela esan edo bestelako formularen bat erabili beharrean.

↓ Biztanleriaren % 95 pozik dago jasotako tratuarekin.
Biztanleriaren % 95 pozik dago jasotako tratuagatik.
Biztanleriaren % 95ek egoki deritzo jasotako tratuari.

~ Prever > aurreikusi (ez beti)

Gaztelaniazko *prever* aditza itzultzeko *aurreikusi* jarri ohi da automatikoki, baina, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren arabera, testuingurua hartu behar da kontuan kasuan-kasuan, aditz egokia *ezarri, xedatu, kalkulatu, uste izan...* izan daitekeelako.

No es posible aceptar documentos de ese tipo según lo previsto por la ley.
↓ Ezin da halako dokumenturik onartu, legeak aurreikusitakoaren arabera.
Ezin da halako dokumenturik onartu, legeak ezarritakoaren/xedatutakoaren arabera.

~ Prueba > froga ≠ proba

Bi hitz dira. Zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio duena da froga: delituaren frogak, frogaren argudioak... Besteak probak dira: liburuaren lehen probak, azterketa-probak, unibertsitatera sartzeko probak, idi-proba, ADN proba, proba nuklearrak, etab.

Prueba de glucemia
*Gluzemiaren froga
Gluzemiaren proba

Prueba PCR
*PCR froga
PCR proba

Probatu eta *frogatu* aditzek ere desberdintasun hori daukate esanahian. *Frogatu* aditzak froga bidez zerbait egiatzat edo ziurtzat agerraraztea esan nahi du. *Probatu* aditzak, ordea, bi adiera ditu: A) Zerbait omen den bezalakoa den egiaztatu saio edo azterketa bidez. B) Dastatu.

Le hicieron la prueba de paternidad para probar que era el progenitor.
*Aitatasun-proba egin zioten aita zela probatzeko.
Aitatasun-proba egin zioten aita zela frogatzeko.

El paciente no probó la comida.
*Pazienteak ez zuen bazkaria frogatu.
Pazienteak ez zuen bazkaria probatu.

Están probando el nuevo tratamiento.
*Tratamendu berria frogatzen ari dira.
Tratamendu berria probatzen ari dira.

~ Recuperar > berreskuratu (ez beti)

Gaztelaniazko *recuperar* ez da beti *berreskuratu*; izan ere, hainbat esanahi izan ditzake:

Recuperar (retomar) > berriro hasi

Recuperar la conciencia > bere onera/senera etorri

Recuperarse (salud/fuerza) > sendatu, osatu, indarberritu

Recuperar (la economía) > leheneratu/suspertu

Recuperar (la normalidad) > betiko/lehengo/aurreko egoerara itzuli / leheneratu / bere onera ekarri/etorri

~ *-(r)en barne egon

Barne egon ez da zuzena. Kasu horretan, *-(r)en barnean egon* esan behar da.

El precio del IVA está incluido.
*BEZa prezioaren barne dago.
BEZa prezioaren barnean dago.

Noiz erabili behar da, beraz, *barne* hitza? Bada, gaztelaniazko *incluido, inclusive, incluso* adierazteko, baina kontuan hartu behar da, halakoetan, aurreko izena NOR kasuan baino ezin dela joan.

Está abierto todos los días, incluidos los domingos.
*Egunero dago zabalik, igandeetan barne.
Egunero dago zabalik, igandeak barne.
Egunero dago zabalik, igandeak direla barne.

Bestalde, egokiak dira *barne hartu* eta *barnean hartu* esapideak.

Auditoretza honek prozesu asistentzialen ebaluazioa ere hartzen du barne(an).

~ Resultar > suertatu (ez beti)

Suertatu aditza *jazo, izan, gertatu* eta *egokitu* aditzen sinonimo izan daiteke (adibidez, esaldi honetan: hala suertatu zitzaigun orduan), baina ezin da erabili gaztelaniazko *resultar* + izena (ha resultado muerto / ha resultado ganador) formularen kalko gisa.

Cuatro personas han resultado muertas en el accidente.
*Lau pertsona hilda suertatu dira istripuan.
Lau pertsona hil dira istripuan.

Satse ha resultado ganador en las elecciones sindicales.
*Satse suertatu da irabazle hauteskunde sindikaletan.
Satsek irabazi ditu hauteskunde sindikalak.

~ Se calcula que > ↓ kalkulatzen da

Kalkulatu aditza, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren arabera, hau da: "Kopuru ezezagun bat lortzeko eragiketa matematikoak egin". Beraz, usteak edo kalkuluen araberakoak adierazteko, ez da komeni erabiltzea *kalkulatzen da* esapidea, gaztelaniaren kalkoa baita. Euskaraz, hobe da *Kalkulu batzuen arabera, uste da*... formulak erabiltzea.

Se calcula que responderán a la encuesta 3.000 personas.
↓ Kalkulatzen da 3.000 pertsonak erantzungo diotela inkestari.
Kalkulu batzuen arabera, 3.000 pertsonak erantzungo diote inkestari.
Uste da 3.000 pertsonak erantzungo diotela inkestari.

~ Se dan > eman (ez beti) > gertatu/egon/izan

Eman aditza, batzuetan, kalkoa izaten da. Testuinguruaren arabera, hobe da *gertatu* edo *egon* aditzak erabiltzea.

Este año se han dado muchos casos de gripe en el País Vasco.
*Aurten, gripe-kasu asko eman dira Euskal Herrian.
Aurten, gripe-kasu asko izan dira Euskal Herrian.

Cada vez se dan más casos de accidente laboral.
*Lan-istripuen gero eta kasu gehiago ematen dira.
Gero eta lan-istripu gehiago gertatzen dira.

~ Suponer > ↓ suposatu

Euskal tradizioan oso gutxitan erabili izan da *suposatu* aditza. Beraz, beste modu jatorrago batzuetan adieraz daiteke gaztelaniazko *suponer* aditza:

Supongamos que viene hoy.
↓ Suposa dezagun gaur datorrela.
Demagun gaur datorrela.

Eso supondrá el final.
↓ Horrek amaiera suposatuko du.
Hori amaiera izango da.

Nos ha entrado un virus en el ordenador, y nos ha supuesto perder el trabajo de un mes entero.
↓ Birus bat sartu zaigu ordenagailuan; horrek suposatzen du hilabeteko lan guztia galdu dugula.
Birus bat sartu zaigu ordenagailuan; ondorioz, hilabeteko lan guztia galdu dugu.

~ *Zenbat neurtzen duzu?

Nik neurtzen dut esatean, metro bat hartu eta zerbait neurtzen ari naizela esaten ari naiz. Normalean, ordea, ez da hori adierazi nahi, norberaren neurria baizik.

El paciente mide 1,80 m.
*Pazienteak 1,80 m neurtzen du.
Pazientea 1,80 m garai/luze da.

~ Zerbaitekin hasi, amaitu, jarraitu

Gaztelaniaren eraginez, askotan soziatiboa *[-(r)ekin]* erabiltzen da *hasi, amaitu/bukatu* edota *jarraitu* aditzekin, baina badira formulazio jatorragoak; hots, absolutibo-marka.

↓ Azalpenarekin amaitzeko…
Azalpena amaitzeko…

↓ Bilerarekin jarraitu behar dugu orain.
Bilera egiten jarraitu behar dugu orain.

↓ Gai horrekin hasteko…
Gaia hasteko… / Gaiari hasiera emateko…

Salbuespen gisara, zifrak zenbaki jakin batez amaitu edo hasten direla adierazteko, *-(r)ekin* kasu-marka erabil daiteke:

1.250 zenbakia zerorekin amaitzen da.

~ Zonalde vs zona/gune/eremu/alde

Zonalde hitza ez dago jasota Euskaltzaindiaren hiztegian, eta, beraz, beste aukera batzuk erabili behar dira.

*Kontsultatu bizi zaren zonaldean zer baliabide edo laguntza-talde dauden.
Kontsultatu bizi zaren eremuan zer baliabide edo laguntza-talde dauden.

OHAR BATZUK ARGITASUNAREN BILA

Komunikazioa errazteko, testuak argiak izan behar dira, eta erraz irakurtzeko modukoak. Askotan, gaztelaniazko esaldi luze eta apainduen eraginez, euskaraz esaldi ilunak ematen dira.

Dio fin a la reunión.
↓ Bilerari amaiera eman zion.
Bilera amaitu zuen / Bilera amaitutzat eman zuen.

Atal honetan, testuetako halako korapiloak askatzeko zenbait ohar biltzen dira:

~ Galdegaia, esaldiaren ardatz

Euskararen joskeran, inguruko erdal hizkuntzetan ez bezala, esaldiko osagaien ordena ez da zurruna. Esaldi neutroetan, SOA (subjektua, osagarriak, aditza) ohiko hitz-hurrenkera erabili behar da, baina, bestelakoetan, hau da, funtzio informatibo bat azpimarratu behar bada, galdegaia markatu beharko da, aditzaren aurrean gehien-gehienetan (salbuespenak egon badaude).

Pazientea espezialistaren kontsultara heldu da. [NEUTROA]
Pazientea berandu heldu da espezialistaren kontsultara. [BERANDU = GALDEGAIA]

Galdegaia, aditzaren aurretik adierazteaz gain, komeni da esaldian ahalik eta lasterren ematea, hau da, aditzaren atzerakarga saihestea; horregatik, esan nahi denaren arabera, esaldiko elementuen ordena batera edo bestera aldatu beharko da askotan: aditza aurreratu, subjektua atzeratu, galdegai faltsuak erabili, mintzagaia atzeratu… Horrela testu ulerterrazagoak lortuko dira, eta mezua hobeto komunikatuko da.

↓ Gurasoek zaintzaile bat aurkitu bitartean aitona-amonak lanez ez itotzeko semea haurreskolara bidaltzea erabaki dute.
Gurasoek erabaki dute semea haurreskolara bidaltzea zaintzaile bat aurkitu bitartean, aitona-amonak lanez ez itotzeko.

↓ Erizain-laguntzaileak emakumeak goizean hartu nahi izan ez duen esnea bota egin du.
Erizain-laguntzaileak bota egin du emakumeak goizean hartu nahi izan ez duen esnea.

↓ Zaintzaileak hautagaiak azterketan iruzur egin duela ikusi du, argi eta garbi.
Zaintzaileak argi eta garbi ikusi du hautagaiak iruzur egin duela azterketan.

↓ Jardunaldian, odontologo euskaldunek Ameriketan garatutako teknika berri bat ezagutuko dute.
Jardunaldian, Ameriketan garatutako teknika berri bat ezagutuko dute odontologo euskaldunek.

Gai honen inguruan ñabardura asko egin daitezke, baina, atal honen helburua, izenburuak dioenez, ohar batzuk ematea denez, azalpen luzeagoak nahi izanez gero, irakurri Juan Garziaren *Esaldiaren antolaera: Funtzio informatiboak gako* liburua.

~ Esaldi laburrak

Albo-erdaretan, esaldiak euskaraz baino luzeagoak izaten dira, eta, euskaraz, egitura horiek kalkatzeko joera egoten da. Nolanahi ere, irakurgarritasuna errazteko, hala behar izanez gero, behar adina zatitan moztu behar dira esaldiak. Dena den, kontu handia eduki behar da esaldiak moztean eta zenbait gauza atzera pasatzean, oharkabean esanahia alda daiteke eta.

> El cese o la remoción supondrá el traslado a otro puesto funcional, manteniéndose en todo caso las condiciones propias de la categoría que como titular ostente el interesado, efectuándose la adscripción a puesto de las mismas características y preferentemente en el mismo ámbito organizacional y territorial que venía ocupando con anterioridad a su nombramiento. La adscripción tendrá efectos del día siguiente al de la fecha de cese y se efectuará conforme al procedimiento que se fije en Osakidetza.
> Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak titular moduan kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokienez.. Atxikipen horrek kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da.

~ Ezezko esaldiak

Ezezko esaldietan, ezezko partikula da galdegaia; beraz, horren inguruan eraiki behar da esaldia, EZ + laguntzailea + aditza egituran. Horrek esan nahi du esaldian ahalik eta aurreratuen eman beharko dela ezezkotasuna.

> ↓ Zalantzarik baduzu, galdetzeko beldur ez izan.
> Zalantzarik baduzu, ez izan galdetzeko beldur.

Bestalde, ezeztapenaren bidez ukatzen denak, hau da, ukagaiak, testuinguruaren araberako garrantzia izango du; beraz, zer esan nahi den, ogitarteko batean sartuko da EZ + laguntzailea + ukagaia + aditza egituran, edo kanpora aterako da.

> Ez da trenez etorri (autoz baizik).
> vs
> Ez da etorri trenez (itzuli bai, trenez itzuliko da).

~ Lehenbailehen adierazi zer-nolako lotura dagoen perpausen artean

Esaldiaren amaierara arte itxaron behar bada perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko lotura ikusteko eta esaldia luzea bada, esaldia ez da oso ulergarria izango.

↓ Osasun Ministerioak zorroztu egin ditu prebentzio-neurriak, bihartik aurrera, langile gehienak lanpostu presentzialetara itzultzen direnean, kutsatzeko arriskua handituko dela uste baitute.
Osasun Ministerioak zorroztu egin ditu prebentzio-neurriak, uste dutelako kutsatzeko arriskua bihartik aurrera handitu egingo dela, langile gehienak lanpostu presentzialetara itzultzen direnean.

Aditza aurreratzeaz gainera, perpausen arteko lotura lehenbailehen argi uzteko bide hauek erabil daitezke:

a) Elementu iragarleak.

Harik eta... arte [*arte* bakarrik jarri beharrean]

Baldin eta... ba- [*ba-* bakarrik jarri beharrean]

Nahiz eta... (-n) [*arren* baino argiagoa, aurretik jartzen delako]

Baizik eta... [amaieran *baizik* jarri beharrean]

Bai eta / Ez eta... ere

b) Esaldiak moztea eta bi esaldi egitea (koordinazioa, alborakuntza).

c) Lokailuak erabiltzea.

~ Aposizioen forma eta tokia

Jakina denez, aposizioak koma artean joan ohi dira, erreferentziako elementuaren kasu-marka berarekin:

Juan Diego Casalsek, Osakidetzako zuzendari nagusiak, aurkakoa esan du.

Baina badira beste modu batzuk ere:

Osakidetzako zuzendari nagusi Juan Diego Casalsek aurkakoa esan du.
Juan Diego Casals Osakidetzako zuzendari nagusiak aurkakoa esan du.
Juan Diego Casalsek —Osakidetzako zuzendari nagusia— aurkakoa esan du.

Dena dela, komarik edo gidoirik gabeko forma erabiltzea ez da beti oso argia, eta batzuetan zuzena ere ez da izaten.

Mendeko esaldi batean tarteki bat sartu behar denean:

*Juan Diego Casalsen, Osakidetzako zuzendari nagusiaren, arabera, langileen % 40k...
Juan Diego Casals Osakidetzako zuzendari nagusiaren arabera, langileen % 40k...

Esaldi oso luzeetan aposizioak sartu behar direnean:

↓ Lehen Mailako Arretarako Aholku Batzordearen barruan sortutako lantaldeak, joan den maiatzaren 27an Gasteizen bildurik, ontzat eman zituen administrazio-zeregin bakoitzean hartu beharreko birbanaketa-neurriei buruz María Luisa Díez Azurmendik, Debagoieneko ESIko zuzendari-gerenteak, Laura Bacigalupe Artachorekin, Debagoieneko ESIko Langileen zuzendariarekin, batera aurkeztutako proposamenak.
Lehen Mailako Arretarako Aholku Batzordearen barruan sortutako lantaldeak, joan den maiatzaren 27an Gasteizen bildurik, ontzat eman zituen María Luisa Díez Azurmendi Debagoieneko ESIko zuzendari-gerenteak eta Laura Bacigalupe Artacho Debagoieneko ESIko Langileen zuzendariak aurkeztutako proposamenak, administrazio-zeregin bakoitzean hartu beharreko birbanaketa-neurriei buruzkoak.

Galdegai den sintagmak ondoren aposizio bat duenean:

↓ Gizon bat, antzinako arropa dotorez jantzia, sartu da Larrialdietan.
Antzinako arropa dotorez jantzitako gizon bat sartu da Larrialdietan.

Beraz, kasu bakoitzean formarik egokiena zein den begiratu beharko da.

~ **Ez sartu tarteki luzerik berez oso lotuta dauden elementuen artean**

↓ Diagnostikoaren berri oftalmologoak egindako telefono-dei baten bidez zekien pazienteak.
Oftalmologoak egindako telefono-dei baten bidez zekien pazienteak diagnostikoaren berri.

~ **Saiatu etenik ez egiten: parentesiak eta gidoiak esaldiaren bukaeran jarri (edo perpausaren nahiz sintagmaren bukaeran)**

Parentesiak eta gidoiak tarteki indartuak dira, hau da, etenaldi handiagoa markatzen dute; horregatik, batzuetan, oztopo traketsa izaten dira jariotasunari begira, eta hobe izaten da perpausaren nahiz sintagmaren amaierara eramatea:

↓Batzorde berrian, erakundeen (Eusko Jaurlaritza, aldundiak...) eta Osakidetzaren ordezkaritzari eutsi egingo zaio, eta zabaldu egingo da osasungintzako ordezkarien kopurua.
Batzorde berrian, ordezkari kopuru bera izango dute Osakidetzak eta beste erakundeek (Eusko Jaurlaritza, aldundiak...), eta zabaldu egingo da osasungintzako ordezkarien kopurua.

~ Galdera luzerik ez, hobeto baieztapena + galdera laburra erabiltzea

↓Zure ustez, zergatik ditu, testuan esaten den bezala, gero eta pertsona gehiagok arazoak beste pertsona batzuekin harremanak izateko?
Testuan esaten den bezala, gero eta pertsona gehiagok ditu arazoak beste pertsona batzuekin harremanak izateko. Zergatik gertatzen da hori, zure ustez?

~ Nominalizazioa saihestea

Gaztelaniaz joera handia dago nominalizazioa erabiltzeko (izenak), bereziki maila jasoa erabili nahi denean; administrazio- nahiz zuzenbide-hizkeran batez ere. Euskaraz, ordea, ez dago horrenbesteko joerarik, eta ohikoagoa da aditzak erabiltzea, adibidez. Horregatik, hobe da beste estrategia batzuk erabiltzea:

Batzuetan, askoz ere naturalagoa da *-t(z)ea* aditz-izena erabiltzea, gaztelaniazko gehiegizko nominalizazioa egitea baino (esaterako, *-keta*, *-pen* eta *-kera* atzizkiez osatutako izenak erabiltzea baino).

↓Lanpostuen sorrera da neurri horien helburua.
Lanpostuak sortzea da neurri horien helburua.

↓Gailu medikoen instalakuntza eta erabilpena sustatu nahi dituzte.
Gailu medikoak instalatu eta erabiltzea sustatu nahi dute.

Beste batzuetan, *-t(z)ea* bere horretan erabiltzea ez da oso naturala; egokiagoa izaten da aditz jokatua ematea.

↓Behin betiko zerrendarekin batera, epaimahaiaren osaera jakinaraziko da.
Behin betiko zerrendarekin batera, epaimahaia nork osatuko duen jakinaraziko da.

↓Ez dugu egiaztatu bere funtzionamendua.
Ez dugu egiaztatu funtzionatzen duen.

Horrez gainera, arazo nabarmenak sortzen dira euskaraz, esaldi osoa eman beharrean aditza ezkutatzen denean. Hori, gainera, ez da gertatzen nominalizazioarekin bakarrik, aditzetatik eratorri gabeko izenekin ere gertatzen da. Izan ere, aditza ezkutuan bai, baina adizlagunen bat uzten da beti *[-(e)n, -(e)ra, -(r)ekin, -(r)entzat, -(r)en aurka, -(r)i esker* eta abar dituztenak dira adizlagunak], edota aditz-sintagmari dagokion beste elementuren bat (NORI zeharkako osagarria), eta horrek ez du natural jotzen. Egitura horiek naturalagoak izan daitezen, badira beste zenbait bide:

1. Adizlaguna izenlagun bihurtzea *-(e)ko* erantsiz:

   ↓Amaiari gutunak
   Amaiarentzako gutunak

   ↓Hasierako elkarrizketa gurasoekin
   Gurasoekiko hasierako elkarrizketa

2. Aditz-izena *[t(z)ea]* erabiltzea, aditzari atzizkia erantsiz sortutako izenaren ordez:

   ↓Ikuskaritza-elkarteei atal honen aplikazioa
   Ikuskaritza-elkarteei atal hau aplikatzea

3. Tartean erlatiboa sartzea (batzuetan, jokatua; beste batzuetan, jokatugabea):

   ↓Aplikatutako printzipio eta arauetan aldaketak
   Aplikatutako printzipio eta arauetan izandako aldaketak

4. Izenlaguna eta adizlaguna bereiztea:

   ↓Arau-hauste arinengatik zehapena
   Zehapena, arau-hauste arinengatik

5. Esaldia sortzea:

   ↓Gora jotzeko epearen irekiduraren jakinarazpena langileentzat
   Langileei jakinarazten zaie ireki dela gora jotzeko epea.

~ Erlatibo faltsuak

*IVAPeko estilo-liburua*n honela azaltzen da, hitzez hitz:

“Gaztelaniaz, erlatibozko kate luzeak egiten ditugunean ez da arazo handirik egoten mezua ulertzeko, erlatibozko erdal partikulek *(que, el cual, de quien, con el cual, a la que…)* erlatibozko mendeko perpausaren aurrean kokatuta, iragarle lana egiten dutelako. Baina, esaldi horiek hitzez hitz euskaratzen ditugunean arazo ugari izaten dugu mezua behar bezala ulertzeko, euskal erlatiboaren egituragatik.

Hori konpontzeko, geure hizkuntzaren baliabideak hartu eta esaldi horiek beste modu batera antolatu behar ditugu. Hona hemen gaztelaniazko erlatiboak ordezkatzeko zenbait aukera:

Esaldi soila (galdegaiaren laguntzaz)

Ese es el informe que explica detalladamente el actual estado de la cuestión.
↓Hori da gaur egungo egoera zehatz-mehatz azaltzen duen txostena.
Txosten horretan azaltzen da zehatz-mehatz gaur egungo egoera.

Izenlagunak

Todos los agentes que participan en la asociación deberán presentar una solicitud.
↓Elkarte honetan parte hartzen duten kide guztiek eskaera aurkeztu beharko dute.
Elkarteko partaide guztiek eskaera aurkeztu beharko dute.

Esaldia zatitu

Para introducir modificaciones que afecten a los datos básicos contenidos en el proyecto aprobado será necesario obtener la autorización correspondiente.
↓Onartutako proiektuan jasotako oinarrizko zehaztasunei dagozkien aldaketak sartzeko, ezinbestekoa izango da baimena lortzea.
Oinarrizko zehaztasunak onartutako proiektuan jasotzen dira. Zehaztasun horiek aldatzeko, ezinbestekoa izango da baimena lortzea.

Koordinazio kopulatiboa

No se admitieron aquellas solicitudes para tomar parte en los exámenes de perfiles lingüísticos que no estaban debidamente cumplimentadas.
↓Ez genituen onartu hizkuntza-eskakizunetako azterketetan parte hartzeko oker betetako eskabideak.
Hizkuntza-eskakizunetan parte hartzeko eskabide batzuk gaizki beteta jaso genituen, eta ez genituen onartu.

Baldintzazkoa

No se admitirán aquellas solicitudes para tomar parte en los cursos organizados por el IVAP que no estén debidamente cumplimentadas.
↓Ez dira onartuko IVAPek antolatutako ikastaroetan parte hartzeko oker betetako eskabideak.
Ez dira onartuko IVAPek antolatutako ikastaroetan parte hartzeko eskabideak, baldin eta oker beteta badaude.

Koordinazio adbertsatiboa

Las bases han sufrido modificaciones que no le acarrearán cambios en su nivel.
↓Maila-aldaketa ekarriko ez dizun oinarri-aldaketa egin dute.
Oinarriak aldatu dituzte, baina horrek ez dizu maila-aldaketarik ekarriko.

Azalpenezko perpausa

Dejemos que hable el señor Asla, que es quien tiene cosas interesantes que contar.
↓Utz diezaiogun berri interesgarri asko kontatzeko dituen Asla jaunari hitz egiten.
Utz diezaiogun hitz egiten Asla jaunari, berri interesgarri asko kontatuko baititu.

Helburuzkoa

Para cada área el director nombrará un responsable que se encargará de dar solución a los problemas puntuales.
↓Arlo bakoitzerako zuzendariak unean uneko arazoei irtenbide egokia emango dien arduradun bat izendatu du.
Zuzendariak arduradun bat izendatu du arlo bakoitzerako, unean uneko arazoei irtenbide egokia emateko.

Denborazko / baldintzazko perpausak

No se tendrán en cuenta aquellas propuestas sobre medidas correctoras que no respeten la legalidad vigente.
↓Indarrean dauden legeekin bat ez datozen neurri zuzentzaileei buruzko proposamenak ez dira kontuan hartuko.
Ez dira kontuan hartuko neurri zuzentzaileei buruzko proposamenak, baldin eta indarrean dauden legeekin bat ez badatoz.

Horrelakoetan, dena dela, kontu handiz ibili beharra dago ordenarekin (batez ere itzulpenetan), arriskua baitago aurretik baieztapen biribilegiak emateko.

Zehar-galdera

Es conveniente conocer de antemano el lugar en que van a realizarse las pruebas de selección de personal.
↓Hautaketa-probak izango diren tokia aldez aurretik ezagutzea komeni da.
Komeni da aldez aurretik jakitea hautaketa-probak non izango diren.

EUSKARA INKLUSIBOA

EUSKARA EZ-SEXISTA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaiaren garrantzia handitzen joan da, eta argi dago auzo-erdaretan —gaztelaniaz eta frantsesez—, besteak beste, zeresana ematen duela genero-hizkuntzak direlako. Esaterako, askotan maskulinoa erabiltzen da generiko gisa. Euskaraz, genero-hizkuntza ez bada ere, badaude hainbat aspektu "generoz" tindatuta daudenak, eta horien gainean gogoeta egitea merezi du. Izan ere, generoa presente dagoen eremuetan zenbait arazo sortzen dira.

~ Generoa aditzean

Euskarak aditzean generorik ez izan arren, hitanoa erabiltzen denean markatzen da nori zuzentzen zaion. Arazoa noiz sortzen da? Bada, genero batek baino gehiagok osatutako taldeari zuzentzean edo hartzailea nor den jakiten ez denean. Hori konpontzeko, zuka erabil daiteke, edo beste aditz-forma batzuk.

~ *Gizona* hitza eta *Giz* erroa

Emakumeak eta gizonak barnean hartzen dituen multzoa izendatzeko, batzuek *gizon* hitza erabiltzen dute, baina genero-markarik ez duen forma erabili behar da: *gizakia*.

Horrez gain, hainbat hitzek hartzen dute osagai hori (*legegizona*, *itsasgizona*, *elizgizona*, eta abar). Hitz konposatu horiek egokiak izango dira esanahi espezifikoa dutenean (alegia, gizonezko batez ari garenean), baina, generikoan, osagaia aldatu egin beharko da, eta *-ari* atzizkia erantsi edo *pertsona*, *langile* eta abar erabili: *legelaria, enpresaria, itsas-langilea* edo *itsastarra*, eta abar.

Nolanahi ere, aurrekoaren ildotik, baten batek esan lezake *gizaki* eta *gizarte* hitzek ere *giz* dutela erroan (alegia, *gizon* hitzari lotutako erroa), baina gaur egun *giza* ez da gizonarekin lotzen, gizon-emakumeen espeziearekin baizik.

~ Generoa daukaten izenak

Euskaraz, hainbat izenek badaukate generoa *(emakumezkoa, andrea, andregaia, emaztea, ama, izeba, neska... / gizasemea, gizonezkoa, senarra, aita, aitona, senargaia).* Arazoa hitz horien plurala edo generikoa erabiltzean sortzen da.

*Zenbat seme dituzu?
Zenbat seme-alaba dituzu?

*Senar-emazte direnek eskatu ahalko dute.
Ezkontide direnek eskatu ahalko dute.

*Ume guztien aiten baimena behar da.
Ume guztien gurasoen baimena behar da.

~ Anaia hitzaren eratorriak

Anaia hitza bera maskulinoa izan arren, bere eratorriak generiko gisa erabiltzen dira askotan: *anaitasuna, anaiartea*, eta abar. Hitz horiek saihestekoak dira, *senidetasun*, *elkarte* eta halako hitz neutroagoen alde.

~ Asimetria mezuetan

Etengabe gertatzen da asimetriaren fenomenoa, baina haren gakoa ez da hizkuntza, mezuen edukia baizik, eta erabat saihestekoa da. Esaterako, emakumeen gauza batzuk azpimarratzen dira, eta maila bereko gizonen beste batzuk.

*Ilaski Serrano ederra eta Kike Amonarriz aurkezle bikaina etorri dira jardunaldia aurkeztera.
Ilaski Serrano eta Kike Amonarriz aurkezle bikainak etorri dira jardunaldia aurkeztera.

Eta, beste batzuetan, emakumeak gizonekiko duten harremanaren arabera izendatzen dira:

*Gidoia Jérémie Elkaïm-ek eta bere emazteak idatzi dute.

~ Premiazkoak ez diren estrategiak

Genero gramatikala daukaten hizkuntzek hainbat estrategia erabiltzen dituzte maskulino generikoa saihesteko (adibidez, gaztelaniaz: *los y las enfermeras > el personal de enfermería; los profesores > el profesorado; los interesados > la persona interesada)*. Euskaraz, ordea, halakoak ez dira beharrezkoak maskulino generikorik ez dagoelako.

El profesorado de la Escuela Universitaria de Enfermería hará huelga la semana que viene.
↓Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasleriak greba egingo du datorren astean.
Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasleek greba egingo dute datorren astean.

El personal de enfermería realiza una exploración antes de decidir la intervención.
↓Erizaintzako profesionalek miaketa bat egiten dute esku-hartzea erabaki aurretik.
Erizainek miaketa bat egiten dute esku-hartzea erabaki aurretik.

La persona interesada recibirá una notificación.
↓Pertsona interesdunak jakinarazpen bat jasoko du.
Interesdunak jakinarazpen bat jasoko du.

~ **Pertsona transgenero, transexual eta trabestiak. EHUk prestatutako *Euskararen erabilera inklusiboa* gidan oinarrituta, irizpide batzuk bildu dira Osakidetzan aplikatzekoak:**

- Pertsonei erreferentzia egitean, haien genero-identitatea errespetatu behar da, eta ez dira jaiotzean ezarritako sexuaren arabera izendatu behar.

- Argi identifikatu behar da zer den transexual, transgenero eta trabesti izatea. Euskaltzaindiak eta *Feminismoa eta Berdintasun Hiztegia*k honela definitzen dituzte:

  - TRANSGENERO: jaiotzean ezaugarri biologikoen arabera esleitu zaion generoarekin identifikatzen ez den pertsona.

  - TRANSEXUAL: jaiotzean ezaugarri biologikoen arabera esleitu zaion generoaren aurkakoarekin identifikatzen den pertsona.

  - TRABESTI: beste sexukoen janzkera eta jarrerak hartzen dituen pertsona.

- Ezin da esan norbait *transexuala, trabestia, transgeneroa* dela. Chrysallis haur transexualen senideen elkarteak azaldu duenez, *transexual* eta beste hitzok izenondoak dira; hortaz, izen baten atzean joan behar dute (*pertsona*, *haur*, *gazte*… *transexuala*).

- Ebakuntzaren bidez ez da *sexu-aldaketa* egiten; kirurgiak ez du aldatzen pertsonen sexu-identitatea, anatomia baizik. Horregatik, hobe da *sexua berresleitzeko kirurgia* edo *generoa berresteko ebakuntza* esatea.

- Ginekologiaren eta obstetriziaren esparruan, uteroarekin erlazionatutako gaiak direnean (uteroko baheketa-programetan, esaterako), *uteroa duten pertsonak* erabiliko da beti.

DESGAITASUNAK HIZPIDE

EHUren Euskararen erabilera inklusiboa gidatik ateratako ideietan oinarrituta, hausnarketa hau ere proposatzen da:

~ *Desgaitasunak dituzten pertsonak* adierazpidea erabiltzea gomendatzen da, *desgaitua* izen huts gisa erabili beharrean, hau da, *pertsonak* terminoa beti jartzea. Izan ere, desgaitasuna ez da pertsonari gertatzen zaion zerbait, baizik eta ezaugarri partikularrak dituen pertsona baten eta beraren ingurunearen arteko emaitza.

~ *Minusbaliatu* (minusbaliatasuna), *ezindu* (ezintasuna), *elbarri*, *ezgaitu* eta gisa bereko adierazpideak ez dira egokiak, bai konnotazio peioratibo nabariak dituztelako eta bai zentzua ondo islatzen ez dutelako.

~ Ildo beretik, ez dira erabili behar *minusbaliatuentzako komunak*, *minusbaliatuentzako aparkalekuak* eta antzeko esapideak. Desgaitasuna duten pertsonek erabiltzeko egokitutako zerbitzu horiek aipatzeko, egokiagoa eta zuzenagoa da *komun* edo *aparkaleku irisgarriak* esatea.

~ Desgaitasunik ez duten pertsonak aipatzeko, ez da erabili behar *normal* terminoa. Hobe da *desgaitasunik gabekoa* adierazpidea erabiltzea.

~ Bestalde, desgaitasunari buruzko ikuspegi alternatibo bat azpimarratu nahi denean, beste termino batzuk erabili ahal dira: dibertsitate funtzionala, bestelakotasun funtzionala edo bestelako gaitasuna (*diversidad funcional,* gaztelaniaz).

~ Ez dira inolaz ere desgaitasuna eta mendekotasuna nahasi behar, batak ez dakar berekin bestea. Mendekotasuna egoera bat da, eta desgaitasunen bat daukaten pertsonek ez dute zertan mendekotasun egoeran egon.

~ Azkenik, aurreiritziak eta ikuspegi paternalistak alboratu behar dira.

OSASUN MENTALAZ

Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak estigma batekin bizi ohi dira (baita autoestigma batekin ere). Zama handia da hori, estereotipo eta aurreiritzi faltsuz betea, eta ezinbestekoa da halako arazoak dituztenekiko tolerantzia, errespetua, euren burua onartzea eta benetako integrazioa lortzea. Oso garrantzitsua da osasun mentalaz ari garenean hitz egokiak erabiltzea eta osasun mentalaren zainketa bultzatzen duen informazio positiboa ematea.

Ildo horretatik, oso interesgarria da Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioak argitaratutako *Osasun Mentalaren gainean komunikatzeko estilo-gida.* Hona hemen dokumentu horretan aipatzen diren gomendio adierazgarri batzuk:

~ Osasun mentaleko gaixotasunen bat duten pertsonei buruz hitz egitean, alde batera utzi behar dira aurreiritziak eta ikuspegi paternalistak. Ez dira biolento edota oldarkorrak osasun mentaleko arazoak dituztelako; ez dute nortasun bikoitzik; lan egin dezakete eta lagunak dituzte, beste guztiok bezala.

~ Ez dira ezinbestean gaixotasun mentalak eta desgaitasuna lotu behar, ezta gaixotasun mentalak eta mendekotasuna ere. Gaixotasun mentala duten batzuek, nozitzen duten gaixotasunaren ondorioz, desgaitasuna edota mendekotasuna izan dezakete, baina ez da egokia orokortzea. Beraz, ez dira *desgaitu* edo *mendeko* hitzak erabili behar nahasmendu mentalak dituzten pertsonei erreferentzia egiteko.

~ *Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak* edota *nahasmendu mentala duten pertsonak* adierazpideak erabiltzea gomendatzen da, *gaixo mentalak* erabili beharrean; hau da, hobe da *pertsonak* terminoa beti jartzea. Izan ere, *gaixo mentalez* hitz egitean pertsonaren ezaugarri bakarrera mugatzen da arreta, pertsonengan zentratu beharrean.

~ Horrez gain, *gaixotasun mental* terminoak neutroa badirudi ere, pertsonari leporatzen zaizkion estereotipo negatibo asko dakartza berekin. Hori dela eta, hobe da *osasun mentaleko arazo* edo *nahasmendu mental* terminoak erabiltzea.

~ Hiztegian jasotako esanahiaz harago, hobe da gaixotasunaren izena pertsonari erreferentzia egiteko substantibo gisa erabiltzea, nahasmenduak ez baitu definitzen pertsona. Hau da, ez dira *eskizofreniko, anorexiko, depresibo* eta antzeko hitzak erabili behar pertsonak definitzeko:

> ↓Eskizofrenikoa oihuka atera zen gelatik, irainka.
> Eskizofrenia zuen pazientea oihuka atera zen gelatik, irainka.
>
> ↓Anorexikoarekin hitz egin zuten.
> Anorexia duen mutilarekin hitz egin zuten.

~ Halako arazoak dituzten pertsonak osasun mentaleko zentroetara joaten dira, ospitale psikiatrikoetara, ospitaleko psikiatria-zerbitzura, eguneko ospitaleetara edota errehabilitazio-zentroetara. Zentro horiei buruz hitz egiteko ez erabili **eroetxe* eta **zoroetxe* hitzak.

ZAHARTZAROAZ MINTZO

Gaur egun ez dago irizpide bateraturik nahikoa adin duten pertsonak izendatzeko; izan ere, ez dago zehaztuta zer den *nahikoa adin izatea.* Askotan, erretiroa hartzeko garaiarekin parekatzen da adin hori (gurean, 65 urte ingururekin). Dena den, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak argitaratutako *Adinekoak eta Hedabideak Bizkaian* txostenean egoki azaltzen den bezala, "adinekoak izateko garaiaren hasieratzat hartutako 65 urteko muga hori orain dela mende bat baino gehiago ezarri zen, eta, beraz, ezin izan dezake esanahi bera orain eta mende bat lehenago. Datozen hamarkadetan ere ez dira esanahi berekoak izango".

Zahartzaroa bera nahiko subjektiboa da, pertsonaren araberakoa. Horregatik, bizitzaren garai horretan daudenei buruz hitz egitean pertsona guztiak barne hartzeko eta bazterketarik ez egiteko, gomendio hauek proposatzen dira Osakidetzarako, aipatutako txostenean azaltzen denaren ildo beretik:

~ Zahartzea mundu guztiak bizi duen etengabeko prozesu bat da, eta bakoitzari modu batean eragiten dio; beraz, zahartzaroa ez da hasten 65 urte betetzean.

~ Zahartzea ez da gaixotasun bat; beraz, ez dira adina eta mendekotasuna lotu behar. Mendekotasuna egoera bat da, ez izaera bat, eta, gainera, mendekotasun-egoerak haur, gazte eta helduengan ere gerta daitezke.

~ Beharrezkoa ez bada, hobe da pertsonen adina ez kalifikatzea. Besteak beste, *70 urteko adinekoa* esan beharrean, askotan nahikoa da *70 urteko pertsona* esatea.

~ Nahikoa adina duten pertsonak definitu beharra badago, Osakidetzan *adinekoak*, *adinduak* edota *(pertsona) nagusiak* hitzak hobesten dira, ez *zaharrak.*

~ Aipatu bezala, askotan, zahartzaroa lanarekin lotzen da, baina ez da egokia, eta, horregatik, hobe da adineko jendea izendatzeko *jubilatuak, erretiratuak* edo *pentsiodunak* hitzak ez erabiltzea.

~ Horrez gain, batzuetan, gaztelaniazko *tercera edad* eufemismoa euskaratu nahian, *hirugarren adina* esaten zaio zahartzaroari euskaraz. Hobe da halakoak ez erabiltzea.

~ Komeni da konnotazio paternalistak ez erabiltzea, hala nola *gure nagusiak, aitona-amonak,* etab. Izan ere, maitekiro erabiltzeko asmoarekin bada ere, ez datoz bat adineko pertsona helduarekin eta beren burua gobernatzeko gaitasunarekin.

ADMINISTRAZIO-TESTUAK

Hizkera berezitua da administrazio-testuetakoa. Auzo-erdaretan, oso finkatuta daude esamolde eta fraseologia espezializatuak, baina euskara nahiko sortu berria da arlo honetan, eta ez dago tradizio luzerik. Azken urteotan, ahalegin handiak egin dira euskarazko hizkera administratiboa eta juridikoa finkatzeko bidean, eta baliabide ugari bildu dira testugileak ataza horretan laguntzeko. Besteak beste:

1) *IVAPeko estilo-liburua*

2) *IZOren itzulpen-irizpideak*

3) *Idaba datu-basea*

Hizkera juridiko-administratiboak tonu formala du, eta estilo oso zorrotza. Esan bezala, euskara nahiko hasiberria da bide honetan, eta, estandarizazio-ezagatik, hizkuntzen arteko interferentziengatik eta bestelako arrazoiengatik, estilo-arazoak sortzen dira askotan. Ezin ahaztu daiteke administrazioko eta zuzenbideko hizkuntzak herritarrekin komunikatzeko bide bat direla, eta, hortaz, ezinbestekoa dela, zuzena eta zehatza izateaz gain, argiak izatea.

Aipatutako baliabideez gain, hona ekarri nahi izan dira Osakidetzako dokumentu administratiboetako testugileei edo itzultzaileei laguntzeko zenbait puntu.

ADMINISTRAZIO-TESTUEN ZENBAIT BEREZITASUN

Azaldu bezala, administrazioko hizkerak baditu berezitasun terminologiko eta sintaktikoak. Atal honetan, zalantzazko puntu eta ohiko akats batzuk bildu dira, euskarazko testu administratiboak idazten laguntzeko.[2]

~ Aditza amaieran?

Administrazio-testu luze eta korapilatsuei begira, ahal dela, aurrera ekarri behar dira testuko ideia nagusiak. Ildo horretatik, bereziki gomendagarria da Juan Garziaren *Aditza amaieran?* artikulua eta, artikuluaren barrenean, "Aditza amaieran ez kokatzeko joera duten esaldi mota batzuk" atala.

[2] Patxi Petrirenak EIZIErekin emandako "Administrazioko testugintzaren lantegia" ikastaroan (2019) emandako apunteetan oinarrituta.

~ *Administrazio* hitza

Osakidetzako testuetan *administrazio publikoa* terminoa erabiliko da eta ez *herri-administrazioa*. Bestalde, gaztelaniazko testuen eraginagatik, zaila izaten da erabakitzea *administrazio* hitza letra larriz edo xehez idatzi behar den. Botere-antolamendu baten (estatua, autonomia-erkidegoa, probintzia...) edo haren mendeko zerbitzu publikoak adierazteko termino generikoa da. Bakarrik doala, letra larriz hasita idazten da.

Hori Administrazioaren erabakia da.

Modu generikoan erabiltzen denean, berriz, letra xehez idazten da.

Tokiko administrazioen modernizazioa

~ Aditz-lokuzioak

Aurretik aipatutako aditza aurreratzeari lotuta dago aditz-lokuzioen kontu hau; izan ere, aditz-lokuzioen kasuan, lehen elementua har daiteke galdegai gisa, eta, hortaz, aditza aurreratu.

Hitz egokia da, besteak beste, *ahalbidetu*, eta jasota dago *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n. Aldiz, horrek ez du esan nahi abantaila daukanik beti (modan dagoela baitirudi) *aukera eman* esapidearen aldean.

Mangols-en bidaia aplikazioak haurren gehiegizko pisua eta obesitatea lantzea ahalbidetzen du.
Mangols-en bidaia aplikazioak aukera ematen du haurren gehiegizko pisua eta obesitatea lantzeko.

Eredu berdinekoak dira, besteak beste, *lizitatu-lizitaziora* atera eta *argitaratu-argitara eman* aditzak.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko ESIak Oriako Zentro Terapeutiko Edukatiboko beheko solairua berritzeko lana lizitatuko du, 1,8 milioi euroan.
Gipuzkoako Osasun Mentaleko ESIak lizitaziora aterako du Oriako Zentro Terapeutiko Edukatiboko beheko solairua berritzeko lana, 1,8 milioi euroan.

Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuak 2018ko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak argitaratu ditu Osakidetzaren webguneko Enplegu Publikorako Eskaintza (EPE) atalean.
Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuak argitara eman ditu 2018ko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak, Osakidetzaren webguneko Enplegu Publikorako Eskaintza (EPE) atalean.

~ Afectado/a

Administrazio-testuetako *la persona afectada/interesada* terminoari dagokionez, Euskalterm Terminologia Banku Publikoan, *ukitu eta interesdun* eman dira *afectado* terminoaren ordainetan. Biak dira egokiak, eta erabiltzekoak.

Ukitu (4), interesdun (4).

Tratatu beharreko datu pertsonalen titularra den pertsona fisikoa.

es: afectado, interesado

fr: personne concernée

en: data subject

[Datu-babesaren Hiztegia] [2009]

(Kontuz: honek ez du balio *la persona afectada por una enfermedad* gisakoak itzultzeko. Horretarako, *gaixotasuna izan/eduki, gaixotasunak jo* eta halakoak erabili behar dira).

~ Agotar la vía administrativa

IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) argitaratutako *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuan azaldutakoaren arabera, honela itzuli behar da hau:

agotar la vía administrativa > administrazio-bideari amaiera eman / administrazio-bidea amaitu

~ Ajustado a derecho

IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) argitaratutako *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuan azaldutakoaren arabera, honela itzuli behar dira hauek:

ajustado a derecho > zuzenbidearen araberakoa

no ajustado a derecho > zuzenbidearen kontrakoa

~ Aldizkari ofizialen izenak

IZOren *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuaren arabera, aldizkari ofizialak honela aipatu behar dira: lehenengo, data; gero, aldizkari ofizialaren izena; bukatzeko, zenbakia.

BOPV número 130 de 3 de julio de 2011
2011ko uztailaren 3ko EHAA 130. zk.

~ Betiere vs beti ere

Gaztelaniazko *siempre y cuando* adierazteko *betiere* hitza erabili ohi da. Hala ere, ohar batzuk egin behar dira hitz horren inguruan. *Beti ere* eta *betiere* forma biak existitzen dira euskaraz, baina esanahia ez da berbera. *Beti ere* sintagmak *beti + ere* esan nahi du, hitzez hitz. *Betiere* hitzak, ordea, hiru esanahi eduki ditzake: batetik, *beti* eta *baldin eta* adizlagunak eta, bestetik, *nolanahi ere* lokailua. Horrez gain, kontuan izan behar da lokailu forman erabiltzean koma artean idaztea komeni dela.

> Betiere egongo naiz zure kezkak entzuteko prest.
>
> Jende gutxi etorri zen aurkezpenera, baina, betiere, hasi egin ginen.
>
> Epaimahaiak lanpostua hutsik uztea proposa dezake, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

~ Datu pertsonalei buruzko eskubideei erreferentzia egitea

IZOren *Itzulpen-* eta *Berrikusketa-irizpideak* dokumentuaren arabera, Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren arabera herritarrek dituzten eskubideei buruzko oharrak edo aipamenak sartzean, eredu honetan oinarritu behar da:

Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, así como la limitación u oposición a su tratamiento, enviando comunicación escrita en este sentido a… > Interesdunek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko eta eramateko, bai eta beren datuen tratamendua mugatzeko nahiz tratamenduaren aurka egiteko ere. Eskubide horiek baliatzeko…

~ Eficacia, eficiencia eta efectividad

IZOren *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuak honako hau dio termino horiei buruz:

“Zuzenbidearen eremuan, botere publikoen jardunaren bi printzipio aipatzen dira sarri: alde batetik, *eficacia*, ezarritako helburuen eta lortutako emaitzen arteko erlazioa adierazteko, eta, bestetik, *eficiencia*, lortutako emaitzen eta erabilitako baliabideen arteko erlazioa adierazteko. *Eficacia/eficiencia* bikotearekin batera, beste printzipio bat ere aipatzen da zenbaitetan: *efectividad* delakoa, zeina erabiltzen baita, alde batetik, *eficacia* eta *eficiencia* terminoen batura adierazteko, eta, bestetik, egintza juridikoak berez duen baliozkotasuna eta ondorioak sortzeko gaitasuna adierazteko”.

eficacia > efikazia

eficiencia > efizientzia

efectividad > eraginkortasun

~ en nombre y representación

IZOren *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuaren arabera, honela eman behar da:

en nombre y representación > -en izenean eta hura ordezkatuz

~ En todo caso

Anbiguoa izaten da askotan, gaztelaniaz bi baliorekin erabiltzen delako: bata, *sin embargo* esanahia daukana, eta, bestea, *en todos los casos* esanahia duena. Bigarren horrek sortzen ditu arazorik handienak, ez baitira egokiak hori itzultzeko *nolanahi ere* eta *edozelan ere*. Hona hemen Espainiako Ministro Kontseiluak 2009an sortutako *Comisión de Modernización del Lenguaje Jurídico* lantaldearen *El lenguaje escrito* txostenetik ateratako azalpen laburtua.

"Frente a ese uso corriente de *en todo caso*, presente en el lenguaje jurídico, pero también en la lengua común, existe un empleo de *en todo caso* específico en el discurso del Derecho (Reig 2001), que funciona como sinónimo de *siempre, en todos los casos*".

Hortaz,

En todo caso (= sin embargo) > nolanahi ere / hala ere…

> Hegoa, el Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional, deberá cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones: […]
> Hegoa Nazioarteko Garapenari eta Lankidetzari buruzko Azterlanen Institutuak, nolanahi ere, honako betebehar hauek hartu beharko ditu: […]

En todo caso (= siempre) > beti / betiere…

> En los supuestos de personal en activo, la restitución del pago indebido se realizará de oficio por el órgano administrativo competente mediante la compensación en las sucesivas nóminas del personal afectado, respetándose, en todo caso, la cantidad equivalente al salario mínimo interprofesional mensual.
> Jarduneko langileen kasuan, eskumena duen administrazio-organoak ofizioz itzuliko du bidegabeko ordainketa, eraginpeko langileen hurrengo nominetan konpentsatuz; betiere, hileko lanbide arteko gutxieneko baliokidea den zenbatekoa errespetatuko da.

~ Encomienda de gestión

IZOren *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuaren arabera, "*Kudeaketa-gomendio* hobesten dugu, baina egia da testu barruan oso ondo etor litekeela *kudeatzeko gomendio*; hori dela eta, biak ontzat hartzen ditugu: *kudeaketa-gomendio* eta *kudeatzeko gomendio*. *Encomendar* esateko *gomendatu* egitea aholkatzen dugu, baina beste batzuk ere onargarriak dira: (*kudeaketa-)gomendio egin*, *(kudeaketa-)gomendio eman, -en gomendio utzi…"*, eta, jarraian, hauek erabiltzea proposatzen du:

encomienda de gestión > kudeaketa-gomendio

encomendar > gomendatu

actividad encomendada > gomendatutako jarduera

órgano encomendante > (kudeaketa-)gomendioa egi(te)n duen organo

órgano encomendado > (kudeaketa-)gomendioa jaso(tzen) duen organo

~ Entrar en vigor > *indarrean sartu / indarrean jarri

Lege, debeku eta aginduak *indarrean jarri* egiten dira, nahiz eta gaztelaniaz *entrar en vigor* esan. Euskaraz ez da gauza bera *indarrean jarri* eta *indarrean edo indarrez sartu,* hau da, indar eginez edo behartuta. Sarri ikusten da **indarrean sartu*, baina erabilera zalantzazkoa izan daitekeelakoan, *indarrean jarri* erabiltzea hobesten da.

> Legea 2019ko urriaren 11n jarriko da indarrean.

~ Enumerazioak

EHAAn argitaratzeko irizpideekin bat etorrita, dekretuen enumerazioak, oinarriak eta bestelakoak idatzizko ordinalaren bidez adierazten direnean, 1.a aipatzeko, *Lehenengoa* erabiliko da beti, eta ez **Lehena.*

Horrez gain, enumerazioak zenbakiz zein idatziz adierazten direnean, zenbaki ordinalaren ostean marra erabiliko da beti (KTRL + minus numerikoa).

Seigarrena.– Lehiaketaren atalak. Lehiaketak hiru atal izango ditu. Hiru atal horietan baloratuko dira memoria-proiektua eta defentsa, bestelako merezimenduak eta euskararen ezagutza. 1.– Kudeaketaren memoria-proiektua eta defentsa. Izangaiei banaka deituko zaie, gutxienez 10 egun lehenago, kudeaketa-proiektuaren defentsa jendaurrean egiteko, eta adieraziko zaizkie probaren data, lekua eta ordua.	Sexta.– Fases del procedimiento. El concurso constará de tres fases en las que se valorarán en la Memoria-Proyecto y su defensa, otros méritos y el conocimiento del euskera. 1.– Memoria-Proyecto de gestión y defensa del mismo. Los/as aspirantes serán convocados para la defensa pública del proyecto de gestión con una antelación mínima de 10 días, con indicación de fecha, lugar y hora de intervención de los aspirantes.

Koherentzia mantentze aldera, gainera, berdin jokatuko da instrukzioetan, ebazpenetan eta gainerako administrazio-testuetan.

~ Helbideak (testu barruan)

Helbideek formatu hau eduki behar dute testu barruan aipatzen direnean:

Kale Nagusia 62, 4. ezk., 48011 Bilbo, Bizkaia

~ Hutsen zuzenketa vs huts-zuzenketa

IZOren *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuak dioenaren ildotik, Osakidetzaren testuetan *huts-zuzenketa* terminoa erabiliko da.

~ Kaltetu vs kalte egin

Kaltetu hitza, Euskaltzaindiaren gomendioen arabera, ezin da erabili **kaltetu du* erregimenean. Beraz, *kaltetu da* forman eta *kaltetua* burutu gisa soilik erabili ahal da. Hona hemen *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* definizioa:

kaltetu, kalte/kaltetu, kaltetzen

1 *da* ad. Zerbaiti edo norbaiti kalteren bat heldu. *Autoa kaltetu zitzaigun.* ǁ (Partizipio burutua izenondo gisa). *Gauza kaltetua ontzat saldu. Baserritar kaltetuak.*

2 ad. [Oharra: Euskaltzaindiak, *kaltetuk* euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, hitz hori 'kalte egin' adieran ez erabiltzea gomendatzen du; ik. kalte egin].

Urak kalteak eragin ditu liburutegian. Beraz, liburuzainaren ordenagailua kaltetu da. Liburuzainaren ordenagailu kaltetua Garbigunera eramango dugu. Beste bat erosi arte, liburuzainak ez du ordenagailurik, eta horrek kalte egin dio zerbitzuari.

~ Kataforak *(honako hau)*

IZOren *Itzulpen-* eta *Berrikusketa-irizpideak* dokumentuak dioenaren ildotik, Osakidetzaren testuetan kataforak emateko, *(XXX) hau(ek)* formula erabiliko da, eta *honako (XXX) hau(ek)* formula ere ontzat emango da, baina ez dira erabili behar *ondorengo/ondoko/hurrengo hau(ek)* formulak.

↓Izangaiek ondorengo irizpideak bete beharko dituzte:
Izangaiek irizpide hauek bete beharko dituzte:
Izangaiek honako irizpide hauek bete beharko dituzte:

~ Kontratua egin vs burutu vs exekutatu/egikaritu

Celebrar contrato > kontratua egin

Parteek kontratua bera adostean datza.

Perfeccionar contrato > kontratua burutu

Kontratua burutzen da hura existitzen den eta indarrean jartzen den unean. Une horretatik aurrera, loteslea izango da sinatzaileentzat.

Ejecutar contrato > kontratua exekutatu/egikaritu

Kontratua betetzean datza. Hona hemen *Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren definizioa:

Exekutatu

2 *du* ad. *Zuz.* (Aginduak, epaiak eta kidekoak) gauzatu, bete. Ik. egikaritu. *Epaia exekutatzea dagokion epaileak edo auzitegiak zehaztuko du dagokion kalte-ordaina.*

~ Kontratuaren objektua vs xedea

Oskar Aranak EIZIEren *31 eskutik* blogean argitaratutako "*Objxedeak eta beste*..." artikuluan azaltzen den bezala, gaztelaniaz adiera bakarrarekin eman ohi den *objeto* hitzak badu polisemia moduko bat, eta, testuinguruaren arabera, *kontratuaren objektua edo kontratuaren xedea* erabili behar da.

Objeto del contrato zentzu materialean aipatzen denean, hau da, kontratuak erreferentzia egiten dionari buruz ari denean, *kontratuaren objektua* hitza erabili behar da; izan ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren arabera, objektuak gauzakia izan nahi du.

Aldiz, zentzu teknikoan erabiltzen denean, hau da, kontratuak sortzen dituen eskubide eta betebeharren multzoari egiten dionean erreferentzia, *kontratuaren xedea* da erabili beharrekoa.

~ Lehenengo vs lehen (artikulua, xedapena…)

IZOren *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuak dioenaren ildotik, lehenengoa zein lehena zuzenak izanda ere, Osakidetzaren testu administratiboetan *lehenengo* hobesten da (*Lehenengo xedapen gehigarria, Azken xedapenetako lehenengoa,* etab.).

~ Lege zatiak

Hauek dira lege zatiak:

Título	Titulua
Capítulo	Kapitulua
Sección	Atala
Artículo	Artikulua
Apartado	Apartatua
Letra	Letra
Número	Zenbakia

~ Legea egin vs legea garatu

Progresar eta *desarrollar* adierazteko erabiltzen da, ez besteetarako. Txostenak eta legeak, adibidez, lehenbizi egiten dira eta gero garatu egiten dira; hau da, zirriborroa egiten da, eta gero garatu. Legea *egin* egiten da, eta gero, tresnaren bat baliatuz (erregelamenduak, kasu), *garatu* egiten da.

~ Plegu motak

Plegu motak zein diren ezagutzea garrantzitsua da, itzulpen egokia emateko.

Pliegos de condiciones/prescripciones técnicas > Plegu tekniko

Plegu horiek zerbitzu teknikokoek egiten dituzte (zein material, zein ekipo…).

Pliegos de cláusulas/condiciones administrativas > Administrazio-klausulen plegu

Plegu horiek administrariek egiten dituzte (balorazioak, kostua…).

~ y/o

Erruz erabiltzen ari da *y/o* gaztelaniaz, gehien-gehienetan alferrik. Normalean aski litzateke *o* erabiltzea, *Real Academia Española*k (RAE) eta *Fundación del Español Urgentek* (Fundéu) diotenez. Euskaraz horren baliokidea ematean, pentsatzea komeni da ea mimetikoki *eta/edo* erabiliko den edo beste aukeraren bat dagoen: normalean aski da *edo* (bide batez: *edo* indartua da *edota*), eta batzuetan egoki izango da *eta*.

Casos en el ámbito familiar y/o convivientes
↓Familiako edo/eta bizikideen arteko kasuak
Familiako edo bizikideen arteko kasuak

~ Xedapenak

IZOren *Itzulpen-* eta *Berrikusketa-irizpideak* dokumentuaren arabera, xedapenak honela eman behar dira: "*xedapen gehigarria, xedapen iragankorra, hirugarren xedapen indargabetzailea eta azken xedapena*. Baina, ordinala ezarriz gero, honela eman beharko ditugu: *lehenengo xedapen gehigarria, bigarren xedapen iragankorra, hirugarren xedapen indargabetzailea* eta azken *xedapenetako lehenengoa", (*ez *azken xedapenetatik lehena / azken xedapenetatik bigarrena).*

~ Zuzenbideko oinarriak / Aurrekariak

Testu administratibo batzuek halako hasierako atal bat izan ohi dute. Testu horietan, oso ohikoa da, lege-oinarriak emateko, gaztelaniazko gerundio bidezko formulazio bat ematea. Askotarikoak izan daitezke horren itzulpen zuzenak, baina, Osakidetzan, koherentzia mantentze aldera, hauei jarraituko zaie:

1) Zilegi izango da aditza aurreratzea objektua luzea bada edo koherentzia estetikoa mantentzeko.

2) Letra larriak errespetatuko dira, posible denean.

Visto… > Ikusirik/Ikusita…

Vistas la solicitud presentada, así como la documentación que acompaña, justificativa de los méritos alegados, y en virtud de las facultades legalmente atribuidas en la legislación vigente a esta Dirección Gerencia,
Aurkeztutako eskabidea eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak ikusita, eta indarrean dagoen legeriaren arabera Zuzendaritza Gerentzia honek dituen eskumenez baliaturik,

VISTAS las Actas de la Mesa de Contratación en las que se recogen las ofertas económicas presentadas al expediente precitado, y cuyos originales se encuentran unidos al expediente.
IKUSIRIK aipatutako espedienteari aurkeztutako eskaintza ekonomikoak biltzen dituen Kontratazio-mahaiaren aktak (jatorrizko eskaintzen dokumentuak espedienteari erantsita daude),

Considerando… > Kontuan hartuta/harturik/izanik…

CONSIDERANDO que, a la vista de la documentación presentada, D. XXX se adecúa al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo,
KONTUAN IZANIK, aurkeztutako agiriak ikusita, XXX jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela,
CONSIDERANDO lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, General Tributaria, de 10 de marzo y en la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales,
KONTUAN HARTUTA martxoaren 10eko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan xedatutakoa,

Resultando… > [Esaldi neutroa, baiezkoa]

> RESULTANDO que con posterioridad a la resolución de concesión se conoce de la subsanación efectuada en tiempo y forma por Dña. XXXX de la documentación que le fue requerida.
> Dirulaguntzak emateko ebazpenaren ostean, agerian geratu zen XXXX andreak behar bezala eta behar den epean zuzendu zuela dokumentazioan oker zegoena.

Gogoan izan esaldiok amaierako komaz bukatu ohi direla, bai gaztelaniaz, bai euskaraz, eta horien hurrengo esaldia (ohiko puntuazio-arauek ezartzen dutenaren kontra) letra larriz hasten dela.

Horrez gain, testu administratiboetan erabili ohi diren beste formula batzuk sakonago aztertuko dira gida honen *"Erdal formulak euskaraz"* atalean.

LEGE-IZENAK NOLA IDATZI

Legeen izenek barruan garatuko dena ondo deskribatu ohi dute. Horrek, batzuetan, erlatibo bidezko oso deskribapen luzeak idatzi behar izatea eskatzen du, baina hori ez da guk egindako hautu bat, legez emandako agindu bat baizik. Hain zuzen ere, legeetan zertarakoa azaltzen duten tartekien sintaxia 1993ko agindu honetan arautu zen:

Agindua, 1993ko apirilaren 6koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an egin zuen bilkuran onartu eta Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak onartzen direneko Akordioa argitara dadila agintzen duena.

~Legeen izenburuak

Tartean bestelako bat edo beste ikusten badira ere, esan daiteke normalizatu dela legeak eta, oro har, arauak izendatzeko molde bat:

> 1333/2019 EBAZPENA, urriaren 24koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez kautelaz eteten baitira ikerketa judizialean dauden 2016-2017ko EPEko deialdiaren prozesuak.

Hala egiten dira izenburuak, sistemaz. Eta, izenburuak hala egiten direnez, legeak zerrendatzean ere halaxe ematen dira izenak. Hau da, legeen izenak, izenburuetan, hurrenkera honetan eman behar dira beti: 1) Burua (legea), 2) Data, 3) Emailea eta 4) Zertarakoa.

~ Legeak testu barruan

IZOren *Itzulpen- eta Berrikusketa-irizpideak* dokumentuak dioenez, bi kasu bereizten dira:

a) Gaia laburra bada, honela jokatu behar da: lehenengo, legearen gaia; gero, legearen data eta zenbakia, biak ere parentesi artean. Batzuetan ez da zertan parentesia erabili data eta zenbakia emateko, baina parentesia erabiltzea erabakiz gero, honela eman daiteke.

> Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (uztailaren 6ko 6/1989 Legea)…
>
> Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (6/1989, uztailaren 6koa)…

b) Gaia oso luzea bada, honela jokatu behar da: lehenengo, legearen data eta zenbakia, eta gero, legearen gaia parentesi artean.

> …otsailaren 15eko 4/2024 Legea (Pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa)…

~ Zertarakoa adierazteko formulak

Zenbaitetan, zertarakoa luze-luzea denean, *-(r)i buruzkoa, -(r)ena* edo *-(e)koa,* moldeez gain, *zeina* ere erabiltzen da, eta, batzuetan, ia ezinbestekoa dirudi:

> 5/2016 FORU LEGEA, apirilaren 28koa, zeinak aldatzen baitu 11/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa.

Hauek dira gaur egungo lege-testuetan gehien erabiltzen diren formulak:

- zeinak ezartzen baitu/duen
- zeinaren bidez ezartzen baita/den
- non ezartzen baita/den.

Osakidetzako ebazpenetan *zeina + bait-* formula lehenesten da, bereziki deskripzio luze edo korapilatsuetarako:

> 357/2025 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez deialdi publikoa iragartzen baita Ekonomiako eta Finantzako Zuzendari lanpostua betetzeko, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Horrez gain, batzuetan, esaldia apurtu egiten da, eta zertarakoa esaldi bereiz batean ematen da. Zilegi da formula hori testu barruko aipamenetan erabiltzea, baina ez, ordea, izenburuetan.

> 7/2004 LEGEA, irailaren 30ekoa. Haren bidez, bigarren aldiz aldatzen da drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legea.

Aipamenetan, testugilea aske izan daiteke, hein batean, arauaren erreferentzia modu batean baino gehiagotan egiteko. Erreferentzia segurtasunez identifikatuz gero, malgu joka dezake, argitasunaren eta hizkuntza-ekonomiaren printzipioak ere aintzat hartuz.

Alde horretatik, zenbait proposamen egin izan dira han-hemen, testuan arauak behin eta berriz aipatu behar izanez gero zenbait estrategia testual lagungarri erabiltzeko. Halako proposamen bat esplizituki egina dauka, esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, eta egiten dituen proposamenak aplikatuta honela eman liteke:

a. Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Legeak (5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa) xedatzen duenaren arabera…
b. Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Legearen arabera (5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa)…
c. urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak (Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen du) xedatzen duenaren arabera…
d. urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren arabera (Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen du)…
e. …

~ Letra larrien erabilera lege-izenetan

Alfontso Mujikaren *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* (EIMA) liburuaren arabera, “Arauen eta agirien izen ofiziala osatzen duten hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira, baita programa, hitzarmen, politika, plan eta bestelako agiri ofizial ororen izenen osagaiak ere, bai ofizialak direnean bai ofizial bihurtu baino lehenagoko izapidetzean”.

> Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legea; Prozedura Zibilaren Legea

Nolanahi ere, IZOren *Itzupen-* eta *Berrikusketa-irizpideak* dokumentuaren arabera, “sei hitz nagusitik gorako aipamenetan, lehenengo hitzeko letra bakarrik idatziko dugu larriz. Hortik beherakoetan, berriz, denak idatziko dira larriz”.

> ERABAKIA, 2019ko uztailaren 23koa, Osakidetzako Administrazio Kontseiluarena, zeinaren bidez arautzen diren kudeaketa klinikoko unitateen eraketa, egitura eta funtzionamendua, kudeaketa klinikoko kontratuak, erreferentziako unitateak eta kudeaketa klinikoko erabakiak.

ERDAL FORMULAK EUSKARAZ

*IVAPeko estilo-liburua*n esaten den bezala: "Administrazioko hizkerak gogoko dituen formulek eta esapideek esaldi normalak ezkutatzen dituzte, nominalizazioen azpian. Formula horiek puztu eta luzatu egiten dute idazkia. Oro har ez dira beharrezkoak, eta ezinbestekoak badira, saiatuko gara euskaraz janzten".

Batzuetan, erdaraz nominalizazioa erabiltzen da, baina euskaraz modu jatorrago eta ulerterrazagoak daude horixe bera adierazteko (adibidez, *a condición de* esateko, *-(r)en baldintzapean* erabiltzea baldintzazko esaldi bat erabili beharrean). Beste batzuetan, erredundantziak sortzen dira aditzak berak markatzen duen formula beste hitz batekin apaindu nahi delako (esaterako, *con el objetivo de* esateko, *-t(z)eko* helburuzkoa erabiltzea nahikoa da, eta *-t(z)eko helburuarekin* erabiltzea errepikapen bat da, edota *con la voluntad de* esateko, *-t(z)eko borondatearekin* erabiltzea gehiegizkoa da *-t(z)eko*k dagoeneko markatzen baitu helburua).

Halako adibide asko daude, baina hemen labur jaso dira aipatu estilo-liburuan zerrendatzen diren batzuk.

~ Baldintzazkoak

A condición de → *-(r)en baldintzapean

> Se podrán conceder ayudas a condición de presentar las solicitudes antes del 31 de diciembre.
> ↓Dirulaguntzak eman ahalko dira, eskaerak abenduaren 31 baino lehen aurkeztearen baldintzapean.
> Dirulaguntzak eman ahalko dira, baldin eta eskaerak abenduaren 31 baino lehen aurkezten badira.
> Dirulaguntzak emateko / emango badira, abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak.

En el supuesto de → *-(r)en suposamenduan

> En el supuesto de la no aprobación del acta por parte de la Corporación…
> ↓Udalbatzaren aldetik akta ez onartzearen suposamenduan…
> Udalbatzak akta onartzen ez badu…

En su defecto → ezean (ez beti)

> El médico deberá obtener el permiso del o de la paciente o, en su defecto, del o de la tutora legal para realizar la intervención.
> ↓Medikuak ebakuntza egiteko pazientearen baimena lortu beharko du edo hori izan ezean, lege-tutorearena.
> Medikuak pazientearen baimena lortu beharko du ebakuntza egiteko edo, gai ez bada, lege-tutorearena.

~ Kausazkoak

A causa de → *-(r)en kausaz

La tasa de gripe ha bajado a causa del incremento de la tasa de vacunación.
↓Gripe-tasak behera egin du, txertaketa-tasaren igoeraren kausaz / igoeragatik / igoera dela medio.
Gripe-tasak behera egin du, txertaketa-tasa igo delako.
Txertaketa-tasak gora egin duenez, gripe-tasak behera egin du.

A consecuencia de → -(r)en ondorioz (ez beti)

A consecuencia de las renuncias presentadas, se ha modificado la lista definitiva de aspirantes.
↓Aurkeztutako ukoen ondorioz, aldatu egin da izangaien behin betiko zerrenda.
Aurkeztutako ukoak direla-eta, aldatu egin da izangaien behin betiko zerrenda.

A tenor de → -(r)en arabera (ez beti)

A tenor de la afirmación del Director General, las obras del hospital van a sufrir un retraso.
↓Zuzendari nagusiaren esanen/baieztapenaren arabera, ospitalearen obrak atzeratuko dira.
Zuzendari nagusiak esan duenez, ospitalearen obrak atzeratu egingo dira.

Con el argumento de → *-(r)en argudioarekin

Quieren renovar las instalaciones con el argumento del aumento de pacientes.
↓Instalazioak berritu nahi dituzte, pazienteen hazkuntzaren argudioarekin.
Instalazioak berritu nahi dituzte, gero eta paziente gehiago omen dagoelako.
Gero eta paziente gehiago omen daudenez, instalazioak berritu nahi dituzte.
Gero eta paziente gehiago omen daude, eta horregatik berritu nahi dituzte instalazioak.

No autorizaron el tratamiento alternativo con el argumento de que no había evidencias suficientes de sus resultados.
↓Ez zuten tratamendu alternatiboa onartu emaitzen ebidentzia nahikorik ez zegoen argudioarekin.
Ez zuten tratamendu alternatiboa onartu, ez omen zegoelako emaitzen ebidentzia nahikorik.

Con ocasión de → *-(r)en abagunearekin

Se celebrarán distintas actividades con ocasión de la visita del Consejero de Sanidad.
↓Ekitaldi batzuk egingo dira, Osasuneko sailburuaren etorreraren abagunearekin.
Hainbat ekitaldi egingo dira, Osasuneko sailburua etorriko dela ospatzeko.
Osasuneko sailburua etorriko dela-eta, hainbat ekitaldi izango dira.

En base a → *-n oinarrituz

La resolución ha sido adoptada en base a lo dispuesto en el Decreto X.
↓Erabakia hartu da, X Dekretuak ezarritakoan oinarrituz.
Erabakia hartu da, X Dekretuak ezarritakoan oinarrituta.
Erabakia hartu da, X Dekretuak ezartzen duena(ri) begira / jarraituz / kontuan hartuta.

En virtud de

Ha podido estudiar en Francia en virtud de la subvención concedida por el Gobierno Vasco.
Frantzian ikasi ahal izan du, Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzari esker.
Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza dela medio/bide…
Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza eskuratu duenez…

~ **Helburuzkoak**

A efectos de → *-(r)en ondorioetarako

Se han adoptado diversas medidas a efectos de impulsar la creatividad en nuestra organización.
↓Neurri batzuk hartu dira, gure erakundeko sormena bultzatzearen ondorioetarako.
Neurri batzuk hartu dira, gure erakundeko sormena bultzatzeko / bultzatzearren / bultzatu nahian / bultzatzeari begira…

Al objeto de → *-(r)en helburuarekin

Fue escogida al objeto de representar al IVAP en los tribunales de selección de personal.
↓Aukeratu zuten langileak hautatzeko epaimahaietan IVAPen ordezkari izatearen helburuarekin.
Langileak hautatzeko epaimahaietan IVAPen ordezkari izateko aukeratu zuten.
IVAPen ordezkari aukeratu zuten, langileak hautatzeko epaimahaietarako.

Con el deseo de → *-(r)en nahiarekin

Un saludo, junto con mis deseos de una pronta recuperación.
↓Agur bat, laster sendatuko zarelako nahiarekin.
Ahalik eta lasterren sendatuko zarelakoan, agur t'erdi.

Con el objetivo de → *-(e)ko helburuarekin

El grupo Clown ofrece actuaciones en los hospitales con el objetivo de animar a los niños y niñas que se encuentran en ellos.
↓Clown taldeak ikuskizunak egiten ditu ospitaleetan, bertan dauden umeak animatzeko helburuarekin.
Clown taldeak ikuskizunak egiten ditu ospitaleetan, bertan dauden umeak animatzeko.

Con la voluntad de → *-(r)en borondatearekin

Firmaron el documento con la voluntad de aunar esfuerzos en la lucha contra la discriminación de la mujer.
↓Dokumentua izenpetu zuten, emakumea diskriminatzearen aurkako borrokan indarrak batzearen borondatearekin.
Dokumentua izenpetu zuten, emakumea diskriminatzearen aurkako borrokan indarrak batzeko/batzearren.
Dokumentua izenpetu zuten, emakumea diskriminatzearen aurkako borrokan bat egiteko.

Con vistas a / De cara a

Se organizaron numerosos cursos con vistas a la mejora de la capacitación lingüística de la plantilla.
Ikastaro ugari antolatu ziren, langileen hizkuntza gaitasuna hobetzeko.
Ikastaro ugari antolatu ziren, langileen hizkuntza gaitasuna hobetzeari begira.

En aplicación de

En aplicación de lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores...
Langileen Estatutuan ezarritakoa betez/betetzeko…

En cumplimiento de

En cumplimiento de los preceptos recogidos en la Ley 30/92…
30/92 Legean jasotako arauak betetzeko…

En evitación de

Se lo llevaron de allí en evitación de males mayores.
Gaitzagorik ez gertatzeko / gerta ez zedin eraman zuten handik.
Handik eraman zuten, zerbait gaitzagoa gerta ez zekion.

En orden a

Los sindicatos presentaron sus propuestas en orden a su aprobación por la Mesa Sectorial.
Sindikatuek euren proposamenak aurkeztu zituzten, Mahai Sektorialak onartzeko.

Para conocimiento de

La ficha del curso permanecerá diez días en el tablón de anuncios para conocimiento de los interesados.
Ikastaroaren fitxa hamar egunez egongo da iragarki-oholean, interesdunak jakinaren gainean egon daitezen.

Para su posterior

La publicación se preparó para su posterior presentación a los medios de comunicación.
Argitalpena prestatu zen, gero komunikabideei aurkezteko.

~ Kontzesiboak

A riesgo de / con el peligro de → *-(r)en arriskuarekin

Se embarcó en el proyecto a riesgo de quedarse sin dinero.
↓Proiektuan sartu zen, dirurik gabe gelditzearen arriskuarekin.
Proiektuan sartu zen, dirurik gabe geldi zitekeela jakin arren.
Nahiz eta dirurik gabe geldi zitekeela jakin, hala ere proiektuan sartu zen.

Con la dificultad de → *-(r)en zailtasunarekin

Realizó la intervención en el hospital de campaña, con al dificultad de no tener toda la tecnología habitual disponible.

↓Kanpaina-ospitalean egin zuen ebakuntza, ohiko teknologia guztia erabilgarri ez izatearen zailtasunarekin.
Ez zeukan ohiko teknologia guztia erabilgarri; hala eta guztiz ere, kanpaina-ospitalean egin zuen ebakuntza.
Kanpaina-ospitalean egin zuen ebakuntza, ohiko teknologia guztia erabilgarri ez bazuen ere.

Sin perjuicio de → *-(r)en kaltetan gabe

IZOren *Itzulpen-* eta *Berrikusketa-irizpideak* dokumentuan adierazten denaren ildotik, *kaltetan joan gabe* eta *kalterik gabe* formulen ordez, beste batzuk lehenesten ditugu: *galarazi gabe, ezertan galarazi gabe, alde batera utzi gabe, gorabehera, hala ere, nolanahi ere, ezertan eragotzi gabe, horrek ez du kentzen, hargatik eragotzi gabe, nahiz eta, arren, bada ere...*

El plazo de presentación de solicitudes será de diez días, sin perjuicio de la posibilidad de ampliación del mismo.
↓Eskabideak aurkezteko epea hamar egunekoa izango da, epe hori zabaltzeko aukeraren kaltetan gabe.
Hamar egun izango dira eskabideak aurkezteko; nolanahi ere, epe hori beti luzatu ahal izango da.

~ Moduzkoak

Con arreglo a

Las ayudas fueron concedidas con arreglo a lo dispuesto en el Reglamento.

Araudian jasotakoaren arabera eman ziren dirulaguntzak.

Con carácter de urgencia/forzoso/general/oficial/prioritario

La reunión se convocará con carácter de urgencia.
Bileraren deialdia albait arinen egingo da.

Los trabajadores deberán respetar el horario con carácter forzoso.
Langileek derrigorrean bete behar dute ordutegia.
Langileak derrigortuta daude ordutegia errespetatzera.

Las ayudas se destinarán con carácter prioritario a las zonas más desfavorecidas.
Eskualde behartsuenek izango dute lehentasuna laguntzak jasotzeko orduan.

Con conocimiento de

Las acciones se han desarrollado con conocimiento de la situación por parte de la Dirección.
Zuzendaritzak bazekien zertan ziren gauzatu diren ekintzak.

Con inclusión de

La reunión se ha celebrado con inclusión de nuevos asuntos en el orden del día.
Gaurko bileran gai berriak sartu dira gai-zerrendan.

Conforme a

Los ciudadanos tienen derecho a la concesión del título de familia numerosa, conforme a lo dispuesto en la legislación.
Legez, herritarrek familia ugariaren titulua izan dezakete.
Legeak agintzen duenez, herritarrek…

De conformidad con

Las entrevistas se realizarán de conformidad con el calendario.
Egutegia betez / Egutegiari jarraituz / Egutegiaren arabera egingo dira elkarrizketak.

En buena y debida forma / de forma adecuada

Las solicitudes habrán de presentarse en buena y debida forma.
Eskabideak behar bezala / behar den moduan aurkeztuko dira.

~ **Denborazkoak**

A raíz de

La situación empeoró claramente a raíz de la aprobación del nuevo convenio.
Egoerak okerrera egin zuen nabarmen, hitzarmen berria onartu zenetik / zenez geroztik.

Con anterioridad/posterioridad a

Se les valorarán los trabajos realizados con anterioridad a su integración en Osakidetza.
Balioetsi egingo zaizkie Osakidetzan sartu baino lehen egin dituzten lanak.

Con carácter mensual/anual

Las reuniones de la Comisión se celebrarán con carácter mensual.
Batzordea hilero bilduko da.

Con carácter previo a

Habrá de acreditarse el cumplimiento de ciertos requisitos con carácter previo a la solicitud de la subvención.
Dirulaguntza eskatu baino lehen…
Dirulaguntza eskatzeko…

Con carácter temporal

Ha sido nombrado Jefe de Servicio Corporativo con carácter temporal.
Zerbitzuburu korporatibo izendatu dute aldi baterako.

Previa audiencia/presentación/autorización/deliberación

El decreto entrará en vigor previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno.
Dekretua indarrean jarriko da, Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren.

EHAA-N ARGITARATZEKO TESTUEN ESTILO-ARAUAK

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen diren testuek oso formatu berezia dute, eta ezinbestekoa da horri jarraitzea, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Osakidetzatik, besteak beste, ebazpenak argitaratzen dira buletinean.

~ **Testuaren formatu orokorra**

- Letra-tipoaren formatua

  - Letra-tipoa: Arial
  - Letra-tamaina: 11
  - Azpimarratuaren estiloa: bat ere ez (ez da erabili behar)
  - Letra lodiaren estiloa: bat ere ez (ez da erabili behar)
  - Letra etzanaren estiloa: bat ere ez (ez da erabili behar)

- Paragrafo-formatua

  - Ezkerreko eta eskuineko koska: 0
  - Lehenengo lerroko koska: 0
  - Aurreko tartea: 0
  - Atzeko tartea: 11 puntu
  - Lerroartea: sinplea
  - Koska berezia: frantsesa izenbururako

- Paragrafo kopurua bera izango da beti bi hizkuntzetarako

~ **Dokumentuaren goiburua**

- Testua pertsonalizatu gabe egongo da (Osakidetzaren eta zerbitzu-erakundearen idazpururik gabe).

Osakidetza

XXXXXXX OSPITALEA
GORLIZKO OSPITALEA

- Ez du goibururik eramango.

~ **Dokumentuaren gorputza**

- Izenburuak ez du letra lodirik eramango eta izenburuaren koska frantsesa izango da.

  486/2021 EBAZPENA, apirilaren 6koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Arabako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendaritzako Idazkariaren (Zuzendaritza Medikoa) lanpostua betetzeko, Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

  486/2021 EBAZPENA, apirilaren 6koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Arabako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendaritzako Idazkariaren (Zuzendaritza Medikoa) lanpostua betetzeko, Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

- Ez du bulet automatikorik eramango.

  - *1. artikulua – Testuak aurkezteko arauak
  - *2. artikulua – Pertsona onuradunak

~ Testu artikulatuak

- Artikuluek koska (0,75) eramango dute, dagokion zenbakia puntuarekin, *artikulua* hitza, eta ondoren, puntua, gidoia eta tartea.

  1. artikulua.– Testuak aurkezteko arauak.

- Artikulu baten barruan hainbat paragrafo zenbakidun daudenean, horiek modu honetan jasoko dira, artikuluek titulua duten edo ez kontuan izanik:

  2. artikulua.– Pertsona onuradunak.

  1.– Agindu honen kargura dirulaguntzak eskatu ahalko dituzte...

  2.– Ezingo dute dirulaguntzarik eskuratu...

- Artikulu zehatz baten paragrafo edota apartatuei eginiko erreferentzia modu honetan egingo da:

  - 2. artikuluaren 3. paragrafoa: 2.3. artikulua (gidoirik eta amaierako punturik gabe).

  - 2. artikuluaren 3. paragrafoaren b) apartatua: 2.3.b) artikulua (gidoirik eta amaierako punturik gabe).

- Apartatuen hizkien atzean amaierako parentesia idatziko da, baina ez dute punturik eta ezta gidoirik eramango.

  a) Hezkuntza-sistemak eta haien balioak.

~ Laburdurak, siglak eta ikurrak

- Laburdurak tauletan bakarrik erabiliko dira, eta, kasu horietan, letra xehez eta puntuarekin idatziko dira. Nazioarteko arauak betez idatziko dira; hau da, punturik gabe. Ez dute azenturik eramango eta ez dute pluralik.

- Siglak, oro har, letra larriz idatziko dira eta punturik eta tarteko zuriunerik gabe (EHAA, BOE, DOUE, EAE).

- Orduak eta minutuak nazioarteko arauen arabera idatziko dira (HH:MM).

- Ehunekoak (%): ehunekoaren ikurra (%) zenbakien aurretik idatziko da eta zuriune banaezina utziko da %aren eta zenbakiaren artean.

- Euroak: oro har, *euroak* adierazpena erabiliko da. Zuriune banaezina utziko da zifra arabiarren eta euroen adierazpenaren artean eta ez da punturik jarriko, baldin eta ez bada esaldiaren edo paragrafoaren amaiera. € ikurra tauletan erabiliko da. Hizki eta zifren bidez adierazten denean, modu honetan egingo da:

Ehun (100) euro

~ Zifrak

- Urtearen adierazpenak, orrialdearen zenbakiak edo kopuru bati erreferentzia egiten ez dioten bestelako kontzeptuek ez dute milakoak adierazteko puntua eramango.

  Gasteiz, 2013ko maiatzaren 2a. (*2.013)

  13624. orrialdean, lehenengo paragrafoan...

  331/2013 DEKRETUA, apirilaren 22koa...

- Kopuru bati dagokion kontzeptu bat denean, zifretan adierazten denean, dagozkion puntuak jarriko dira.

  Aurten, 13.250 orrialde argitaratu dira...

  EHAAren 2500. orrialdearen 2.500 kopia inprimatu dira.

- Dezimalak koma baxu batekin idatziko dira, osoko zatiaren eta dezimalaren artean hutsunerik utzi gabe.

  *3.780'30 > 3.780,30

~ Letra xeheak

- Oro har, hitzak letra xehez idatziko dira. Hilabeteak eta egunak letra xehez idatziko dira.

~ Letra larriak

- Hitz hauek letra larriz idatziko dira (hitz osoa): *TITULUA, KAPITULUA* edo *ATALA* eta antzeko hitzak, haien multzoaren goiburu direnean. Kasu horietan zentratuta eta amaierako punturik gabe joango dira.

  III. KAPITULUA

- Epigrafe batekin baldin badoaz, letra larriz eta zentratuta idatziko dira. Epigrafea dagokion adierazpenaren azpian joango da, lerro zuririk utzi gabe, eta "clave" estiloa aplikatuko zaio.

  III. KAPITULUA

  JARDUTEKO ARAU OROKORRAK

  a) "AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA, BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA, HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA, LAUGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA..."

- Xedapenaren azkeneko zatian daudenean, ezkerrean kokatuko dira. Koskarik eta amaierako punturik gabe.

  AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

  Ahalmena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saileko titularrari...

  AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

- Xedapenek titulua dutenean, hori letra xehez idatziko da.

  AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

~ Ikur grafikoak

- Azentu-marka: testu osoan zehar, gaztelaniaz azentua duten hitz guztiek azentu-marka grafikoa eramango dute, bai letra larriek bai xeheek ere.

- Puntu eta gidoia: puntu eta gidoi bakoitzaren atzean (.–) zuriune bat utziko da.

  2. artikulua.– Erakunde publikoa aitortzen da...

~ Gidoiak eta parentesiak

- Gidoi motak: marra (-), gidoi laburrak (–).

Oro har, gidoi laburrak erabiliko dira [Kontrol+(-) numerikoa].

Gidoi laburrak eta parentesiak azalpena emateko erabiltzen direnean, azalpen-esaldiaren lehenengo eta azkeneko hitzei lotuta joango dira, zuriunerik gabe.

Euskadiko udalerriak —denak 550.000 biztanle baino gutxiagokoak— onartu dituzte lehiaketan parte hartzeko...

Euskadiko udalerriak (denak 550.000 biztanle baino gutxiagokoak) onartu dituzte lehiaketan parte hartzeko...

- Barrak *34/2013 Dekretua* eta antzeko esamoldeetan erabiliko dira.

~ Izenak: herri eta hirien izenak eta *Osakidetza*

Testu osoan zehar zein datetan herri eta hirien izen ofizialak erabili behar dira (hau da, *Bilbao* eta ez *Bilbo, Donostia / San-Sebastián* eta ez *Donostia*, etab.).

Bestalde, Osakidetzaren izen osoa erabili behar da aipamen guztietan, hau da, O*sakidetza-Euskal osasun zerbitzua.*

~ Dokumentuen amaierako zatia

Data

Azkeneko paragrafotik bananduta joango da, zuriz dagoen lerro baten bidez.

Ezkerrean hasiko da, 1. lerroan 0,75eko koskarekin.

Amaierako puntua jarriko diogu.

Egunaren aurrean ez da zerorik jarriko.

*urtarrilaren 03a

Dekretuetan, NON kasu-marka erantsiko da; besteetan, ez.

[DEKRETUA] Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 3an.

[BESTEAK] Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 3a.

Kargua

Karguaren izena letra xehez idatziko da eta amaieran koma jarriko diogu.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari-gerentea,

2021eko urtarrilaren 13a.

~ Taulak

Dokumentuaren barruan dauden taulak ez dira buletinaren txantiloi-estiloekin tratatu behar.

Taulak behar bezala prestatuko dira argitaratzeko, EHAAn ikusiko diren bezala, ukiturik eman behar izan gabe. Horrek esan nahi du ez direla testuen orri-marjinak zehaztutako neurriak gainditu behar.

Konfigurazio bertikaleko marjinak hauek dira:

Goikoa: 3,2 cm

Behekoa: 2,2 cm

Eskuinekoa: 1,7 cm

Ezkerrekoa: 1,7 cm

Konfigurazio horizontaleko marjinak hauek dira:

Goikoa: 1,7 cm

Behekoa: 1,7 cm

Eskuinekoa: 3,2 cm

Ezkerrekoa: 2,2 cm

Tauletan EHAAren eranskinetarako ezarritako letra-tipoa erabiliko da (Arial 9). Hala ere, letra-tamaina txikiagoak erabili ahalko dira, dokumentuak hala eskatzen duenean, baina behar bezala irakurtzeko aukera eman behar digute.

Taulak Word formatuan bidaliko dira.

OSAKIDETZAKO TERMINOLOGIA ETA BESTELAKO HAUTUAK

Dagoeneko aipatu den bezala, Osakidetza ente handia da eta esku asko ibiltzen dira testugintzan. Hori dela eta, koherentzia eta batasun korporatibo bat mantentzeko, Osakidetzako jardunari lotutako auzi batzuen gaineko hautuak egin dira; esaterako, hizkera sanitarioaren gainekoak, ESIen izenen gainekoak edota zalantzazkoak izaten diren terminoen gainekoak.

BETI ZALANTZAZKOAK DIREN KONTU BATZUK

Atalaren izenburuak dioen bezala, Osakidetzako testuetan zalantzazkoak izaten diren zenbait kontu bildu dira hemen.

~ Anbulategi* > Anbulatorio

*Euskara Batuaren Eskuliburua*n azaltzen den bezala, "*Anbulategi* hitza ez dago ondo sortua, erdal hitz mozorrotua da: *anbula* hitzik ez dagoenez euskaraz, horren gainean ezin da hitz eratorririk sortu".

~ Bezeroentzako Arreta Eremu > Administrazio Eremu

2020ko Zuzendaritza Nagusiko Lehen Mailako Arretako taldearen erabaki baten ondorioz, lehen *Área de Atención al Paciente > Bezeroentzako Arreta Eremua* zeritzona *Área Administrativa > Administrazio Eremua* deituko da orain.

~ Cita > zita/hitzordu

Biak dira egokiak euskaraz, sinonimoak. Nolanahi ere, espazio-arazoak daudenean, Osakidetzaren webgunerako eta aplikazioetarako testuetan eta haiei eta batez ere "Aurretiko zita" eginbideari zuzenean erreferentzia egiten zaionean, *zita* erabiliko da.

~ Derivar > bideratu vs deribatu

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*n honako hauek dira definizioak:

Bideratu, bidera/bideratu, bideratzen

1 *da/du* ad. Bidera bihurtu; gidatu. *Saihestua zebilen ardia bideratu baitzen. Zuk bideratzen dituzu giza urratsak. Ondo esanaz bideratu zuen onera. Azkenean, bideratu ziren gauzak. Eztabaida bideratzeko.*

2 *da* ad. Abiatu. *Etxera bideratu ziren. Doneztebeko jendea utzita bideratu ziren.*

3 *du* ad. *Helburu batera zuzendu. Indar barreiatuak bideratzeko.*

Deribatu, deriba, deribatzen

1 *du* ad. *Mat.* Funtzio baten deribatua kalkulatu.

2 *du* ad. *Elektr.* Zirkuitu batean, konexioa deribazio bidez eratu.

Agerikoa denez, Euskaltzaindiak esanahi orokorra ematen dio *bideratu* aditzari, eta *deribatu* hizkera espezifikoetarako gordetzen du. Erabilera espezifiko horietan ez du, ordea, aintzat hartzen Osakidetzako testuinguruko ohiko erabilera.

Hizkera sanitarioan, *deribazioa* hitzak berezko esanahia du, *bideratu* hitzetik haragokoa: administrazio sanitarioan egiten den izapide bat da. *Deribatu kontsultarteko* hitzaren sinonimotzat jotzen da, eta honela defini daiteke: paziente bat, kontsultarteko bolante baten bidez, beste profesional batengana bidaltzea, arreta osagarria eskaintzeko diagnostikoari, tratamenduari eta errehabilitazioari dagokionez. Esaterako, Lehen Mailako Arretako familia-medikuak Arreta Espezializatura deribatzen ditu gaixoak; adibidez, Zumarragako osasun-zentroko familia-mediku batek Zumarragako Ospitalera deribatzen du paziente bat arreta espezializatuko kontsulta batera.

Beraz, hobe da *bideratu* egoera orokorretan erabiltzea (*dirigir* adierazteko, besteak beste), eta *deribatu*, aldiz, erakunde barruko izapide zehatzerako gordetzea.

La enfermera orientará a los pacientes hacia unos hábitos de vida saludables.
Erizainak bizi-ohitura osasuntsuetara bideratuko ditu pazienteak.

El personal médico derivará a las y los pacientes a Endocrinología cuando los indicadores hormonales se encuentren fuera de los parámetros en los análisis.
Medikuek Endokrinologiara deribatuko dituzte pazienteak, hormonen adierazleak parametroetatik kanpo daudenean analisietan.

Para solicitar cita hay que presentar el informe de derivación.
Deribazio-txostena aurkeztu behar da zita eskatzeko.

Bestalde, baliteke batzuetan *bidali* aditza erabiltzeko tentazioa egotea, baina gogoratu behar da *deribatu* hitzaren atzean erakunde barruko izapideak daudela, hau da, arazoaz arduratuko den profesionala aldatzeko izapide bat dela. Ez da gauza bera:

Medikuak pazientea nutrizionistarenera bideratu/bidali du.
(Hemen, nutrizionista batengana joatea gomendatu diola ulertzen da).

Medikuak pazientea nutrizionistarenera deribatu du.
(Hemen, pazientearen arreta beste profesional baten ardurapean utzi du).

~ Ebakuntza ondo / Ebakuntzaren ondoko(a) vs Ebakuntzaondo

Terminoa eta erabilera arrunta bereizteko beharrari erantzuten dio erabaki honek.

Ebakuntzaondo (*posoperatorio*) terminoak pazienteari egindako ebakuntza kirurgiko baten osteko epe mugatu bati (sendatu edo hil artekoa) egiten dio erreferentzia.

Ebakuntzaondoan sendaketak egitera joan behar da egunero anbulatoriora.

Ebakuntza ondoa, ebakuntzaren ondokoa, ebakuntzaren ostea, pazienteari ebakuntza bat egiten dioten unetik aurrerako edozein une izan daiteke; epe irekia da.

Ebakuntza aurrea eta ebakuntza ondoa bizi-kalitaterako bi garai zeharo diferente dira.

~ Educación > hezkuntza vs heziketa

Hitzon arteko aldea oso lausoa den arren, bada bion arteko desberdintasun bat. *Heziketa* orokorra da, jendea heztean datza, balioak transmititzean. *Heziketa* praktikoagoa da, eta *hezkuntza*, berriz, akademikoagoa. Nolanahi ere, egia da hezkuntza ematen duen pertsona batek *heziketa* ere ematen duela.

Educación en Salud > Osasun Heziketa
Plan de Educación para Enfermería > Erizainentzako Hezkuntza Plana

~ Emergencia vs Emergencias vs Urgencias

Emergentziak (Emergencias, gaztelaniaz) zerbitzu-erakundea da Osakidetzan. Emergentziek anbulantziak, 112 eta beste kudeatzen dituzte. Beraz, hori izendatzeko soilik gordeko da *Emergentzia* hitza Osakidetzan. Erakunde honetan egiten den jarduerari *emergentziak* deritzo.

La ambulancia tuvo que salir a atender una emergencia, a una casa en llamas.
Anbulantzia emergentzia batera joan behar izan da, sutan zegoen etxe batera.

Hala ere, horrek ez du esan nahi gaztelaniaz *emergencia* erabiltzen den bakoitzean Emergentziak zerbitzuetara mugatzen denik, eta, beraz, ez da beti *emergentzia* hitza erabili behar euskaraz. Hain zuzen ere, baliokide asko aspaldi ezarrita daude, beste hitz batzuk erabilita.

Salida de emergencias
Larrialdietako irteera

Dispositivo de emergencias
Larrialdietako gailu

Larrialdiak (Urgencias, gaztelaniaz) Etengabeko Arreta Guneetan eta ospitaleetan dauden unitateak/zerbitzuak dira. Beraz, Osakidetzan erabiltzen diren irizpideak bateratzeko, aurrerantzean, *Larrialdiak* hobetsiko da unitate/zerbitzu horri erreferentzia egiteko. Erakunde honetan egiten den jarduerari *larrialdi* deritzo.

> El paciente fue al hospital por una urgencia: tenía un corte muy profundo en el brazo.
> Pazientea larrialdi batengatik etorri zen ospitalera: besoan oso ebaki sakona zuen.

Izenlagunekin, egoera orokor bati erreferentzia egiten diotenean, testuinguruaren arabera erabakiko da zein den erabili beharreko hitza: *premiazko, presazko, larrialdiko, urgentziazko…*

~ Episodioak, gertakariak, gertaerak, gorabeherak eta intzidentziak

Osakidetzan, testuinguruaren arabera, aipatutako hitzetako bakoitzak esanahi zehatz bat du.

Episodioak vs gertakariak

Gaztelaniaz *episodio* hitza erabiltzen denean, testuinguruari begiratu beharko diogu euskarazko ordaina erabakitzeko. Historia Kliniko Elektronikoan erabiltzekoa bada edota *episodio clínico* bati buruz hitz egiteko, *episodio* erabiliko dugu euskaraz.

Beste edozein kasutarako (hau da, *gertaeraren* sinonimo denean), *gertakari* erabili behar da.

Gorabeherak vs gertaerak

Gorabeherak eta kontrako gertaerak erregistratu eta jakinarazteko sistemari (Sistemas de registro y notificación de incidentes y eventos adversos) lotutako testuinguruetan, *incidente* beti izango da *gorabehera*, eta *suceso* edo *evento*, beti *gertaera*.

Intzidentziak

Intzidentzia hitza CAUrekin erlazionatutako testuingururako gordeko da, *incidencia* adierazteko.

~ Ikastaroen izenak

Hemen, aldiz, erabakia ez da hain agerikoa izaten. Izan ere, gerta liteke ikastaro bat gaztelaniaz sortu izana baina euskarazko edizioa ere eskaintzea. Hori dela eta, halakoetan, ezinbestekoa da dagokion Prestakuntza Zerbitzuari zer nahi duen galdetzea. Bestalde, gogoan izan ikastaroen izenak testu barruan komatxoz edo letra etzanez nabarmen daitezkeela, eta hitz nagusi guziak maiuskulaz hasita idazten direla (izen luzea badute izan ezik).

~ Intervención quirúrgica vs intervención médica o de enfermería

Intervención hitza askotan erabiltzen da Osakidetzan, baina esanahaia aldatu egiten da testuinguruaren arabera.

*Intervención quirúrgica*ren zentzua duenean, euskaraz, *ebakuntza* (kirurgikoa) edo *operazioa* erabiliko da.

Mediku edo erizainek egiten duten *intervención* bat denean, hau da, ebakuntza kirurgiko bati lotuta ez dagoenean, *esku-hartze* erabiliko da.

~ Jardunaldien programak

Osakidetzan jardunaldi asko antolatzen dira, eta programek elebidunak izan behar dute; hau da, programaren euskarazko bertsioa eta gaztelaniazkoa argitaratu behar dira.

Hala ere, hizkuntza bakoitzeko programaren barruan, mahai-inguruen barruko ponentziak/hitzaldiak eta, orokorrean, hitzaldien izenak jatorrizko hizkuntzan utziko dira, bertaratzen denak argi izan dezan zer hizkuntzatan egingo den hitzaldi bakoitza. Adibidez, euskarazko jardunaldi bateko programan mahai baten barruan egiten diren hitzaldi guztiak erdaraz egingo badira, haien izenburuak beren horretan utzi beharko dira, kasu honetan bezala:



8:30 **Akreditazioa**

9:15 **Aurkezpena**

Nekane Murga Eizagaechevarria dk. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua.

9:30 **Osakidetzako Pazientearen segurtasunerako 2020ko estrategiaren aurrerapausoak.**

Enrique Peiró Callizo dk. Osasun Publikoko Programen eta Osakidetzako Pazientearen Segurtasuneko programen koordinatzailea.

10:00 **ERRONKAK PAZIENTEAREN SEGURTASUNAREN ARLOAN**

- **La cultura de Seguridad del Paciente y los riesgos de las nuevas tecnologías.**

  Jesús Mª Aranaz Andrés dk. Medikuntza Prebentiboko eta Osasun Publikoko zerbitzuburua. Ramón y Cajal Unibertsitate Ospitalea (Madril).

- **La salud en todas las Políticas y la Seguridad en todos los niveles de Gestión.**

  Carlos Aibar Remón dk. Zaragozako Unibertsitateko Osasun Publikoko Sailaren zuzendaria. Medikuntza Prebentiboko eta Osasun Publikoko zerbitzuburua. Lozano Blesa Ospitalea (Zaragoza).

  Gestión del conocimiento eficiente en aras a la higiene de manos.

  Carolina Fankhauser Rodríguez dk. Prebentzioko eta Infekzio Kontroleko zerbitzuburua. Genevako Unibertsitate Ospitalea.

11:15 **Solasaldia**

~ Kargu vs kargudun

Kargu jakin bat duen pertsona karguduna da, ez kargua. Kargua kargudunak duen betekizuna edo ardura da.

↓Goi-karguen ordainsaria gardentasun-atarian dago argitaratuta
Goi-kargudunen ordainsaria gardentasun-atarian dago argitaratuta

~ Kontsultak

Kontsulten izenak aipatzean ez da inoiz erabiliko aposizioa, eta *zerbitzua* hitza inplizituki aipatuko da. "*ø / -(r)en / -(e)ko auzia*" atalean azaltzen den bezala, egiten den galderaren araberakoa izango da erabili beharreko genitibo-marka.

Batetik, *-(e)ko* erabiliko da galdera hauei erantzuten zaienean: Zein arlotan dihardu? Non gertatzen da? Non sortzen edo agertzen da? Non garatzen da?

↓Ginekologia kontsulta
Ginekologia Zerbitzuko kontsulta
Ginekologiako kontsulta

Bestetik, *-(r)en* kasu-markaren bidez jabetza, sorburua, erlazioa, erreferentzia, gaia eta antzekoak adieraz daitezke. Horrez gain, joera dago gaztelaniaz plural bidez adierazitako kontsulten izenetan *-(e)tako* erabiltzeko, baina aipatu atalean argitzen den bezala, *-(r)en* hobesten da kasu horietan ere.

↓Mineko kontsulta
Minaren kontsulta

↓Infekziosoetako kontsulta
Infekziosoen kontsulta

Bestalde, kontsultaren edo zerbitzuaren izena aipatu beharrean, kontsulta hori norekin den adierazi nahi denean, NOREN kasu-marka erabiliko da:

emaginaren kontsulta; erizainaren kontsulta (baina Erizaintzako kontsulta); pediatraren kontsulta (baina Pediatriako kontsulta); medikuaren kontsulta…

~ Mando (intermedio) > (tarteko) arduradun vs directivo/a > zuzendari

Osakidetzako testuetan, orokorrean, gaztelaniazko *mando* hitza (tarteko) arduradunei eta zerbitzuburuei erreferentzia egiteko erabiltzen da, eta *directivo/a* hitzak zuzendaritza-taldeetako kideei egiten die erreferentzia.

Osakidetzatik kanpoko erreferentzietan, aldiz, *mando* hitzak agintariei egin ohi die erreferentzia.

~ *Medikura joan

Ezin da esan norbait medikura joan dela; izan ere, medikua ez da toki bat, pertsona bat baizik. Medikuarengana, medikuarenera, medikuaren kontsultara... joaten gara.

~ Mendekotasuna vs Adikzioa

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren definizioaren arabera, *mendekotasun* hitzaren bidez eman litezke bai gaztelaniazko *adicción* terminoa, zeinak *osasunerako kaltegarriak diren substantziak kontsumitu edo jarduerak egitearekiko mendekotasuna* esan nahi baitu, bai *dependencia* terminoa, zeinari *norbere kabuz moldatzeko ezintasunaren* esanahia erreserbatzen baitzaion esparru soziosanitarioan.

Hala ere, gaztelaniak egiten duen esanahi bereizketa argi hori zehazteko, Osakidetzaren testuetan, *mendekotasuna* hitza erabiliko da *dependencia* adierazteko eta *adikzioa* hitza erabiliko da *adicción* adierazteko, eta ez dira nahastuko.

~ Lan-lotura motak

Lan-loturak zenbait irizpideren arabera sailka daitezke. Batetik, kontratua agintzen duen araudiaren arabera, hiru motatakoak izan daitezke:

Funcionario de carrera > Karrerako funtzionarioa

(Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan oinarritzen da lan-harremana)

Personal estatutario > Estatutupeko langilea

(Langileek estatutu/araudi propio bat dute)

Personal laboral > Langile lan-kontratuduna

(Langileen Estatutuaren araberakoa da harremana)

Bestalde, kontratuaren iraupenak beste desberdintasun bat ezar dezake. Iraupen horrek, *finko vs aldi baterako* bereizketa egiteaz gain, aldi baterako langileen barruan ere, aldeak ezartzen ditu:

Fijo > Finkoa

Temporal > Aldi baterakoa

Interino > Bitartekoa

Sustituto > Ordezkoa

Eventual > Behin-behinekoa

~ Osakidetza vs Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua

Osakidetzaren sorrerazko izena, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1998 Legean jasoa, *Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua* da euskaraz.

Izendapen hori ez dator bat ez Euskaltzaindiaren gramatika arauekin ez estilo-liburu honetan emandako jarraibideekin; hain zuzen ere, euskaraz izenaren eta aposizioaren artean ez da marratxorik agertu behar, eta, gure irizpideen arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzu edo Osakidetza euskal osasun-zerbitzu idatzi beharko litzateke.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 2019ko martxoaren 5ean Osakidetzan egiletza eta afiliazio instituzionala bateratzeari buruzko Ebazpenaren II. Eranskinean azaltzen denaren arabera, "Osakidetza da euskaraz eta gaztelaniaz onartuko den nomenklatura. Ingelesez ordea, Basque Health Service erantsiko zaio".

Horrek esan nahi du testu orokorretan ez dela komeni **Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua edo *Osakidetza-Servicio Vasco de Salud* erabiltzea, eta, euskaraz edo gaztelaniaz ari garenean, nahikoa dela *Osakidetza* bakarrik erabiltzea Ente Publikoari erreferentzia egiteko.

Beraz, modu orokorrean, *Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua*ren ordez, *Osakidetza* erabiliko da:

↓Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren aurrekontua
Osakidetzaren aurrekontua

Hala ere, BOEn edo espainiar estatuan argitaratu beharreko testuetan, zilegi da gaztelaniazko bertsioan *Osakidetza-Servicio Vasco de Salud* erabiltzea; izan ere, litekeena da izen deskribatzailea beharrezkoa izatea Estatu mailan, Osakidetza zer den jakiteko. Era berean, nazioarteko testuinguruan, *Osakidetza Basque Health Service* idatziko da, ingelesez. Horrez gain, nolabaiteko eragin juridiko-administratiboa duten testuetan (ebazpenak, akordioak, hitzarmenak...), izen osoa erabili behar da beti, hau da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua.

~ Osasun-barrutia vs Osasun-eremua

Osasun-arloari lotuta, ondo bereiztu behar dira *osasun-eremua (zona de salud)* eta *osasun barrutia (área de salud).*

Osasun Ministerioaren definizioaren arabera, osasun-barrutia *(área de salud)* da antolaketari eta funtzionaltasunari dagokionez LMAko zentroak eta profesionalak biltzen dituen mugape administratiboa. EAEn, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legek hala ezarrita, 3 osasun-barruti daude: Bizkaikoa, Arabakoa eta Gipuzkoakoa.

Bestalde, *EAEko osasun-eremuak finkatzen dituen Osasuneko sailburuaren 2018ko apirilaren 20ko Aginduaren arabera*, osasun-eremua *(zona de salud)* da baliabide sanitarioak antolatzeko erreferentzia gisa balio duen oinarrizko lurralde-esparrua. Osakidetzan, osasun-eremuak Lehen Mailako Arretako unitateetan (LMAU) antolatzen dira.

~ Ospitalizazioa vs ospitaleratzea

Oso argia da *ospitaleratu* aditzaren oinarria: ospitale + adlatibo-marka (NORA) + aditz-atzizkia *(-tu)*. Eta hiztegiko *definizioak* argi uzten du aditzak norabidea markatzen duela: "Erietxe batera eraman". Osakidetzaren testuinguruan, aldiz, *ingresu* hitzaren sinonimo baten bila, ezin da norabidearen zentzua duen terminorik erabili, ingresuak berak ospitaleko egonaldia baitakar, ez mugimendurik. Hori dela eta, *ospitalizazioa* mailegua hobesten da halako kasuetan.

~ Pediatriako adin-tarteak

Pediatriarekin lotutako testuetan, askotan, adinaren arabera bereizten dira haurrak. Ez da sailkapen zehatz bat, eta testuinguruak aginduko du noiz eta zein erabili. Hala ere, hona hemen sailkapenean lagungarriak izan daitezkeen ohar hauek:

Neonato / Recién nacido > Jaioberri. 0-28 egun bitarteko haurrak.

Lactante > Bularreko haur. 1-24 hilabete bitarteko haurrak. Ez dauka zerikusirik bularra hartzearekin, aro baten izendapen bat besterik ez da.

Niño/a > Haur. 2-11 urte bitartekoak.

Pre-escolar > Haurreskolako haur. 2-5 urte bitarteko haurrak.

Escolar > Eskolako haur. 6-11 urte bitarteko haurrak.

Adolescente > Nerabe. 12-14 urte bitartekoak.

Gogoan izan termino hobetsia *haur* dela (*bularreko haur, haurreskolako haur, eskolako haur...*), baina zilegi da *ume* hitza erabiltzea testu baten barruan sinonimoak aipatzean edota tradizioz beste hitz hori erabiltzeko joera dagoen eremuetan/eskualdeetan.

~ Pendiente

Lokalizazioari lotuta, Osakidetzako aplikazioetan eta web-zerbitzuetan, *pendiente* hitza sarri erabiltzen da eta zalantzazkoa izaten da. Gaztelaniazko testuetan hitzak bere horretan oso ondo funtzionatzen badu ere, testuinguruari erreparatu beharko diogu euskaraz dagokion formula aukeratzeko. Esaterako, *volante pendiente* adierazteko, hainbat itzulpen daude aukeran, testuinguruaren arabera: *egin gabe dagoen bolantea, egiteke dagoen bolantea, eman gabe dagoen bolantea, inprimatzeke dagoen bolantea...* Hori dela eta, funtsezkoa da testuingurua argi edukitzea, eta, beharrezkoa bada, dagokionari galdetzea.

~ Personal > pertsonal, langile

Biak dira sinonimoak eta biak erabiltzea zilegi da. Langileen multzoari erreferentzia egiteko, *langileria* ere erabil daiteke.

~ Sanitario vs osasun-

Irizpide orokor moduan, *de salud* > *osasun-* eta *sanitario* > *sanitario* itzuli ohi dira. Hala ere, *sanitario*, testuinguruaren arabera, *osasun-* gisa ere itzul daiteke, ez alderantziz. Esaterako:

> Profesional sanitario > profesional sanitario; osasun-arloko profesional; osasun-langile
> Sistema sanitario / Sistema de salud > sistema sanitario; osasun-sistema

~ Zaintza vs zainketa

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*ren arabera sinonimoak badira ere, Osakidetzaren testuetan bata eta bestea esanahiaren arabera bereiztea proposatzen da. Zainketak erizainek, mendekotasunak dituzten pertsonen zaintzaileek eta bestelakoek ematen dituzte (hau da, gaztelaniazko *cuidados* hitzaren pareko). Zaintza, ordea, jagoletzari eta babesari dago lotuago (zaintza epidemiologikoa, zaintza partekatua…); gaztelaniazko *vigilancia* eta *custodia* adierazteko erabiltzen da, batik bat.

OSAKIDETZAKO ZERBITZU-ERAKUNDEEN IZENAK

Hainbat urtean, ez Osakidetzan, ezta Osasun Sailean ere, inork ez du hartu bere gain Ente Publikoaren erakundeen izenak sortzeko ardura. Integrazio-prozesuaren ondotik ere, erakundeak eurak arduratu dira sortu berritako Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) izena hautatzeaz lehenago inork irizpide argirik eman gabe. Horren ondorioz, izen batzuetan lekua adierazten duen atzizkia desagertu da (adibidez: *Eibar Ospitalea, Uribe ESIa*), beste batzuetan koherentziarik ez duten irizpideak aplikatu dira (*Debagoieneko ESIa*, baina *Debabarrena ESIa*), beste batzuetan okerreko kasu-markak jarri dira (*Bidasoako ESIa*), eta kasuren batean euskara eta gaztelania nahasi dira (*Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESIa*).

Horregatik, 2016. urtean, Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboak hausnarketa bat egin zuen zerbitzu-erakundeen izenen harira, eta Osasun Sailari helarazi zion idatziz. Hauxe zen helburua: izen zuzenak, koherenteak eta herritarrentzako hurbilak edo ulergarriak sortzeko biderik egokiena zein izan litekeen aztertzea. Zenbait txosten trukatu eta bilera egin ostean, 2019ko abenduaren 24an, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Osakidetzan egiletza eta afiliazio instituzionala bateratzeari buruzko 2019ko martxoaren 5eko Ebazpenaren zuzenketa argitaratu zuen (2019ko apirilaren 16ko EHAA 74. zk.).

Ebazpenaren eranskin batean eta *2019ko abenduaren 24ko zuzenketan eta 2022ko irailaren 19ko zuzenketan* Osakidetzako erakundeentzat onartzen diren izendapenen zerrenda argitaratu zen; izendapen ofizialak dira; beraz, Osakidetzan sortzen diren dokumentuetan eta itzulpen guztietan erabili beharrekoak dira.

Hona hemen izendapenen zerrenda, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez:

ES	EU	EN
erakundeen lehen maila		
Osakidetza	Osakidetza	Basque Health Service
Departamento de Salud del Gobierno Vasco	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila	Ministry of Health of the Basque Government
BIOEF	BIOEF	BIOEF
Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias	Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa[3]	Basque Foundation for Health Innovation and Research
Instituto de Investigación Sanitaria Biocruces Bizkaia	Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua	Biocruces Bizkaia Health Research Institute
Instituto de Investigación Sanitaria Bioaraba	Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua	Bioaraba Health Research Institute
Instituto de Investigación Sanitaria Biodonostia	Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua	Biodonostia Health Research Institute
Kronikgune	Kronikgune	Kronikgune
Instituto de Investigación en Servicios de Salud Kronikgune	Kronikgune Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutua	Kronikgune Institute for Health Services Research
Fundación Onkologikoa	Onkologikoa Fundazioa	Onkologikoa Foundation
erakundeen bigarren maila		
Osakidetzaren barruko erakundeak		
Dirección General	Zuzendaritza Nagusia	Directorate General
Emergencias	Emergentziak	Emergencies
Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos	Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa	Basque Centre for Transfusion and Human Tissues
Osatek	Osatek	Osatek
Organizaciones Sanitarias Integradas (OSI)	Erakunde Sanitario Integratuak (ESI)	Integrated Health Organisations
Organización Sanitaria Integrada Araba	Arabako Erakunde Sanitario Integratua	Araba Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Barakaldo-Sestao	Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratua	Barakaldo-Sestao Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Barrualde-Galdakao	Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratua	Barrualde-Galdakao Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Bidasoa	Bidasoko Erakunde Sanitario Integratua	Bidasoa Integrated Health Organisation

[3] Aipatutako Ebazpenean bi izendapen jotzen dira egokitzat euskaraz: Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa eta Berrikuntza Ikerketa Osasuna Eusko Fundazioa, baina, Osakidetzako testuetan, lehenengoa hobetsiko da, arau sintaktikoen arabera egokiagoa delakoan.

Organización Sanitaria Integrada Bilbao-Basurto	Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratua	Bilbao-Basurto Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Debabarrena	Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratua	Debabarrena Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Debagoiena	Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua	Debagoiena Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Donostialdea	Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratua	Donostialdea Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratua	Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Goierri-Urola Garaia	Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratua	Goierri-Urola Garaia Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Rioja Alavesa	Arabako Errioxako Erakunde Sanitario Integratua	Rioja Alavesa Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Tolosaldea	Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratua	Tolosaldea Integrated Health Organisation
Organización Sanitaria Integrada Uribe	Uribeko Erakunde Sanitario Integratua	Uribe Integrated Health Organisation
Red de Salud Mental de Araba	Arabako Osasun Mentaleko Sarea	Araba Mental Health Network
Red de Salud Mental de Bizkaia	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	Bizkaia Mental Health Network
Red de Salud Mental de Gipuzkoa	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea	Gipuzkoa Mental Health Network
Hospital de Gorliz	Gorlizko Ospitalea	Gorliz Hospital
Hospital Santa Marina	Santa Marina Ospitalea	Santa Marina Hospital
Escuela Universitaria de Enfermería de Vitoria-Gasteiz	Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola	Vitoria-Gasteiz School of Nursing

OSASUN-ZENTROEN IZENAK

Ente handia da Osakidetza: 400 zentro baino gehiago ditu, eta garrantzitsua da haiek izendatzeko irizpide bateratu bati jarraitzea. Horren harira, Osakidetzan egiletza eta afiliazio instituzionala bateratzeari buruzko ebazpena eman zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak (2019ko apirilaren 16ko EHAA 74. zk.). Ebazpenean, honako hau esaten da: “Hirugarren mailan, Osakidetzaren mendeko erakundeentzat, erakunde publikoaren web-orrian agertzen den nomenklatura erabiltzea gomendatzen da”.

Hori dela eta, Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboak egungo zentroen zerrenda bildu du, eta *Euskaltzaindiak onomastikan* ezarritako jarraibideen arabera zuzendu eta bateratu ditu zentroen izenak. Gero, Osasun Sailaren oniritzia jaso ostean, aipatu webgunean izen batzuk zuzendu dira, baita zerrenda berritua fitxategi batera bildu ere. Zerrenda hori Osakidetzako intranetean dago eskuragarri.

~ Irizpide linguistikoak

Izenen sorrera koherentea dela bermatzeko, erabaki linguistiko batzuk hartu behar izan ditu taldeak, bateratze prozesuari begira. Erabaki horiek Euskaltzaindiaren arauetan eta Osakidetzak ezarri dituen estilo-irizpide linguistikoetan daude oinarrituta:

a) Herri, udalerri edo auzoaren euskal izena hobetsiko da orokorrean, Euskaltzaindiak argitaratutako Euskal Onomastikaren Datutegian (EODA) azaltzen denari jarraikiz.

Dulantziko Kontsultategia; Gesaltza-Añanako Kontsultategia

b) Zentroaren izenak toki bati erreferentzia egiten badio, *-(e)ko* genitibo-marka erantsiko zaio tokiari, euskaraz era naturalean egiten den bezala:

↓Gurutzeta Ospitalea
Gurutzetako Ospitalea

↓Errekalde Osasun Zentroa
Errekaldeko Osasun Zentroa

↓Urduña Kontsultategia
Urduñako Kontsultategia

c) *-(e)ko* atzizkia euskal gramatikaren arauen arabera erantsiko da:

*Azpeitiako Osasun Zentroa
Azpeitiko Osasun Zentroa

*Alegiko Kontsultategia
Alegiako Kontsultategia

d) Kontsonantez (*n, l, s, z, tz* edo *r*) bukatzen diren leku-izenei kasu-markak eransteari agokionez, zerrendako izenei koherentzia emateko, *-e-* epentetikorik gabeko moldearen alde egitea proposatzen da, hau da: *-rko, -zko, -sko, -ngo, -lgo*…

Eibarko; Zarauzko; Galdamesko; Aguraingo; Usurbilgo

Dena dela, Euskaltzaindiak bi moldeak onartzen dituenez, tradizioz eta erabileraz *-e-* epentetikoa gailendu den kasuetan, salbuespena onartuko da.

Groseko Osasun Zentroa

e) Izena —eta ez lekua— zehazten denean soilik onartuko da aposizioa, eta tartean marratxorik jarri gabe.

Alfredo Espinosa Ospitalea; Santa Marina Ospitalea

f) Baina izenari ez ezik lekuari ere (eta batez ere lekuari) erreferentzia egiten zaionean, *-(e)ko* atzizkia hobetsiko da (adibidez, Olagibelgo Anbulatorioa, San Ignazioko Osasun Zentroa), salbu eta izenarekin batera pertsonaren lanbide, titulu edo kargua agertzen bada, kasu horietan izen-lanbideak eta horrekin batera *-(r)en* atzizkia hobetsiko baitira (esaterako, *Areiltza Doktorearen Anbulatorioa).*

Euskaltzaindiak argitaratutako *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak* dokumentuan azaltzen den bezala:

> *"Zenbaitetan, pertsonaren izenaz gainera (izena eta deitura), beste hitz batzuk ere sartzen dira odonimoaren atal espezifikoan. Horren ondorioz, batzuetan, aldatu egiten da oinarrizko egitura, eta, aposizio hutsa erabili beharrean, genitiboa erabiltzera jotzen da. Hauek dira kasurik ohikoenak: […]*
>
> *Lanbide, titulu edo karguaren izena pertsonaren izenaren ondoren dagoenean*
>
> *Gehienetan, lanbidea edo kargua adierazten duen hitza pertsona-izenaren ondoren jartzen da. Kasu horretan, edutezko genitiboaren bidez lotzen zaio odonimoaren atal generikoari, egitura honekin:*
>
> *[Pertsona-izena + (lanbide- edo kargu-izena) + -EN + (kalea, plaza…)]"*

Hori dela eta, Osakidetzan ere, halako kasuetan, *-(r)en* genitibo-marka erabiliko da.

Areiltza Doktorearen Anbulatorioa; Etxaniz Suhiltzailearen Anbulatorioa

Eta zentroaren izena laburtzearren, lanbide, titulu edo kargua ez jartzea erabakitzen bada, arau orokorra bete beharko da, *-(e)ko* leku-atzizkia gehituz:

Castaños Jeneralaren Osasun Zentroa > Castañosko Osasun Zentroa

g) Batzuetan, zentroen izenak herria-auzoa, eskualdea-udalerria eta antzeko formulen bidez adierazten dira, kokapena edota eragin-eremua argiago adierazteko. Horietan, administrazio-eremurik handiena jarriko da aurretik eta txikiena bigarren, marratxoz lotuta. Esaterako:

Durango-Landakoko Osasun Zentroa

Santutxu-Karmeloko Osasun Zentroa

Aiara-Laudioko Osasun Mentaleko Zentroa

h) Zentroaren izenak zenbaki bat daukanean barnean, aposizioaren bidea erabiliko da, eta zenbakiari ez zaio erantsiko kasu-markarik. Adibidez:

Urbi-2 Osasun Mentaleko Zentroa

i) Tokia adierazten duen izenarekin batera, zentroaren izaera definitzen duen beste gehikuntzarik badago, marra erabiliko da (ktrl. + -) toki-izena eta gehikuntza hori bereizteko, ez parentesia; besteak beste, hala gertatzen da espetxeetako zentroekin edota egoitzekin:

Basauri-Urbiko Osasun Zentroa – Espetxea

Arabako Unibertsitate Ospitalea – Santiago egoitza

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa – Galdakao

Izen horiei kasu-markak erantsi behar zaizkienean edo esaldi batean txertatu behar direnean, nolabait adierazi behar da zentro baten egoitza jakin bat dela:

Basauri-Urbiko Osasun Zentroko erizaina naiz espetxeko egoitzan.

Kontratuaren xedea da anestesia-estazioz eta arnasgailuz hornitzea AUO (Santiago egoitza).

Ama Esnearen Bankua Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroaren Galdakaoko egoitzan dago.

~ Erabilera-irizpideak

Osasun-zentroa, anbulatorioa eta kontsultategia

Osasun-zentroekin, argi eduki behar da zein testuingurutan erabiltzen den izena. Askotan, eraikin berberean Lehen Mailako Arretako osasun-zentroko kontsultak eta kontsulta anbulatorioak egiten dira. Testu orokorretan, eraikinari erreferentzia egiten diogunean, zilegi da, besteak beste, *anbulatorioa* erabiltzea; aldiz, barne-funtzionamenduaz ari garenean (hau da, langileak atxikita dauden erakundeaz), kontuan hartu behar da langileak ezin direla egon atxikita anbulatorio bati: erreferentziazko ospitaleari daude atxikita eta anbulatorioan pasatzen dituzte kontsulta batzuk. Eta berdin gertatzen da kontsultategien kasuan. Beraz, lanpostu bati buruz hitz egiten denean, gogoan hartu behar da lanpostuak osasun-zentroei edo ospitaleei atxikita egon daitezkeela.

Esaterako, eraikin batean obrak egingo direla azaltzeko ohar orokor bat idatzi behar bada, zilegi izango da hau erabiltzea:

Irailaren 2tik 5era, XXX kaletik soilik sartu ahalko dira erabiltzaileak Zaballako Anbulatoriora.

Izan ere, Zaballakoan (Barakaldo) osasun-zentroa eta anbulatorioa daude eraikin berean.

Lekualdatze-lehiaketa batean, ordea, lanpostuak beti Zaballako Osasun Zentroan edo San Eloy Ospitalean (anbulatorioaren erreferentziazko zentroa) egongo dira.

(Azalpen honek ez die eragiten osasun mentaleko sareei eta Emergentziak erakundeari).

Bestalde, gogoratu errotulazioan, askotan, ez dagoela zertan jarri herriaren izena. Esaterako, Artzentales-Translaviñako Kontsultategiaren atean, zilegi izan liteke *Kontsultategia* bakarrik jartzea; izan ere, jendeak badaki Artzentalesko Translaviña auzoan dagoela, eta nahikoa da kontsultategia identifikatzea. Eta hori osasun-zentro eta kontsultategi guztien errotulazioan egin daiteke, izen ofiziala izan ez arren.

Etxebarriko Osasun Zentroa eta Etxebarriko Kontsultategia

Biak ala biak Barrualde-Galdakaoko ESIan daude, baina udalerri desberdinetan. Etxebarri Bilbo Handia eskualdean dago, Ibaizabal ibaiaren ertzean, eta, bertan, osasun-zentro bat dago. Etxebarria Lea-Artibai eskualdean dago, eta bertakoa kontsultategi bat da.

Inoiz biak batera zerrenda batean agertuko balira, eta testuaren idazleak uste badu irakurlearen mesederako bereizteko eta nahasteak saihesteko argibideren bat jarri behar dela (esaterako, destinoen zerrenda batean), zilegi da eskualdea parentesi bidez zehaztea edo oin-ohar baten bidez dudak argitzea.

Etxebarriko Osasun Zentroa (Bilbo Handia)

Etxebarriko Kontsultategia (Lea-Artibai)

LANPOSTU FUNTZIONALEN ZERRENDA

Osakidetzako plantillaren egitura osatzen duten lanpostu funtzionalen zerrenda itxia da, eta Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren bidez dago araututa. Nolanahi ere, Dekretuan erabiltzen den formulak testu barruan txertatzeko balio ez duelako edota erabiliaren erabiliaz lanpostu batzuen izenak bestela finkatu direlako, horiek egokitzeko proposamen batzuk egin ditu Euskara Zerbitzu Korporatiboak. Zerrenda hori Osakidetzako intranetean dago eskuragarri.

Hala ere, hona hemen dokumentu horretako lanpostuen izenak erabiltzeko pare bat irizpide:

~ Fakultatibo Espezialista Medikoa (Facultativo Especialista Médico) lanpostuaren forma laburtua FEM da, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

FEM General Cupo > Kupodun FEM Orokorra

FEM Pediatra - EAP > Pediatriako FEM - LMAT

~ Fakultatibo Espezialista Mediko Tekniko (Facultativo Especialista Médico Técnico) lanpostuaren forma laburtua FEMT da, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

FEMT Análisis Clínicos > Analisi Klinikoko FEMT

~ Batzuetan, gaztelaniaz zein euskaraz, espezialitatearen ostean azpiespezialitate moduko bat agertzen da, marraz bereizita. Marra horren bidez adierazten da, espezialitate nagusiaz gain, are gehiago espezializatutako lanpostu bat dela, eta ez dira inoiz juntagailu bidez lotu behar. Marra laburra erabili behar da eta marra laburraren albo bietara zuriune banaezin bat.

Facultativo Especialista Médico Cirugía General y Aparato Digestivo - Cirugía Hepática
↓Kirurgia orokorreko, digestio-aparatuko eta kirurgia hepatikoko fakultatibo espezialista medikoa
Kirurgia orokorreko eta digestio-aparatuko fakultatibo espezialista medikoa - kirurgia hepatikoa

~ Lanpostu funtzionalak testu barruan aipatzeko, komeni da *lanpostua* edo *lanpostu funtzional* hitz deskribatzailea erabiltzea ostean, lanpostuaren izenaren egiturari aldaketarik egin behar ez izateko.

Dña. Laura Bacigalupe Artacho, Directora de Personas de la OSI Alto Deba, en uso de las competencias atribuidas en la Resolución 0101/2002 del 27 de agosto del Director Gerente del Hospital Alto Deba sobre la delegación de funciones en materia de personal, ha tenido a bien nombrar a D. XXXXXXX para ocupar mediante relación de empleo estatutario de carácter interino el puesto de Facultativo Especialista Médico Cirugía General y Aparato Digestivo - Cirugía Hepática.

Laura Bacigalupe Artacho andreak, Debagoieneko ESIko Langileen zuzendaria den aldetik, eta langileen arloan funtzioak eskuordetzeari buruz Debagoieneko Ospitaleko zuzendari-gerenteak abuztuaren 27an eman zuen 0101/2002 Ebazpenak ematen dizkion eskumenez baliaturik, XXXXX jauna izendatzen du lan-lotura estatutupeko baten bidez bitarteko gisa bete dezan kirurgia orokorreko eta digestio-aparatuko fakultatibo espezialista mediko - kirurgia hepatikoa lanpostu funtzionala.

OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZEN, ZUZENDARIORDETZEN ETA KARGUEN IZENAK

Osakidetzaren barne egitura konplexua da, eta, egitura horren antolaketa eta funtzionamendu egokia bermatzeko, ardurak gaiaren araberako multzoetan sailkatzen dira: zuzendaritzak, zuzendariordetzak, zerbitzuak, unitateak, atalak, azpiatalak, taldeak...

Zuzendaritzen, zuzendariordetzen eta atalen/zerbitzuen izenak ez dira finkoak, gerta daitekeelako beharren arabera aldatzea, berriak sortzea edota desagertzea. Izenok modu bateratuan erabiltzen hasteko asmoz, Osakidetzan dauden zuzendaritza eta zuzendariordetzen eta karguen izenak bildu dira, Zuzendaritza Nagusitik eta ESIetako zuzendaritzetatik hasita. Zerrenda hori Osakidetzako intranetean dago eskuragarri.

HIZKERA SANITARIOA

Lagunarteko terminoak

Gaixotasunak izendatzeko bada nazioarteko sailkapen bat (GNS10), milaka terminoz osatutakoa. Arlo sanitarioko langileek izendapen horiek erabiltzen dituzte historia klinikoetan eta diagnostikoak egiteko, besteak beste. Nolanahi ere, zerrenda oso-oso luzea da GNS10eko terminoena, eta, hori dela eta, langile sanitarioek "lagunartekoak" deritzon zerrenda bat adostu dute, termino erabilienekin.

Osakidetzan, gaztelaniaz sortutako zerrenda hori euskaraz ere osatu eta balioztatu da.

Birusen nomenklatura

Birusen izenak Birusen Taxonomiaren Nazioarteko Batzordeak ezartzen ditu (ICVT, ingelesezko siglak). Hala, batzorde horrek, bere lehenbiziko txostenetan, birusen nazioarteko nomenklaturan latinezko izenak erabiltzearen alde egin zuen (hau da, latinez arautu zituen birusen ordena, familia, azpifamilia eta generoen izenak). Nolanahi ere, gaur egun, ingeleseko nomenklatura gailenduz joan da adituen artean eta Batzordeak ezabatu egin du latinezko izenak erabiltzeari buruzko jarraibidea.

Ondorioz, egun, ingelesezko eta latinezko izendapena elkarrekin bizi dira birusen ordena, familia, azpifamilia eta generoei dagokienez. Espezieen izendapena, aldiz, ez da inoiz arautu, eta ingelesezkoa hartu ohi da nazioartekotzat.

Hori horrela, euskaraz, ordenetatik generoetara arteko taxonomietan, latinezko izendapena (etzanez eta hasierako hizkia maiuskulaz) erabil daiteke, edota ingelesezko izendapena euskarazko grafiara egokituta.

Poxviridae familia edo poxbirusen familia

Espezieetarako, aldiz, izen latinorik ez dutenez, aukera bakarra da erdara oinarri hartuta euskal grafiara egokitzea. Hona hemen egokitzapena egiteko irizpide batzuk:

~ Birus batzuk eragiten duten gaixotasunaren bidez izendatzen dira. Ingelesez, ohikoena gaixotasunaren izena + virus hitza erabiltzea da. Gaztelaniaz, ordea, virus hitza + de + gaixotasunaren izena formula erabili ohi da. Euskaraz, *-ren* genitiboaren bidez egiten da lotura hori.

gripearen birusa *(influenza virus, virus de la gripe)*

hazizurrien birusa *(mumps virus, virus de las paperas)*

giza immunoeskasiaren birusa *(human immunodeficiency virus, virus de la inmunodeficiencia humana)*

Batzuetan, espezieaz goragoko maila taxonomiko batean badago birusaren izen oso hedatu bat. Halakoetan, euskarara egokitzeko aukera bat baino gehiago dago.

giza herpesaren birusa edo giza herpesbirusa (herpesbirusen familiakoa)

giza papilomaren birusa edo giza papilomabirusa (Papillomavirus generokoa)

~ Beste birus-izen batzuek haiek lehenbiziko aldiz isolatu ziren tokian dute jatorria. Ingelesez, tokia + virus hitza erabiltzen da halakoak izendatzeko, eta, gaztelaniaz, virus + de + tokia. Euskaraz, NONGO forma erabiltzea komeni da halakoetan eta tokiaren izena letra larriz idazten da.

Ebolako birusa (*Ebola virus, virus del Ébola*) [Ebola ibaia]

Norwalk-eko birusa (*Norwalk virus, virus de Norwalk*) [Norwalk hiria]

Mendebaldeko Niloko birusa (*West Nile virus, virus del Nilo Occidental*) [Nilo ibaia]

Zikako birusa (*Zika virus, virus de Zika*) [Zika ibaia]

Batzuetan, birusaren jatorrizko kokapenaz gain, anduiaren kokapena ere zehazten da birus-espeziaren izendapenean. Halakoetan, aurrena eskualderik handiena idatzi ohi da, eta, gero, txikiena.

Zaire-Ebolako birusa (Ebolako birusaren Zaireko anduia)

Boli Kosta-Ebolako birusa (Ebolako birusaren Boli Kostako anduia)

Kokapenaren osteko marratxoa aukerakoa izaten da, tokia zeinen ezaguna den oinarri hartuta.

Dena dela, egia da mota honetako birusetatik gaixotasunen izenak sortzen direla sarri analogiaz, eta, orduan, toki izen horiek izen arrunt bihurtzen dira. Halakoetan, zilegi da letra xehea erabiltzea.

Abenduaren hasieran, asteko 5.000-10.000 ebola-kutsatu izango direla uste du OMEk.

~ Beste birus-izen batzuek haiek deskubritu zuen pertsonaren izena dute oinarrian. Ingelesez, abizena + virus hitza erabiltzen da halakoak izendatzeko, eta, gaztelaniaz, virus + de + abizena. Euskaraz, NOREN forma erabiltzea komeni da, izen berezia letra larriz idatzita.

Epstein-Barr-en birusa [M.A. Epstein-ek eta Y.M. Barr-ek deskribatutako birusa]

~ Ingelesezko nomenklaturan, gaixotasuna eragiten duten birus batzuen izenek sigla + virus hitza forma hartzen dute. Euskararen —eta gaztelaniaren— joera, halako kasuetan, gaixotasunaren izen luzea erabiltzea da, sigla albo batera utzita.

B herpesaren birusa (*B virus, virus del herpes*)

Epstein-Barr-en birusa (*EB virus, virus de Epstein-Barr*)

Entzefalomiokarditisaren birusa (*EMC virus, virus de la encefalomiocarditis*)

Azido nukleikoen izendapena eta deklinabidea

Azido nukleikoak, askotan aipatzen dira testu sanitarioetan, batez ere, bi mota nagusitakoak: azido desoxirribonukleikoak eta azido erribonukleikoak. Gehienetan, forma laburtua erabiltzen da, eta, horregatik, *Zientzia eta Teknikako Euskara Arautzeko Gomendioak* (EIMA) liburuan oinarrituta, komeni da ohar batzuk egitea horren inguruan.

~ DNA/RNA formak erabiltzea hobesten da euskaraz.

~ Siglak direnez, kasu-marka marratxorik gabe lotzen zaie.

DNAren erreplika; RNAri buruzko ikerketa

~ DNA/RNA siglek berezko -a dute; hortaz, ez da mugatzailerik gehitu behar.

DNA eta RNA hidrolizatzeko entzima espezifikoak erabili zituzten.

Birusaren RNAri lotzen zaio.

~ RNA mota bat baino gehiago dago, zeinak ezkerraldean hizki xehe bat gehituta bereizten diren:

mRNA	RNA mezularia
rRNA	RNA erribosomikoa
tRNA	RNA transferentziazkoa
hnRNA	RNA nuklear heterogeneoa
snRNA	RNA nuklear txikia
vRNA	RNA birikoa

Alfabeto grekoa hizkera sanitarioan

Gauza jakina denez, hizkera zientifikoak eta, batez ere, hizkera sanitarioak asko edaten du latinetik eta greziarretik. Besteak beste, greziar alfabetoaren letrak sarritan erabiltzen dira fisikarekin, informatikarekin, astronomiarekin eta medikuntzarekin erlazionatutako nomenklatura gisa. Besteak beste, azken urteotan, oso ezagun egin da joera hori OMEk covidaren aldaerak greziar alfabetoko letrekin izendatzeko hartutako erabakiaren ondorioz.

covidaren omikron aldaera

Hori dela eta, argi eduki behar dugu letra hauek euskarazko testuak idaztean nola erabili beha diren, eta, horretarako, pare bat ohar:

~ Alfabeto grekoaren letren izenak Euskaltzaindiak zehaztu ditu euskaraz, zenbait arauren bidez (EBE, Alfabeto grekoaren izenak eta letren izenak). Hala, honela idatzi behar dira:

alfa, beta, gamma, delta, epsilon, zeta, eta, teta, iota, kappa, lanbda, mu, nu, xi, omikron, pi, ro, sigma, tau, upsilon, fi, khi, psi, omega.

~ Alfabeto grekoa eta gurea ez datoz bat. Letrak desberdinak dira, eta hizki batzuek gure alfabetoko letra batzuen itxura antzekoa dute, soinu/ahoskera desberdina izan arren. Beraz, nahasgarriak dira batzuetan. Adibidez, *E immunoglobulina (IgE)* terminoko alfabeto grekoko upsilon maiuskula gure alfabetoko E maiuskularekin nahasten da askotan edota, *ß blokeatzaileak* terminoan, alfabeto grekoko beta minuskula hori alemanezko Eszett (ß) letrarekin nahasten da askotan. Ezinbestekoa da, beraz, alfabeto grekoko letrak nola idazten diren argi edukitzea: *Euskaltzaindiaren 173. araua* (12. orria).

~ Alfabetoko letra dagokion elementuaren izena da; beraz, normalean, izen berezi + izen aposizio forma hartuko du. Horrez esan nahi du, ez daramala hitz-elkarketaren marratxorik eta izen berezia izenaren aurretik joango dela. Adibidez:

alfa-1 antitripsina (AAT); beta-amiloide proteina edo Aß proteina; kappa indizea; alfa blokeatzaileak; gamma uhinak

~ Hala ere, batzuetan, letra grekoa izenaren parte da, eta loturik idatzi behar zaio izenari.

gammagrafia; betametasona

Farmakoak eta printzipio aktiboak

Aurreko ataletan han edo hemen aipatu bada ere, hemen laburbilduko da farmakoak eta printzipio aktiboak nola aipatu behar diren. Arau hauek berdin funtzionatzen dute euskaraz eta gaztelaniaz (*Ortografía de la lengua española*, apartado 4.2.4.9.11).

~ Medikamentuen printzipio aktiboak eta izen generikoak izen arruntak dira. Beraz:

-Letra xehez idazten dira.

El médico me ha dicho que tome acetazolamida.

Medikuak azetazolamida hartzeko esan dit.

-Grafia egokitu egiten da gaztelaniatik euskarara.

paracetamol > parazetamola

~ Medikamentuen izen komertzial erregistratuak izen propioak dira. Beraz:

-Letra larriz hasita idazten dira.

Hemen, betaxolola erabiltzen da hipertentsioaren aurka, eta Betoptic izenarekin saltzen da.

-Ez dira egokitu behar.

Ez dago Ziagen eta Seroquel botiken izakinik.

-Letra larriz erabili behar dira medikamentu horren dosiei edo zatiei erreferentzia egiten zaienean:

Haginetako mina nuen eta Nolotil bat hartu behar izan nuen.

~ Jatorrizkoaren oinarrizko propietateak dituen edozein produktu izendatzera pasatu diren farmakoen izen komertzialek izen arrunt gisa funtzionatzen dute, eta letra xehez idazten dira, eta kasu-markarekin:

Ba al duzu aspirinarik? (edozein analgesiko, batez ere azido azetilsalizilikoz egina badago)

~ Testugileak edo itzultzaileak ez badauka argi aipatutako elementu bat marka erregistratua edo printzipio aktiboa den, bilaketa egin dezake *Asociación Española de Medicamentos y Productos Sanitarios (AEMPS) elkartearen webgunean*, eta emaitzetan egiazta daiteke marka ala printzipio bat den.

Sigla sanitarioak

Hizkera sanitarioan, siglak erabiltzeko joera handia dago. Nolanahi ere, aurreko atalen batean aipatu izan den bezala, zaila izaten da horiek euskaraz nola eman asmatzea, ez baitago euskaraz termino adostu edo estandarizaturik. Osakidetzaren barruan halako batzuen erabilera adosteko asmoz, bada proiektu xume bat martxan itzulpen zerbitzuan, sigla sanitarioak biltzekoa. Proiektu dinamikoa da, erreferentziazko materiala izateko sortua, eta tarteka eguneratua eta balioztatua.

Horrez gain, *Donostia Unibertsitate Ospitaleko ALTA TXOSTENAK* liburuko 79-80. orrietako zerrendak oso baliagarriak dira.

LOKALIZAZIOAN ARITZEKO JARRAIBIDE BATZUK [4]

Lokalizazioa da "produktuak edo zerbitzuak merkatu desberdinetan egokiak izan daitezen moldatzea". Ingeleseko *locale* hitzetik dator eta testu bat herrialde eta hizkuntza bateko eskualdeko ezarpenetara egokitzean datza. Zertan bereizten dira, beraz, itzulpena eta lokalizazioa? Itzulpena, zentzurik hertsienean, jatorrizko hizkuntzan dagoen testua xede-hizkuntzan jartzea besterik ez da. Lokalizatzea da produktu bat hartu eta produktu hori linguistikoki eta kulturalki egoki bihurtzea erabili edo salduko den tokiko ezaugarrietarako. Nolanahi ere, lokalizazioa, gaur egun, software eta webguneak itzultzearekin lotzen da.

Atal honetan, Osakidetzako software, aplikazio eta webguneetan erabili beharreko lokalizazio-jarraibide batzuk bildu dira. Hala ere, beste ezerekin hasi aurretik, gai nahiko ezezaguna denez gero, lokalizazioaren oinarrizko kontzeptuak azalduko dira.

SOFTWAREAREN OSAGAIAK

Softwareen lokalizazio-proiektuak ataletan banatuta egon ohi dira. Oro har, softwareek bi atal nagusi izaten dituzte: erabiltzaileen interfazea (*user interface*, UI, laburtuta) eta erabiltzaileentzako laguntza (ingelesez, *user assistance, UA*), lineako laguntzaz, dokumentazioaz eta albo-materialaz osatua.

Erabiltzaile-interfazea

Lokalizazio-proiektu gehienak softwarea itzuliz hasten dira. *User interfacea* edo erabiltzaile-interfazea da erabiltzaileak ikusten eta ukitzen duen atala, eta menuek, elkarrizketa-koadroek, mezuek, ikono, botoi eta barrek eta argibideek osatzen dute, besteak beste.

Erabiltzaile-interfazeen lokalizazio-proiektuetan, testua duten elementu guztiak itzuli eta egokitu behar dira. Normalean, informatikariek prestatzen dituzte softwarearen testu itzulgarria soilik duten fitxategiak. Osakidetzan, hain zuzen ere, Exceletan erauzi ohi dute informazio itzulgarri guztia, zutabetan.

[4] Hemen jasotako informazioa UEUren eta EHUren artean antolatutako Itzulpengintza eta Teknologiako Graduondoko Lokalizazioa moduluko apunteetan oinarrituta dago (irakaslea: Ane López Díez).

Erabiltzailearentzako laguntza

Erabiltzaileentzako laguntza (ingelesez, *user assistance, UA*) erabiltzaileari interfazea maneiatzeko jarraibideak ematen dizkion azalpen-testua da. Hitz kopuruari dagokionez, interfazea baino askoz handiagoa izaten da; hizkuntzari dagokionez, aldiz, interfazeak baino zailtasun gutxiago du testuinguru gehiago duelako.

Erabiltzailearentzako interfazea bitan banatzen da:

Lineako laguntza eta dokumentazioa

Dokumentazioa interfazeari laguntzen dioten eskuliburuak, erabiltzaile-gidak, tutorialak eta antzekoak dira. Erabiltzaileak Interneten zein paperean aurki dezake dokumentazioa; beraz, webguneen HTML/XML formatuan, PDF edo WORD fitxategi batean jasoko du itzultzaileak testua.

Albo-materiala

Albo-materialaren barruan askotariko elementuak daude. Besteak beste:

- Adibide-fitxategiak eta txantiloiak.

- Lizentzia-hitzarmenak. Softwarearen hornitzailearen eta erabiltzailearen artean ezartzen den kontratu modukoa da, produktuak erabiltzeko eskubideak eta baldintzak finkatzen dituztenak.

- IrakHau (ReadMe) fitxategiak. Laguntza-fitxategiak edo eskuliburuak egin ondoren sortutako informazioa egoten da (zuzenketak, eta abar).

- Marketin- eta salmenta-materiala. Sortutako produktuak saltzeko eta zabaltzeko erabiltzen den materiala da.

LOKALIZAZIOAREN OINARRIZKO ZENBAIT ALDERDI TEKNIKO

Kodea eta etiketak

Iturburu-kodea programa batek ordenagailu bati zerbait konkretua egin dezan ematen dion agindu multzoa da. Ordenagailuari “hitz egin” ahal izateko, programazio-hizkuntzak deritzenak asmatu ziren (html, java, xml…).

Programazio-hizkuntzek markak edo etiketak erabiltzen dituzte testua egituratzeko. Hizkuntza batzuetan, finkoak dira etiketak (esaterako, HTML), eta, beste batzuetan, ez. Adibidez, HTML kode batean, hau agertzen da: "Para abrir el archivo pulsa el botón Abrir."   etiketa pareak HTML programazio-hizkuntzan tartean dagoena *bold* letrarekin (letra lodiz) doala esan nahi du. Etiketa-kode horrekin, ordenagailuak ulertzen du lodiz bistaratu behar duela hitz hori; beraz, honela ikusiko luke erabiltzaileak pantaila: "Para abrir el archivo pulsa el botón **Abrir**".

Hizkuntza konplexuak dira, baina kodea eta testu itzulgarria fitxategi bereizietan daude; beraz, ez dago zertan kezkatu. Hala ere, testuan kode edo etiketaren bat aurkituz gero, argi eduki behar da etiketak ez direla ukitu behar; izan ere, kode edo etiketak aldatzeak ordenagailuak programaren hizkuntza ez ulertzea ekar dezake.

Hona hemen etiketei buruz jakin beharreko gauza garrantzitsuenetakoak:

Etiketa-pareak

HTML fitxategietako etiketak "hau baino txikiagoa" (<) eta "hau baino handiagoa" (>) ikurren artean ixten dira. HTML fitxategi guztiak irekiera-etiketa batekin hasten dira (<HTML>), eta itxiera-etiketa batekin amaitzen (</HTML>). Etiketa horiekin, hainbat gauza finkatzen da: edukiaren egitura, orriaren diseinua, testuaren formatua, irudien txertaketa, eta abar.

Kanpo-etiketak eta barne-etiketak

HTML fitxategietan, bi etiketa mota izaten da: kanpokoak eta barnekoak. Barne-etiketak segmentu itzulgarrien barruan egoten dira (adibidez, esaldien barruan). Horrelakoak dira, adibidez, letra lodien hasiera eta amaiera adierazten duten irekiera-etiketa () eta itxiera-etiketa (). Kanpo-etiketak, berriz, segmentu itzulgarrietatik kanpora daude, eta edukia markatzeko eta paragrafoei formatua emateko balio dute. Nolanahi ere, argi eduki beharreko kontua: etiketak ez dira aldatu behar.

Aldagaiak

Programazio-hizkuntzan aldagaiak erabili ohi dira hizkuntzaren ekonomiari begira. Aldagai batek hitz bat baino gehiago ordez dezake; beraz, aldagaiak agertzen direnean ere, arretaz jokatu behar da. Itzulpena egiteko orduan, ez da berdina aldagaiak zenbaki bat ordeztea, menu bateko aukera bat ordeztea edo karaktere-kate oso bat ordeztea.

> Hay un problema de compatibilidad con el/la %1 seleccionado
>
> Aldagaiak: archivo, carpeta, programa, unidad, disco duro

Horregatik, itzulitako esaldia antolatzeko, hainbat urrats eman behar ditu itzultzaileak. Lehenik, aldagaiak zer esan nahi dezakeen irudikatu behar da. Hauek dira aldagai ohikoenak:

%s (**s**tring, hau da, hizkizko kate bat; adibidez, izen bat)

%d (**d**ecimal number, hau da, zenbaki bat)

%1, %2, %3 (edozein gauza ordez dezakete)

{0}, {1}, {2} (aurrekoa bezalakoa, baina OLI tresna batzuetan horrela bistaratzen dira)

Ostean, aldagaiak zer ordeztu dezakeen jakinda aukera guztiekin funtzionatzen duen itzulpen bat aurkitu behar du katerako. Kontuan izan behar ditu kasu-marka, kolokazioak, luzera…

Hori guztia gutxi ez, eta euskaraz kasu-markak aldatu egiten dira hitzaren azken hizkiaren arabera. Beraz, testua ez "zikintzeko", komeni da ez jartzea kasu-markarik, eta horretarako itzulinguruak egin behar dira.

%1 ha abierto el documento el %2 %1=nombre de usuario %2=fecha
↓%1(e)k fitxategia ireki du %2(e)an
%1 erabiltzaileak fitxategia ireki du data honetan: %2
%1 erabiltzaileak fitxategia ireki du (%2)

Testuingururik ez

Lokalizazioaren alderdi latzenetako bat testuinguru falta izaten da. Kateak oso laburrak izaten dira eta batzuetan ez dute euren arteko loturarik. Logikoa litzateke erreferentziazko produktua eskura izatea testuingurua ikusi ahal izateko, baina hori oso gutxitan gertatzen da, eta, gertatuta ere, oso zaila da kate zehatzak aurkitzea programan.

Idealena litzateke garatzaileek testuingurua eta instrukzioak ematea katez kate, baina ez da ohikoa; beraz, beste bide batzuetatik jo behar izaten da: produktua (itzulgaia) ahalik eta hobekien ezagutu eta kateen IDei erreparatu.

Zer dira IDak? Katearen IDa edo identifikatzailea programako testu-kate itzulgarri bakoitzari ematen zaion izendapen alfanumeriko esklusibo bat da. Kate bakoitzak errepikatzen ez den identifikatzaile bat du, eta haren funtzioa kateak softwarearen kodean kokatzea da. Nolanahi ere, kodean izan dezaketen funtzioa gorabehera, oso baliagarriak izan daitezke itzultzaileentzat, zeren eta, programatzaileek hitz deskribagarriak erabiliz gero, informazio asko eman dezakete.

Message 2 **Message ID: string: timerFinished**

Agotado: %02d:%02d:%02d

Agotado horrek testuinguru gutxi duen arren, IDari esker badakigu tenporizadorea *(timer)* amaitu denean *(finished)* agertzen den mezua dela.

Message 4 **Message ID: string:title_upload_dialog**

Uploading

Kasu honetan, IDari esker badakigu Uploading hau elkarrizketa-koadro (dialog) baten izenburua dela (title), eta ez progresio-mezu bat ("kargatzen" motakoa).

Espazio-eskakizunak

Gauza jakina da testu baten luzera itzulpeneko hizkuntza-bikotearen arabera aldatzen dela. Adibidez, gaztelaniatik euskarara, testuak % 25 luzatzen dira, oro har. Hala, eskuliburu batean, helburuko testuaren luzera eta jatorrikoarena berdinak ez badira, itzultzaileak egokitu beharko ditu orrialde-zenbakia, erreferentziak eta indizeak. Software-interfaze bat lokalizatzean, berriz, baliteke testuak laburtu eta birformulatu behar izatea.

LOKALIZAZIORAKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Lokalizazio-alorraren ezaugarri adierazgarrienetakoak dira hizkuntzaren estilo markatua eta terminologia teknikoa. Atal honetan, euskarazko lokalizazioari dagozkion estilo-, gramatika- eta terminologia-arau adierazgarrienak azalduko dira, sarean erabilgarri dauden hiru estilo-gida nagusiak oinarri harturik:

- *Librezale-ren estilo-liburua eta terminologia* (Librezale)
- *Euskalterm* (arreta berezia Informatika azpiatalari, HPSk argitaratutako Bulegotika hiztegiaz eta Microsoft-en hainbat terminoz hornitua)
- *Zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa* (informatikari buruzko atal bat du, baita beste batzuk ere: elektronika, telekomunikazioak, teknologia...)
- *Microsoft language resources* (hemen, hizkuntzaz hizkuntzako estilo-gidak deskargatzeko eta terminologia-kontsultak egiteko aukera dago)

Lokalizazio-arauak

Hauetako asko euskarazko arau aski ezagunak izan arren, ohiko akats izaten dira lokalizazioan aritzean:

~ Sinpletasuna, ulergarritasuna, hitz-hurrenkera. Gaztelaniaz, esaldien ordena zurruna da, baina, euskaraz, informazioaren garrantziaren arabera antolatu behar da hitz-hurrenkera. Ez da beldurrik izan behar esaldi konplexuak zatitzeko edo hitz-ordena galdegaiaren, mintzagaiaren eta hizpideabarren arabera antolatzeko. Helburua da softwareen erabiltzaileek hizkuntza natural eta ulergarria jasotzea.

~ Informazio garrantzitsuena aurrena. Komeni da informaziorik garrantzitsuena esaldiaren hasieran ematea eta aginduak ordena kronologikoan egitea bai gaztelaniaz, bai euskaraz.

> Cuando se cargue la aplicación, abra el archivo
> ↓Ireki fitxategia aplikazioa kargatuta dagoenean
> Aplikazioa guztiz kargatuta dagoenean, ireki fitxategia
>
> Si ya tiene una cuenta, inicie sesión
> ↓Hasi saioa kontu bat baduzu
> Kontu bat baduzu, hasi saioa

~ Produktu-izenen kasu-markak. Produktu- eta marka-izenak izen berezitzat jotzen dira. Hala ere, bereizketa bat egingo da hemen: Osakidetzarenak diren edo harekin zerikusi zuzena duten produktu eta markei ez zaie marratxoa jarriko. Gainerakoen kasuan, marratxoa ipiniko diegu, lagungarria bada.

> Linux-en vs Osabide Globalen

~ Letra larriak eta xeheak. Ez dira jatorrizko testuaren letra larriak eta xeheak kopiatu behar. Ingelesak eta gaztelaniak baino egoera gutxiagotan erabiltzen ditu letra larriak euskarak; beraz, euskarazko arauei jarraitu behar zaie. Gauzak horrela, Alfontso Mujikak EIMA lan-programaren barruan sortutako *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* liburuxkako gidalerroei jarraikiz, letra xeheak erabiliko dira menuen, ekintzen, izenburuen eta abarren bigarren hitzean.

> Abrir Carpeta
> ↓Ireki Karpeta
> Ireki karpeta
>
> Herramienta de Gestión de Datos
> ↓Datuak Analizatzeko Tresna
> Datuak analizatzeko tresna

~ Kakotxak. Ingelesaren eraginez, software-proiektuetan kakotx bikoitzak (“”) erabili ohi dira, baita batzuetan kakotx bakunak (' ') ere. Euskaraz beti kakotx bikoitzak erabiliko dira (“”).

~ Ahaleran, subjuntiboan eta aginteran, aditzoina erabili. Bi aditz edo gehiago pilatzen direnean, ordea, azkena soilik idatz daiteke aditzoin gisa.

*Fitxategia jarri daiteke
Fitxategia jar daiteke

↓Taulak zure hobespenen arabera tamainaz alda, egoki eta antola ditzakezu
Taulak zure hobespenen arabera aldatu, egokitu eta antola ditzakezu

~ Bat zenbakiaren kokagunea. Lokalizazioko erabiltzaile-interfazeetan, Euskaltzaindiak neurri-izenetarako araututako egitura erabiltzen da bat zenbakiari dagokionez [ikusi *Euskara Batuaren Eskuliburuan* (EBE) azaltzen den *bat zenbakitzaileari buruzko 5. puntua*], hau da, bat zenbakia digituz ematean, beste zenbakiak bezala, unitatearen sinboloaren aurrean idazten da, baina euskal tradizioaren arabera irakurtzen da.

Se ha copiado un archivo
1 fitxategi kopiatu da (irakurtzean: fitxategi bat kopiatu da)

1 minuto
1 minutu (irakurtzean: minutu bat)

3 minutos
3 minutu

Kontuz, hori erabiltzaile-interfazerako erabiltzen da batik bat; dokumentazioko testu jarraia denean, ordea, bat idatz daiteke letraz ostean.

Para eliminar 1 archivo de la carpeta, el usuario debe hacer clic sobre el icono de la papelera.
↓Karpetako 1 fitxategi ezabatzeko, erabiltzaileak zakarrontziaren ikonoa sakatu behar du.
Karpetako fitxategi bat ezabatzeko, erabiltzaileak zakarrontziaren ikonoa sakatu behar du.

~ Posesiboak. Gaztelaniaz asko erabiltzen da *su* posesiboa. Euskaraz, aldiz, aditzean bertan argi geratzen dira normalean *zu* eta *zure* direlakoak. Beraz, gehienetan ez dira ipini behar.

Inserte el CD en la unidad para CDs de su ordenador
↓Sartu CDa zure ordenagailuko CD unitatean
Sartu CDa ordenagailuko CD unitatean

Hala ere, kontuan izan zenbait kasutan *tu/su* esanahi osoarekin erabiltzen direla. Kasu horietan hitzok eman beharrekoak dira. Adibidez, *Tu configuración* jartzen duen testu batean, normalean *Zure ezarpenak* itzuli behar izaten da.

Para realizar una copia de seguridad de tus fotografías y vídeos, vete a Mis archivos multimedia y selecciona Copia de seguridad.
Argazki eta bideoen babeskopia egiteko, joan Nire multimedia fitxategiak atalera eta hautatu Babeskopia.

~ Preposizioak. Ingelesezko edo gaztelaniazko preposizioak "imitatu" nahi izateak arazoak ekar ditzake euskarazko bertsioan, eta kalko okerrak sortu. Hauek izaten dira kolokazio-arazo ohikoenak kasu-markei dagokienez:

Kopiatu/Gehitu NON (inesiboa) ez: NORA (adlatiboa)

*Gehitu fitxategia karpetara
Gehitu fitxategia karpetan

*Kopiatu PDFa mahaigainera
Kopiatu PDFa mahaigainean

Deskargatu/Kargatu NORA (adlatiboa) ez: NON (inesiboa)

*Kargatu ziurtagiriak Osakidetzakoa aplikazioan
Kargatu ziurtagiriak Osakidetzakoa aplikaziora

Ordeztu ZEREKIN (asoziatiboa) ez: ZERGATIK (kausala)

*Ordeztu sinadura sinadura digitalagatik
Ordeztu sinadura sinadura digitalarekin

Sakatu ZER eta egin klik NON

*Txatbota erabiltzeko, sakatu pantailaren behealdean agertzen den txataren ikonoan
Txatbota erabiltzeko, sakatu pantailaren behealdean agertzen den txataren ikonoa
Txatbota erabiltzeko, egin klik pantailaren behealdean agertzen den txataren ikonoan

Hasi saioa NON edo ZEREKIN

Hasi saioa Jakinsarean ordenagailuan saioa hasteko erabiltzen duzun erabiltzailearekin eta pasahitzarekin

Jarraitu NORI (bideari, erabiltzaileari) vs Jarraitu ZERTAN/ZER egiten

Koagulometroa erabiltzeko, jarraitu gidaliburuko argibideei
Koagulometroko soinua konfiguratzeko, jarraitu ezkerreko botoia sakatzen, soinua hautatzeko aukera pantailan agertzen den arte

Era berean, kontuan izan gaztelaniazko *para* preposizioak ez direla beti helburuzkoak [*-(e)rako*] eta, gehienetan, genitiboa [*-(r)en*] erabili behar dela, emaitza naturalagoa lortzeko. Esaterako:

Establece un nombre para la carpeta
↓Zehaztu karpetarako izena
Zehaztu karpetaren izena

~ Ezberdin, desberdin vs beste, hainbat. Gaztelaniazko *diferentes* hitzak zenbait esanahi izan ditzake euskaraz: *desberdin*, *beste* eta *hainbat*. Horregatik, kontuz ibili behar da kalkoekin.

Elige una consulta diferente
Aukeratu beste kontsulta bat

Utiliza las diferentes teclas para elegir la opción deseada
Erabili teklak nahi duzun aukera hautatzeko

~ Baldintza hipotetikoa. Gaztelaniaz, askotan erabiltzen da erabiltzaileari zerbait egin behar duela modu adeitsuan eskatzeko, baina, euskaraz, baldintzarik gabe eta zuzenean eskatzen dira ekintzak batzuetan.

El valor debería estar en el intervalo de 0,00-30,0.
↓Balioak 0,00-30,0 bitartekoa izan beharko luke.
Balioak 0,00-30,0 bitartekoa izan behar du.

Bestalde, badaude *hipotetiko* horiek euskaraz emateko beste modu batzuk ere.

Velocidad a la que deberían ocurrir las animaciones del panel.
Panelaren animazioaren abiadura.

Ha abierto la ventana de ayuda, por lo que debería visualizarse pronto en la pantalla.
Laguntza-leihoa ireki duzu; laster pantailan agertu beharko litzateke.

Especifique la ubicación gconf en la que deberían guardarse las preferencias de la applet.
Zehaztu applet-aren hobespenak biltegiratzeko gconf kokalekua.

Erabiltzaile-interfazean kontuan hartu beharrekoak

~ Tekla, gezi, ikono eta botoien izenak

Izenaren lehenengo zatia maiuskulaz eta bigarrena minuskulaz hasi behar dira (Atzera tekla, Gora gezia, Azpimarratua botoia). Izenaren lehenengo zatiak hitz bat baino gehiago baditu edo hitz bakarra izanik nahasgarria izan badaiteke, komatxoen artean jarri behar dira ("Dokumentu huts berria" botoia edo "Ezabatu" ikonoa).

~ Botoiak, komandoak, aginduak eta menuetako elementuak

Elementu hauek itzultzeko irizpideak:

1) Hobe da aditza aurrean jartzea, aginduak baitira.

Cerrar ventana
↓Lehioa itxi
Itxi lehioa

2) Hobe aditz laguntzailerik ez erabiltzea

Habilita la opción de autorrellenado para rellenar formularios web
↓Gaitu ezazu betetze automatikoa web-inprimakiak betetzeko
Gaitu betetze automatikoa web-inprimakiak betetzeko

~ Gerundioak (progresio-mezuak)

Erabiltzaile-interfazeko kate askok gerundioa erabiltzen dute ekintza bat abian dela adierazteko. Adibidez, "Actualizando información" edo "Procesando solicitud". Euskaraz *-t(z)en* aditz-forma burutugabearekin adieraziko da progresio hori, beti aditz laguntzailerik gabe.

Actualizando archivo
↓Fitxategia eguneratzen ari da
Fitxategia eguneratzen

Se está actualizando el archivo
↓Fitxategia eguneratzen ari da
Fitxategia eguneratzen

~ Egoera-mezuak

Aurretik aipatutako zenbait gomendio konbinatzen dira mezu hauetan. Batetik, aditzak aurrean joan behar du instrukzioak ematean, eta, bestetik, informazio berrienak aurrean joan behar du. Horrez gain, beste bi esaldi mota aipatu beharra dago:

-Ezezkoak: ezezko partikulak (ez/ezin) aurrean egon behar du ia beti, galdegaia baita.

-Galderak: aditzak amaieran egon behar du beti.

Pulsa F1 para obtener ayuda Para obtener ayuda, pulsa F1	Laguntza lortzeko, sakatu F1
No hay memoria suficiente Memoria insuficiente	Ez dago behar adina memoria
¿Guardar cambios realizados en %1? ¿Desea guardar los cambios realizados en %1?	%1 fitxategian egindako aldaketak gorde nahi dituzu?
(kontuan hartu %1 hori, kasu honetan, fitxategiaren izenarekin ordeztuko dela)	

~ Errore-mezuak

Funtsezkoa da zehatza, argia eta laburra izatea (zakarra izatera iritsi gabe). Ahal dela, esaldi-amaierara iritsi aurretik ulertu behar du mezua erabiltzaileak (fitxategi-izena gaizki idatzi duela, eman duen balioa ez dela egokia, diskoa bete egin dela...). Beraz, oso estilo zuzena erabili behar da; literaltasuna alde batera utzi behar da mezua ondo uler dadin, eta sobera dauden elementuak ezabatu behar dira

Horrez gain, mezuan komando, botoi, aplikazio edo horrelakoren baten izena aipatzen bada, haren jatorrizko izena errespetatu behar da, eta, aurreko atalean azaldu bezala, esaldia ezezkoa bada, ezezko partikularekin (ez/ezin) hasiko da gehienetan, galdegai den heinean. Hona hemen errore-mezuetan agertu ohi diren egitura batzuk:

No se puede…	Ezin da… Ezin izan da… … huts egin du (ahalik eta gutxien erabili)
No se ha podido… No se pudo…** (inoiz ez)	Ezin da aurkitu… Ezin izan da aurkitu…
… no (está) disponible … no (es) válido	… ez dago erabilgarri … ez du balio
Se ha producido un error… Se ha encontrado un error… Hay un error en… Error en… Error durante…	Errore bat gertatu da… -t(z)ean
Se ha producido un problema… Ha habido un problema…	Arazo bat izan da
Existe / No existe	Badago / Ez dago

~ *Ser* eta *estar* aditzak

Gaztelaniaz *ser* eta *estar* aditzak omititu egin daitezke mezuaren jariotasunari oztoporik egin gabe. Euskaraz, ordea, behar-beharrezkoa da ia beti jartzea.

Dispositivo especificado no válido.
Adierazitako gailuak ez du balio.

Comando no disponible
Agindua ez dago erabilgarri

~ Berrespen-mezuak

Sistemak zerbait egiteko berrespena behar duenean agertzen dira berrespen-mezuak. Normalean, galdera bat izan ohi da, baina, gaztelaniaz, hainbat forma har dezake: "¿Desea…?", "¿Le gustaría…?", "¿Continuar?", "¿Seguro que desea…?". Euskaraz ez da inoiz aditza bakarrik erabiliko. Horren ordez, "nahi duzu" formula erabiltzea proposatzen da.

test.txt ya existe. ¿Desea reemplazarlo?
test.txt badago. Ordeztu nahi duzu?

Se ha importado el mensaje. ¿Continuar?
Inportatu da mezua. Jarraitu nahi duzu?

¿Seguro que desea cerrar la aplicación?
Ziur aplikazioa itxi nahi duzula?

~ Erabiltzailearen ekintzen jakinarazpen-mezuak (*toast messages*)

Erabiltzaileak agindutako zerbait egin dela adierazteko, sistemak erabiltzaileari bistaratzen dizkion mezuak dira. Mezu inpertsonalak izan ohi dira (singularreko 3. pertsonan), eta, kasu horietan, zerbait egin izana da garrantzitsuena; beraz, euskaraz aditzak izan behar du galdegaia eta, horregatik, hasieran jarri behar da.

El archivo se ha cargado correctamente
Kargatu da fitxategia

Se ha eliminado la imagen
Kendu da irudia

Ikusten denez, gaztelaniak bi bideak hartzen ditu, batzuetan *correctamente* erabiltzen dute, eta beste batzuetan ez. Duela gutxi arte oso ohikoa zen euskarazko softwareetan "Fitxategia behar bezala kargatu da", baina, eztabaiden ondoren, ondorioztatu zen era horretan *behar bezala* azpimarratzen dela (galdegaia baita) eta ez ekintza bera (*kargatu*). Horregatik hobesten da *behar bezala*, *zuzen* eta halakoak ez erabiltzea.


El usuario ha eliminado correctamente el archivo
Erabiltzaileak fitxategia kendu du

~ Laster-teklak (*keyboard shortcuts*) vs lasterbideak (*hotkeys*)

Euskaraz antzeko izena duten arren, ez dira nahasi behar. Biek balio dute erabiltzaileei ekintzak bizkorrago egiten laguntzeko, baina bakoitzaren jatorria eta funtzionatzeko modua desberdinak dira.

Definizioz, laster-tekla tekla-konbinazio bat da, sagua edo kurtsoredun gailu bat erabiltzea eskatuko lukeen zeregin bat egiteko balio duena. Berdinak izaten dira sistema eragilearen programa guztietan eta KTRL teklaz (Windows) edo Komando teklaz (Mac) hasten dira beti. Gisa honetakoak dira, besteak beste, KTRL+C (kopiatzeko), KTRL+V (itsasteko), KTRL+Z (azken agindua desegiteko). Gailuan edonon gaudela ere joka dezakegu laster-teklekin.

Lasterbideak [hotkey edo (*plain*) *shorcut*], aldiz, software bakoitzak zereginak bizkorrago egiteko dituen tekla-konbinazioak dira. Programa bakoitzak eta hizkuntza bakoitzak bere laster-teklak ditu, eta ekintza bakoitzari dagokion laster-tekla azpimarra txiki batez ageri da. Laster-teklak ALT tekla sakatzean aktibatzen dira beti. Esaterako, Firefox-en ALT+F+L sakatuz gero, lehenik Fitxategia menua irekiko da, eta, segituan, Leiho berria.



Ikus daitekeenez, lasterbidearen eta laster-teklaren konbinazioen bigarren letrak ez du zertan bat etorri. Adibidez, orria gordetzekoa, KTRL+S eta ALT+F+D dira Word 2016n (euskarazko bertsioan).

Itzulgaian, menuetako ekintzetan lasterbideak & ampersand batekin markatuta daude. Hau da, & ikurraren ostean dagoen hizkia izango da lasterbidea. Esaterako: &Save > &Guardar > Gor&de (ingelesez ALT+S izango da lasterbidea; gaztelaniaz, ALT+G eta, euskaraz, ALT+F+D).

Gogoratu hizkuntza bakoitzak bere lasterbideak dituela; izan ere, ezinezkoa izango litzateke ingelesezko S lasterbidea mantentzea euskaraz Gorde hitzarekin, ez baitauka *s*rik.

Ahal dela, jatorrizko lasterbidea mantentzea gomendatzen da, baina horren gainetik, badago urrezko beste arau bat: ekintzen maila bereko lasterbideak ez errepikatzea. Adibidez, menu batean In&portar > In&portatu jarri bada, ezin da maila berean E&xportar > Es&portatu jarri. Demagun ALT+P sakatzen duela erabiltzaileak. Zer egingo luke programak, esportatu ala inportatu? Sistema zoratu egingo litzateke, bi funtzio zeharo desberdinek lasterbide bera edukiko luketelako.

Erabiltzailearentzako laguntzan (*UA* edo *User Assistance*) kontuan hartu beharrekoak

Dokumentazioaren atala izaten da arazo gutxien ematen duen lokalizazioko testu mota. Terminologia fin zaindu behar da eta interfazeari egiten zaizkion erreferentziak ondo egiaztatu behar dira; baina, bestela, testu arrunt bat, esaldi oso eta paragrafoduna itzultzean datza.

Interfazearen erreferentziak egiaztatzea zertan datzan azaltzeko, hona hemen adibide bat. Haurren kontua ezabatzeko argibide batzuk dira, urratsez urrats.

1. Quite la cuenta de su hijo/a de los dispositivos en los que haya iniciado sesión. 2. En su dispositivo, abra la aplicación XX. 3. Seleccione a su hijo o hija. 4. Pulse Administrar configuración > Información de la cuenta > Eliminar cuenta.
1. Kendu haurraren kontua saioa hasita duen gailuetatik. 2. Zure gailuan, ireki XX aplikazioa. 3. Hautatu haurra. 4. Sakatu Kudeatu ezarpenak > Kontuaren informazioa > Ezabatu kontua

Laugarren puntuan Erabiltzaile interfazearen (*UI* edo *User Interface*) atal jakin batzuei egiten zaie erreferentzia hitzez hitz. Horrek esan nahi du atal horiek ondo euskaratzeko euskarazko *UI*ra jo behar dela, eta horiek nola itzulita dauden begiratu. Demagun libreki itzuli direla, eta “Kudeatu ezarpenak” jarri beharrean “Administratu ezarpenak” jarri dela. Erabiltzaileak

urratsei jarraitzen badie, nahasi egingo da urrats horretara heltzen denean, ez baitu aurkituko "Administratu ezarpenak" aukera softwarean. Horregatik, aurretik esan bezala, *UI*a *UA* baino lehenago itzuli behar da.

Bestalde, batzuetan gerta liteke softwarea bera ez itzultzea eta dokumentazioa bakarrik euskaratzea. Kasu horretan, argi dago, *UI*ari egiten zaizkion erreferentziak itzuli gabe utzi beharko dira.

Azkenik, laguntza-dokumentu hauetan, askotan irudiak eta grafikoak erabiltzen dira argibide modura. Irudiak interfazearen pantaila-argazkiak direnean, softwarearen xede-hizkuntzako pantaila-argazki baliokideak egin beharko dira.

Legezko oharretan kontuan hartu beharrekoak

Softwareen legezko oharrek, zerbitzu-baldintzek, erabilera-oharrek eta cookie-oharrek badituzte berezitasunak.

Batetik, **zuzentasuna**. Berebiziko garrantzia dauka testu mota honetan esanahiak. Aurreko testu motetan itzulsormena[5] presenteago dago, baina legezko testuetan oso zuhur jokatu behar da esaten denarekin; izan ere, itzulpen-akatsak erreklamazioetarako, salaketetarako edo bestelako arazo legaletarako zirrikituak dira.

Bestetik, **hizkera**. Alor juridiko-ekonomikoari buruzko hizkera erabiltzen dute mota honetako testuek; beraz, arlo horretako estiloa erabili beharko da euskaraz.

[5] Itzulpena eta sormena konbinatzen dituen itzulpengintzaren espezialitate bat, batez ere, marketin- eta publizitate-testuetan erabilia.

Azkenik, **letra larrien erabilera.** Legezko testuetan gaztelaniako testuen letra larriei jarraitu behar diegu aurretik definitutako termino legalen kasuan. Hitz horiek kakotx artean agertu ohi dira testuan lehenbiziko aldiz aipatzen direnean, errazago identifikatu ahal izateko, eta gero, testuan zehar letra larriz markatu ohi dira, anbiguotasunik egon ez dadin eta testua interpretatzea errazagoa izan dadin.

> Te agradecemos que uses los productos y los servicios de Google (en adelante, los "Servicios"). Si resides habitualmente en el Espacio Económico Europeo […]
> El uso de nuestros Servicios implica la aceptación de estas condiciones. Te recomendamos que las leas detenidamente.

> ↓Eskerrik asko gure produktuak eta zerbitzuak erabiltzeagatik (aurrerantzean, "Zerbitzuak"). Europako Esparru Ekonomikoan edo Suitzan bizi bazara […]
> Gure zerbitzuak erabilita, baldintza hauek onartzen dituzu. Irakur itzazu arretaz.

> Eskerrik asko gure produktuak eta zerbitzuak erabiltzeagatik (aurrerantzean, "Zerbitzuak"). Europako Esparru Ekonomikoan edo Suitzan bizi bazara […]
> Gure Zerbitzuak erabilita, baldintza hauek onartzen dituzu. Irakur itzazu arretaz.

AZPIDAZKETAN ARITZEKO JARRAIBIDEAK

Osakidetzan, askotan txertatu behar izaten dira euskarazko azpituluak erdaraz sortutako bideoetan, dela iragarki-kanpainetan, dela prestakuntza-bideoetan. Hori dela eta, atal honetan, azpidazketan aritzeko jarraibide labur batzuk azalduko dira, Josu Barambonesen eta Beatriz Zabalondoren *Ikus-entzunezko itzulpena* liburuan oinarrituta.

Azpidazketaren ezaugarri orokorrak

~ Egokitzapena

Azpidatzietan, egokitzapena egingo da, itzulpen laburtua, nolabait esan. Ez dago den-dena eman beharrik, funtsezkoena baizik. Hain zuzen ere, jarraian ikusiko diren beharrezko murrizketak aplikatuz gero, argi dago ezin dela jatorrizkoan esaten den informazio guzti-guztia eman azpituluan, eta, testuinguruaren arabera, erabaki beharko da zer den ezinbestekoa ematea eta zer omiti daitekeen.

Horrez gain, informazioa ahalik eta modu naturalenean emateko hizkuntza-baliabideak erabili beharko dira.

~ Lerro bateko edo biko azpidatziak

Azpidatzi bat lerro batekoa edo bikoa izan behar da, gehienez ere. Normalean, pantailaren behealdean agertzen da.

~ Lerroko 35 karaktere

Lerroko 35 karaktere inguru onartzen dira. Hitz-tarteak eta puntuazio markak ere karaktere gisa zenbatzen dira.

~ 6 segundoen araua

Azpidatziak pantailan egon beharreko denbora erabakitzeko, jatorrizko ahozko ekoizpenaren abiadurari eta erritmoari eta ikusleek ustez duten irakurketa-abiadurari erreparatu behar zaie. Alabaina, ikusleen irakurketa-abiadura datu heterogeneoa dela kontuan hartuta, oso zaila da azpidatzien abiadurari buruzko irizpide finko eta itxi bat ezartzea. Hala ere, azken hamarkadetan, azpidazketaren alorrean 6 segundoen arauari jarraitu zaio. Arau horren arabera, ikuslea 2 lerro eta lerro bakoitzeko 35 karaktere irakurtzeko gai da 6 segundoan.

Beraz, azpidatzi batean sartu ahal den karaktere kopurua azpidatziak pantailan irauten duenaren araberakoa izango da. Hementxe daude baliokidetzak:

Segundo	Karaktere	Segundo	Karaktere	Segundo	Karaktere
00:04	2	02:04	26	04:04	49
00:06	4	02:06	27	04:06	50
00:08	6	02:08	28	04:08	51
00:10	5	02:10	29	04:10	52
00:12	6	02:12	30	04:12	53
00:14	7	02:14	31	04:14	54
00:16	8	02:16	32	04:16	55
00:18	9	02:18	33	04:18	56
00:20	10	02:20	34	04:20	57
00:22	11	02:22	35	04:22	58
01:00	12	03:00	36	05:00	59
01:02	13	03:02	37	05:02	60
01:04	14	03:04	38	05:04	61
01:06	15	03:06	39	05:06	62
01:08	16	03:08	40	05:08	63
01:10	17	03:10	41	05:10	64
01:12	18	03:12	42	05:12	65
01:14	19	03:14	43	05:14	66
01:16	20	03:16	44	05:16	67
01:18	21	03:18	45	05:18	68
01:20	22	03:20	46	05:20	69
01:22	23	03:22	47	05:22	70
02:00	24	04:00	48	06:00	70
02:02	25	04:02	49		

~ Planoak eta sekuentziak errespetatzea

Komeni da azpidatziak antolatzea film edo ikus-entzunezkoaren soinu eta irudien parean. Ahal dela, kontuan hartuko dira plano- eta sekuentzia-aldaketak, baita pertsonaiek edo narratzaileek zer erritmotan hitz egiten duten ere, hau da, hitz egiten dutenek egiten dituzten eten eta isiluneak.

~ Etenak azpidatzien artean

Azpidatzi batetik bestera etena egin behar da: azpidatzi baten eta hurrengoaren artean tartetxo bat utzi behar da, bestela, ikuslearen begiak ez du antzemango noiz aldatu den azpidatzia.

Hizkuntza-irizpideak

~ Azpidaztea ez da itzultzea

Batetik, ezin da jatorrizko testu guztia itzuli, eta, nahi eta nahi ez, ia beti laburtu egin behar da jatorrizkoan esandakoa, muga fisikoengatik, bistan denez. Bestetik, audio-kanalari ez baizik irudizkoari dagozkion segmentuak ere eman behar dira azpidatzietan (egunkari-tituluak, kartelak, eta abar). Beraz, azpidazketa egokitzapena da.

~ Laburtasuna

Jatorrizko ikus-entzunezkoan esandakoaren ideia bat emateko, hainbat azpidatzi egin behar badira, ahalik eta azpidatzi gutxien egitea da joera, ikusleak haria gal ez dezan.

~ Zuzen eta egoki

Azpidatzi bakoitzak osotasun semantiko eta sintaktikoa gorde behar du, eta koherentzia eta kohesioa dira elkarrizketak ulertzeko bidea. Horrez gain, azpidatzietako testuaren zatikatzea unitate gramatikalak errespetatuta egin behar da, hala lerroz lerrokoa nola proiekzio batetik besterakoa.

~ Errepikak saihestu

Izen bereziak nahiz esaldi edo errepikak ez dira behin eta berriro azpidatziko.

~ **Arau ortotipografikoak**

Azpitituluak irakurtzeko denbora nahikoa emateaz gain, gogoan izan behar da azpidatziak bisualki ere atseginak izan behar direla, eta, ildo horretatik, komeni da azpidatziak puntuazio-markaz ez betetzea, irakurketa arindu behar zaiolako ikus-entzuleari.

- Letrakera arruntez idazten dira azpidatziak.

- Letra larriak gutxitan erabiltzen dira.

- Hauek eman ohi dira letra etzanez: gutunak, abestiak, liburuetako aipuak, telebista nahiz irratiko ahotsek diotena, edo film beraren barruan beste hizkuntza batean esaten dena.

- Zenbakiak zifretan ematen dira.

- Puntuak eta komak idazketa arrunteko balio bera dute. Puntu eta koma ez da inoiz erabiltzen.

- Bi puntuek eta harridura- eta galdera-ikurrek erabilera arrunta dute.

- Marra luzea elkarrizketak markatzeko erabiltzen da. Marra luzea markatuko da bakarrik azpidatzi berean bi pertsonak hitz egiten badute, eta, orduan, beheko lerrokoari bakarrik jarriko zaio.

- Eten puntuek bi funtzio nagusi izango dituzte:

    a) Azpidatzi batean esaldi bat ez dela amaitu adierazteko:

    > Ez diogu inori ezer esan behar,
    > ez pazienteari ez familiari…
    >
    > …protokoloa abiarazi behar dugu.
    > Arauak ezagutzen ditugu.

    b) Pertsona batek zalantza-edo agertzen duenean hizketaldian:

    > Non daukazu min?
    > —Zera… orain esango dizut.

- Komatxoak ez dira erabiltzen. Letra etzanaren alde egiten da; izan ere, komatxoak erabilita bi karaktere gehitzen zaizkio azpidatziari.

- Parentesiak oso gutxitan erabiltzen dira, baina tarteki bat komaz baino gehiagoz markatu nahi badugu, parentesiak erabiliko ditugu beti, ez marra (marra, esan bezala, elkarrizketak markatzeko erabiltzen baita).

ITZULTZAILE AUTOMATIKOA ETA POSTEDIZIOA

Azken urteotan, asko garatu dira hizkuntza-teknologiak, eta argi dago itzulpen automatikoko (IA) sistemak gure egunerokoaren parte direla. Erregeletan edota estatistiketan oinarritutako itzulpen automatikoko sistemek sare neuronaletan oinarritutakoei eman diete bidea, eta gaztelania-euskara-gaztelania hizkuntza-konbinazioan emaitza oso onak ematen dituzten tresnak garatzen ari dira.

Gaur egun, hizkuntza-konbinazio horretan, besteak beste, honako tresna hauek daude erabilgarri:

- *Eusko Jaurlaritzaren Itzultzaile Neuronala*
- Elhuyarrek garatutako *itzultzailea* (Elia)
- *EITBren Batua.eus itzultzailea* (albisteak itzultzeko, batez ere).

Tresna horietako gehienak publikoak dira, baina, itzulpenak berrikusi beharra dago. Itziar Cortések eta Saroi Jauregik *Senez* aldizkarian argitaratutako "*Itzultzaile automatikoa: mehatxua ala aukera?*" artikuluan ondo azaltzen duten bezala, "itzulpen automatikoa denon eskura dago, Internet eskuragarri duen edonork erabil dezake, eta erabiltzailearen erantzukizuna da emaitza hori zertarako eta nola erabili". Beraz, edonora bidaltzeko edo argitaratzeko testu bat itzultzaile automatikoaren bidez euskaratu edo gaztelaniaratu nahi izanez gero, argi eduki behar da ezinbestekoa izango dela sistema automatikoak ematen duen emaitza berrirakurri eta behar den neurrian posteditatzea.

Lerro batean bilduta: **beti-beti berrirakurri eta posteditatu behar da itzulpen automatikoaren emaitza.**

Itzulpen automatikoaren erabilera aurreratua egitea: posteditatzea

Posteditatzea itzulpen automatikoko testu bat berrirakurri eta beharrezkoak diren doikuntzak egitea da, testua egokia eta zuzena izan dadin. Posteditatzea deritzo itzultzaileek/zuzentzaileek sistema automatikoen bidez itzuli diren testuak orraztean egiten duten lanari. Posteditatzean, besteak beste, egon litezkeen akats ortografiko, gramatikal, terminologiko, sintaktiko eta estilistikoak zuzendu beharko dira, eta testua bere beharretara egokitu.

Itzulpen automatikoak (eta postedizioak) laguntza bat izan behar du erabiltzen duenarentzat. Beraz, kasuan-kasuan erabaki beharko da IA erabiltzeak denbora edota esfortzua aurrezten duen; izan ere, baliteke testu motak, edukiaren konplexutasunak edota gaiaren espezializazio-mailak IAren emaitza baldintzatzea. Hortaz, egoera bakoitzean, IAren emaitzen baliagarritasuna neurtu beharko da. Ildo horretatik, Nora Aranbarriren "*Ba al dago lekurik euskararako postedizioarentzat?*" artikuluan (*Senez* aldizkaria), 5 hitzen teoria eta 3 segundoen araua aipatzen dira. "5 hitzen teoriaren arabera, posteditoreak itzulpenaren lehenengo eta azken 5 hitzak irakurri behar ditu, eta erabilgarritasuna hortik ondorioztatu. Aldiz, 3 segundoen teoriaren arabera, denbora tarte hori uzten zaio posteditoreari, nahi duena irakurri eta erabaki bat hartzeko. Bien oinarrian, zera dago: posteditoreari irizpide bat edo beste ematea, ahalik eta azkarren har dezan erabakia".

OSAKIDETZAKO HELBIDE ELEKTRONIKOAK SORTZEKO IRIZPIDEAK

Askotan, Osakidetzako profesionalek helbide elektronikoak sortu behar izaten dituzte. Bada, Osakidetzako helbide elektronikoak sortzeko irizpide bateratuak ezartzeko eta arlo horretan ere euskararen erabilera sustatzeko, honako printzipio hauek hartu behar dira kontuan:

Helbide elektronikoak sortzeko irizpide orokorrak

1. Sinpleak, argiak eta koherenteak:

- Erabili hitz/izen/adierazpen argiak eta laburrak.
- Eutsi koherentziari helbide elektroniko guztietan.
- Gehienez ere, 60 karaktere izango dituzte helbideek.
- Letra larriak sigletarako erabiliko dira, eta gainerako hitzak letra xehez idatziko dira.
- Zuzendaritza, unitate eta abarren euskarazko zein gaztelaniazko izen zuzena erabili beharko da. Zuzendaritzen, zuzendariordetzen, osasun-zentroen eta abarren izen zuzenak intranetean kontsulta daitezke.

2. Euskara eta elebitasuna:

- Ziurtatu helbide elektronikoek euskararekiko konpromisoa islatzen dutela.
- Erabili euskarazko terminoak ahal den guztietan.
- Zalantzarik izanez gero, eskatu laguntza Euskara Zerbitzu Korporatiboari (ITZULPENAK.ERAKUNDEZENTRALA@osakidetza.eus).

3. Zerbitzu-hizkuntza eta zuzenketak:

- Helbide elektronikoa kudeatzeaz arduratzen diren pertsonek euskaraz jarduteko gaitasuna badute eta lan-harremanetan euskara lehenetsi nahi badute, helbide elektronikoari "(EUS)" marka gehituko zaio.
- Lehendik dauden helbide elektronikoak zuzendu nahi izanez gero, sortu irizpide hauekin bat datorren helbide berria eta idatzi CAUra aldaketa egin dezaten eskatzeko. Nolanahi ere, proposatutako helbide berria zuzena ote den zalantzatan egonez gero, bidali proposamen berria Euskara Zerbitzu Korporatiboari, CAUkoei aldatzeko eskaera egin aurretik.

4. Zeinuak erabiltzeko irizpideak:

- Zeinuak erabiltzean, hala nola puntuak, gidoiak eta azpimarra, bete hemen ezarritako jarraibideak, bakoitzaren erabileran koherentzia bermatzeko.

  - PUNTUA (.): hitzak banantzeko.

  - GIDOIA (-): informazio osagarria bereizteko (erakundearen izena, zerbitzuarena, zuzendariordetzarena, unitate edo atalarena…).

  - AZPIMARRA (_): euskarazkoa eta gaztelaniazkoa ondoz ondoan doazenean bi hizkuntzen arteko muga markatzeko.

5. Laburtzapenak eta siglak:

- Ahal dela, ez da laburdurarik erabiliko, hau da, hitzen forma osoa edo siglak erabili behar dira —batez ere akronimo ezagunak badira—, euskara hutsez nahiz ele bitan.

- Zuzendaritza Nagusiko helbideetan, ez da ZN edo DG jarri behar, beste erakundeetakoetan soilik jarriko da erakundearen sigla (ikus Osakidetzako erakundeen sigla ofizialen zerrenda intranetean).

Euskararen erabilera

Euskara lehenetsi:

- Helbide elektronikoak sortzean, bi hizkuntzak ondoz ondoan ala euskarazko hitzak bakarrik erabiliko dira.

  Adibidea: lehen.mailako.arreta@osakidetza.eus
  lehen.mailako.arreta_atencion.primaria@osakidetza.eus
  ↓ atencion.primaria@osakidetza.eus

- Euskarazko terminoa soilik erabiltzea nahikoa bada bi hizkuntza ofizialetako grafia oso antzekoa delako, ez da bikoiztuko.

  Adibidea: arkitektura@osakidetza.eus
  ↓ arkitektura_arquitectura@osakidetza.eus

- Emaitza elebiduna luzeegia bada, zilegi izango da euskara hutsez ematea nahiz bi hizkuntzak txandakatzea.

  Adibidea: lanpostu.esleipena-publicaciones@osakidetza.eus

  EDO provision.puestos-argitalpenak@osakidetza.eus
  ↓lanpostu.esleipena_provision.puestos-argitalpenak_publicaciones@osakidetza.eus

- Zuzendaritza, unitate eta abarren helbide elektronikoak sortzean, euskarazko izen zuzena erabili beharko da.

  Adibidea: erosketa.integratuko.eta.katalogoko.zerbitzua@osakidetza.eus
  ↓ erosketa.integratu.eta.katalogoko.zerbitzua@osakidetza.eus

Laguntza:

Zalantzarik izanez gero edo dokumentu honetan jasota ez dagoen irizpideren bat behar izanez gero, Euskara Zerbitzu Korporatiboari laguntza eskatu ahalko zaio.

Hemen jasotako irizpideekin bat ez datozen helbide elektronikoak zuzentzeko, Euskara Zerbitzuari laguntza eskatu ahalko zaio.

Helbide elektronikoetarako formatua

Izen sinplea (zerbitzua, ataza, proiektua, atala…):

Formatua: dagokion.horren.izena@osakidetza.eus
edo dagokion.horren.izena_nombre.correspondiente@osakidetza.eus

Adibidea: lanbide.garapena@osakidetza.eus
edo lanbide.garapena_desarrollo.profesional@osakidetza.eus

1. izena + 2. izena (ataza eta zerbitzua, zerbitzua eta erakundea, etab.):

Formatua: lehenengo.izena-bigarren.izena@osakidetza.eus
edo lehenengo.izena_primer.nombre-bigarren.izena@osakidetza.eus

Adibidea: prestakuntza-AESI@osakidetza.eus
edo prestakuntza_formacion-AESI@osakidetza.eus

Adibidea: itzulpenak-bilbo.basurtuko.ESIa@osakidetza.eus
edo itzulpenak_traducciones-bilbo.basurtuko.ESIa@osakidetza.eus
edo itzulpenak_traducciones-BBESI@osakidetza.eus

Siglak:

Argiak eta ezagunak badira edo helbide elektroniko luzeegiak sortzea ekidin nahi bada, zilegi izango da siglak edo akronimoak erabiltzea.

Formatua: siglak@osakidetza.eus
edo siglak_siglas@osakidetza.eus

Adibidea: KK@osakidetza.eus
edo KK_CCEE@osakidetza.eus
edo KK_CCEE-AUO_HUA@osakidetza.eus
edo PEAZ_SAPU-KK_CCEE-AUO_HUA@osakidetza.eus

Salbuespenak:

EAEtik kanpoko enpresekin harremanak izateko, zilegi izango da bigarren helbide elektroniko paralelo bat sortzea, gaztelania hutsez, baina mezuak helbide elebidunaren edo euskara hutsekoaren postontzi berera iritsiko dira.

Adibidea:		proveedores-presupuestos@osakidetza.eus
	edo	hornitzaileak-aurrekontuak@osakidetza.eus

Euskaraz ere gaztelaniazko siglak erabiltzen direnean, zilegi izango da sigla horiek bakarrik erabiltzea, euskarazko bertsiorik gabe (PADI, CAU…).

BIBLIOGRAFIA

ANSUATEGI, Eukene eta UBEDA, Marimar: *Erreferentzia bibliografikoak euskaraz. Vancouver estiloa jarraituz,* [Internet], OEE eta UEU, Donostia, 2018, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://aldizkariak.ueu.eus/index.php/osagaiz/libraryFiles/downloadPublic/2*

ARANBERRI, Nora: "Ba al dago lekurik euskararako postedizioarentzat?" [Internet], *in* Senez, 47 (2016), [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20161103/13aranberri*

BARAMBONES, Josu eta ZABALONDO, Beatriz: *Ikus-entzunezko itzulpena*, UEU, Bilbo, 2006.

BERRIA (2018): Estilo-liburua, Donostia. *https://www.berria.eus/estiloliburua*

BFA: *Adinekoak eta Hedabideak Bizkaian* [Internet], Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila, Bilbo, 2011, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/medios_WEB_eu.pdf?hash=5dc5a42605f0f8dcbce0d56bdb7e5767&idioma=EU*

CORTES, Itziar eta JAUREGI, Saroi: "Itzultzaile automatikoa: mehatxua ala aukera?" [Internet], *in* Senez, 50 (2019), [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://eizie.eus/eu/jarduerak/argitalpenak/senez/senez-50-2019/itzultzaile-automatikoa-mehatxua-ala-aukera*

Cosnautas. (s.f.). *V2 Virus*. Cosnautas. [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.cosnautas.com/es/libro/167-v2-virus*

EHU: *APA estiloa: Nola aipatu eta osatu bibliografia* [Internet], EHU, Bilbo, 2019 [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://addi.ehu.eus/bitstream/handle/10810/42398/APA_7.pdf?sequence=7&isAllowed=y*

EHU eta ELHUYAR: Zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa, Donostia. *https://zthiztegia.elhuyar.eus/*

ETXEBARRIA, Jose Ramon: *Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak* [Internet], Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eima_estilo_liburu/eu_def/adjuntos/Zientzia_22_06.pdf*

EIZB. Hizkuntza akatsak. *https://eibz.educacion.navarra.es/blogak/akatsak/2018/09/03/okerrak-ongi-etorria-gure-blogera-ongi-etorriak-gure-blogera/*

EUSKALTZAINDIA: *Arauak*, Bilbo. *http://www.euskaltzaindia.eus*

EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU) I, II, III, IV, V, VI, VII* [Internet], Euskaltzaindia, Bilbo, 1985-2011, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/gramatika/eglu-dokumentuak*

EUSKALTZAINDIA: *Euskara Batuaren Eskuliburua* (*EBE*): *A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak* [Internet], Euskaltzaindia, Bilbo, 2018, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161*

EUSKALTZAINDIA: Euskaltzaindiaren Hiztegia [Internet], Euskaltzaindia, Bilbo, 2013, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu*

EUSKO JAURLARITZA. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Inklusiboaren Jarraibideak [Internet], Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Vitoria-Gasteiz, 2022. [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/berdintasun_hizk_inklusiboa/es_def/adjuntos/KULTURA-ETA-HIZKUNTZA-POLITIKA-SAILEKO-HIZKUNTZA-INKLUSIBOAREN-JARRAIBIDEAK.pdf*

FERNÁNDEZ, June: Euskararen erabilera inklusiboa [Internet], UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Pikara Magazine, Bilbo, 2018, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.ehu.eus/documents/2007376/12795677/Euskararen-erabilera-inklusiboa.pdf/9d3417d4-4479-9b9c-e744-a49c31e65369*

FUNDEU: Escribir en Internet. Guía para los nuevos medios y las redes sociales, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2012.

GARZIA, Juan: "Aditza amaieran?" [Internet], in 31 eskutik bloga (2013), [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *http://31eskutik.eizie.eus/2013/05/06/aditza-amaieran/*

GARZIA, Juan: Kalko okerrak [Internet], Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2005, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_otros_ambitos/es_def/adjuntos/euskal/estilo/951002e_Pub_EJ_estilo_2_kalko_okerrak_e.pdf*

GARZIA, Juan: Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak [Internet], Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2014, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *http://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051476&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf*

GARZIA, Juan: Esaldiaren antolaera. Funtzio informatiboak gako, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2014.

GARZIA, Juan: Esaldiak josten. Anaforak, lokailuak, aditz-isiltzea, sasimenderakuntza, nominalizaziozko joskera, esaldi-adjektiboak, joskeren aukera, puntuazio elkargailu, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2017.

GONZÁLEZ G., A. G. Aplicación del alfabeto griego [Internet] Apuntes de clase, Universidad Interamericana de Panamá, Studocu, 2022 [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.studocu.com/latam/document/universidad-interamericana-de-panama/biofisica/aplicacion-del-alfabeto-griego/21867492*

HAEE: Administrazioa Euskaraz, 87 (2015), [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.ivap.euskadi.eus/webivap00-a5app2/eu/t59auUdaWar/R1/sumario/87*

HAEE: IVAPeko estilo-liburua [Internet], Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 2005, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf*

HAEE: Zalantza-dantza 2022: Ohiko zalantzak A-tik Z-ra. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, Gasteiz, 2022.

IÑURRIETA, Iñaki: "Legeen izenez II" [Internet], in 2tzul (2012), [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://eizie.eus/eu/argitalpenak/azterketak-txostenak/2tzul/legeen-izenez-ii*

IZO: Itzulpen eta Berrikusketa-irizpideak: Erabakiak eta gomendioak [Internet] , [Kontsulta: 2025/09/26]. Eskuragarri: *https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/itzulpen_irizpideak/eu_def/adjuntos/Itzulpen-irizpideak_2025eko-apirila.pdf*

Kalkoen behatokia (EHU) *https://www.ehu.eus/ehg/kalkoak/*

LIBREZALE: Estilo-liburua. *https://librezale.eus/wiki/Estilo-liburua*

LÓPEZ, Ane: Lokalizazio-moduluko apunteak, Itzulpengintza eta Teknologia Graduondokoa, UEU eta EHU, Eibar, 2015.

MEJUTO, Gilen: "Arau-izenburuen katramila sintaktikoak" [Internet], in Senez, 49 (2018), [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/2018/arau-izenburuen-katramila-sintaktikoak*

MICROSOFT: Basque Style Guide. *https://download.microsoft.com/download/c/6/0/c608b32d-8d04-44a8-a42a-4b0401bc3115/eus-esp-StyleGuide.pdf*

MONTERO LANGUAGE SERVICES. Alfabeto griego en la ciencia [Internet] Montero Language Services, 2017 [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://montero-ls.com/alfabeto-griego-en-la-ciencia/*

MUJIKA, Alfontso: Letra larriak erabiltzeko irizpideak [Internet], Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2008, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eima_estilo_liburu/eu_def/adjuntos/letra_larriak.pdf*

NAVARRO, F. A. Símbolos que se confunden. Revista Española de Cardiología, 71(5), 311. [Internet] [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://doi.org/10.1016/j.recesp.2017.11.026*

ONOMASTIKA BATZORDEA: Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak [Internet], Euskaltzaindia, Bilbo, 2019, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/82190.pdf*

PETRIRENA, Patxi: Administrazioko testugintzaren lantegia ikastaroko apunteak, EIZIE, online, 2019

PETRIRENA, Patxi: "Desegoki* gerundiotuz" [Internet], in Administrazioa Euskaraz, 110 (2020), [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskadi.eus/t59auUdaWar/t59aMostrarFicheroServlet?R01HNoPortal=true&t59aIdRevista=1&t59aTipoEjemplar=R&t59aNumEjemplar=110*

PETRIRENA, Patxi: Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak [Internet], Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eima_estilo_liburu/eu_def/adjuntos/MORFOSINTAXIA_PDFa.pdf*

PETRIRENA, Patxi: "Legeen izenez" [Internet], in 2tzul (2011), [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://eizie.eus/eu/argitalpenak/azterketak-txostenak/2tzul/legeen-izenez-eta-parteez*

ZENBAITEN ARTEAN: Donostia Unibertsitate Ospitaleko alta-txostenak, Donostia Unibertsitate Ospitalea – Komunikazio Unitatea, Donostia, 2014.

ZENBAITEN ARTEAN: Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia [Internet], Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Araba, 2020, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/hiztegiak_euskara/eu_def/adjuntos/WEB_FEMINISMO_ETA_BERDINTASUN_HIZTEGIA.pdf*

ZENBAITEN ARTEAN: Osasun mentalaren gainean komunikatzeko estilo-gida: hitzek badute zer esana [Internet], SALUD MENTAL ESPAÑA konfederazioa, Madril, 2018, [Kontsulta: 2025/09/30]. Eskuragarri: *https://www.consaludmental.org/publicaciones/Guia-estilo-salud-mental-euskera.pdf*

ZUBIMENDI, Joxe Ramón: Ortotipografia [Internet], Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2004, [Kontsulta: 2025/11/13]. Eskuragarri: *https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/liburua/letra-larriak-erabiltzeko-irizpideak/*